# goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2012-01-20
EGUBAKOITZA
493. ZENBAKIA
12. URTEA
DOANEKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM


## Baserriko produktuak, plazara

Zapatuetako azoka bihartik Arrasaten | 11



Iazko azoketako bat. | GOIENA

Ikurrina udaletxetan jarri zutela 35 urte bete ziren atzo, eguena | 2



Parte-hartzea bultzatzeko taldea sortu dute Antzuolan | 25



Urteko txakolina aurkeztuko dute etzi, domeka, Angiozarren | 5



## "GURE HABITAT NATURALA MENDIA DA"

Antartikako zeharkaldian bizi izandakoak kontatu dizkigu Iñurrategik, eta dagoeneko buruan ditu hurrengo erronkak; mendian izango dira | 28

Alberto Iñurrategi Urkuluko hegaztien behatokietako batean, Kurtzebarri aldera begira. | XABIER URTZELAI



Mikel Aristi. | XABIER URTZELAI

## Debagoieneko Kirol Sariak banatuko dira gaur Elgetan

19:00etan hasiko da ekitaldia, Espaloian, eta antolatzaileek dagoeneko eman dute aditzera Mikel Aristi ziklista bergararrak jasoko duela herritarrek emandako saria. Gainontzeko sariak ekitaldian jakinaraziko dituzte. *Goiena.net* atarian zuzenean jarraitu ahal izango da | 29

### SINADURAK


RUFINA OLASAGASTI | 6
6 | ARANTZAZU EZKIBEL
ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL | 13
22 | BEÑAT ZAMALLOA
XABI IGOA | 26
40 | IDOIA ETXEBERRIA

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6 | ELKARRIZKETA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 28 | KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 37 | ESKELAK 37 | NON-ZER 38


## Galdeketa telefonikoa egingo du Goienak egunotan

Hedabideak kontsumitzeko ohituren gainean da | 5

## "Gipuzkoaren gehiengoak ez du atez atekoaren alde egiten"



**Markel Olano**
EAJren bozeramailea Gipuzkoako Batzar Nagusietan | 8




# Debagoieneko alkateen eskuek ikurrina goraino jaso zuten eguna


Jose Kruz Etxebarria alkatea, Aretxabaletan

- Ikurrina legeztatu zela 35 urte bete ziren urtarrilaren 18an
- Bailarako alkate eta zinegotziek gogor jardun zuten horren alde

**LEIRE KORTABARRIA** | ARRASATE

"Ikurrina zen jendearen lehenengo egarria. Gaur, 35 urte pasa eta gero, gazteek pentsatuko dute, ikurrinarekin jaiotakoak direlako, ez duela horrenbesteko garrantzirik. Baina beste pauso batzuk etorri aurretik, atea irekitzeko giltza izan zen ikurrina". Jose Antonio Altuna *Txatillo* Arrasateko alkate zenaren hitzak dira.

Ikurrina euskal ikur ofizial gisa 1977ko urtarrilaren 16an jaso zen Euskal Herrian lehenengo aldiz, Etxarri Aranatzen. Hori eta handik bi egunera ikurrina ofizialdu zedin lortzeko, Debagoieneko alkateek batera lan egin zuten aurretik. Trantsizioko Alkateen Mugimendua gisa ezagutzen da hura, eta horko buruen artean zeuden bailarako orduko alkate batzuk: Bergarakoa, Jose Luis Elkoro; Arrasatekoa, Jose Antonio Altuna; eta Aramaiokoa, Julian Untzueta. Jende asko zuten atzetik: Etxebarria Aretxabaletan, Errasti Eskoriatzan, Basauri Elgetan, eta zinegotzi asko ere bai. "Eta alkateak alde ez zeuden herri askotan, zinegotziak alde zeuden", esan zuen Altunak Goiena *Magazinea*-n.

**Aurrekaria, Bergaran**

Orain 35 urte, urtarrilaren 16an, Etxarri Aranatzen, foruak itzultzearen aldeko, euskara ofizial izateko eta amnistiaren aldeko manifestua onartu zuen udalak, eta ikurrina jaso zuen, Euskal Herrian lehenengoz. 176 udalek egin zuten bat manifestuarekin. Urtarrilaren 16an izan zen hori. Trantsizioko Alkateen Mugimenduak batera prestatutako manifestua izan zen hura.

Handik bi egunera, ikurrina legeztatu zela jakinarazi zuen Espainiako presidente Adolfo Suarezek, eta hilaren 19an, azkenean bai, ikurrina eskubide eta ohore osoz ipini zuten Euskal Herriko udaletxeetan, herrietako plaza nagusiak inoiz baino beteago zeudela.

Bada, gertaera horietan, bailarak zeresan handia izan zuen. Hala, Etxarri Aranazko Udalak 1976ko abenduaren 28an egin zuen dei udal guztien batzarrera, baina horren aurrekaria Bergaran izan zen, uztailaren 21ean: egun horretan Bergaran bildu ziren udal ordezkariak, Jose Luis Elkorok (Bergara), Imanol Murua (Zarautz), Inazio Iruin (Hernani) eta Iñaki Aristizabalek (Oiartzun) deituta. 1931n Lizarran euskal udalek onartu zuten autonomia estatutuaren antzekoa eskatzen zuten. Jose Antonio Altunak Arrasate Irratian eta Goiena *Magazinea*-n esan zuenez, alkate gisa bereziki gogoan dituen hiru datetako bat da hori.

Bestalde, Etxarri Aranazko ekitaldia oso kontrolatua zuen Espainiako Gobernuak. Errepideak Guardia Zibilaren kontrolez josita zeuden. Hala, zapuztutako 30 udaletako ordezkariak Bergaran batu ziren.

**Argazkia atera guran**

Hilaren 18an, Rodolfo Martin Villa Espainiako Gobernazio ministroak deituta, Alkateen Mugimenduko buruak, tartean Altuna eta Elkoro, Madrilera joan ziren. Egun horretarako osoko bilkurak deituta zeuden, baina atzeratu egin ziren.

Hortik aurrerakoa aski jakinekoa da. Julian Untzueta Aramaioko alkate zenak esaten du "oso ondo gogoratzen" duela une hori: "Osoko bilkura egin genuen, eta han adostu genuen ikurrina ipintzea. Balkoira irten nuenean plaza bete-beterik zegoen". Altunak honela dio:"Arrasateko plaza behin ere ez dut ikusi horren beteta. Oso giro berezia zegoen. Guk argazki asko atera genituen. Argazki aldetik, zoramena izan zen hura: ikurrinarekin argazkia atera ziezaioten eskatzen zuen jendeak".


Jose Antonio Altuna eta Julian Untzueta, Arrasate Irratian. | JOKIN BEREZIARTUA

**"Ondo portatu zaitezte"**

Orduko protagonistek ez dituzte inoiz egun haiek ahaztu: "Suarezek legeztatu zuen ikurrina. Baina baldintzak ipini zizkiguten: hiru banderak batera ipini behar zirela. Bitxikeria gisa, Martin Villak galdetu zigun ea zergatik geunden tematuta hilaren 19an, 19:00etan jasotzeko. Esan genion argia zela: Donostian danborrada izango zela, eta ez genuela nahi Donostiak eraman zezala ikurrina lehenengo jasotzearen ohorea, baizik eta herriak, eta parte hartutakoek izan zezatela ohorea", gogoratzen du Julian Untzuetak.

Bailarako herrietan, ordu berean jarri zuten ikurrina. Osoko bilkura egin ostean izan zen, 20:00ak aldera.

Bergaran, Antonio Irazola zinegotziak izan zuen ikurrina


Bergarako Udalaren osoko bilkura erabakigarria.


Arrasateko plaza, jendez gainezka ikurrinaren

EUSKARA IKASTAROAK

MATRIKULA ZABALIK

UDAL EUSKALTEGIAK

ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA
Arimazubi plaza, 2
(Eskola Politeknikoaren ondoan)
Tel.: 943 79 70 77 / 943 79 77 88
Faxa: 943 79 91 43
euskaltegi@arrasate-mondragon.net

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA
Barrenkalea, 33 Irizar jauregia
BERGARA
Tel.: 943 76 44 53
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net

LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA
Nafarroa 2-4
20550 Aretxabaleta
Tel.: 943 79 21 68 • Faxa: 943 79 92 62
leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net

Intxaurtxueta 10
20540 Eskoriatza
Tel.: 943 79 21 68
leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net

BEDITA LARRAKOETXEA UDAL EUSKALTEGIA
Bidebarrieta, 18-behea
20560 Oñati
Tel.: 943 78 24 96
Faxa: 943 71 82 96
euskaltegia@oinati.net

Urtarrilaren 23tik 31ra.


ikurrina jasotzen. | ARETXABALETAKO UDAL ARTXIBOA

ESANAK

## "Beste pauso asko emateko giltza izan zen ikurrina"

## "Bereziki gogoan dut Bergarako 1976ko bilera"

JOSE ANTONIO ALTUNA
ARRASATEKO ORDUKO ALKATEA

ESANAK

## "Ez genuen nahi Donostiak jaso zezan lehen ikurrina"

## "Udaletxeko balkoira irten eta bete-beteta zegoen plaza"

JULIAN UNTZUETA
ARAMAIOKO ORDUKO ALKATE OHIA

ESANAK

## "35 urteren ondoren, gauza askok berdin jarraitzen dute"

## "Aitak esan zigun bide handia dagoela egiteko"

IÑIGO ELKORO
JOSE LUIS ELKORoREN SEMEA

ESANAK

## "Kosta egin zen, baina merezi izan zuen itxoitea"

## "Gobernadoreak agindu zigun ez zuela poliziarik bidaliko"

ANTONIO IRAZOLA
BERGARAKO ORDUKO ZINEGOTZIA


| BERGARAKO UDAL AGIRITEGIA. IDIGORAS FONDOA. EGILEA: J. IDIGORAS IRALA


berotara. | ARRASATE PRESS

ipintzeko ohorea. 1924an Aritzetako San Migel auzoan jaiotako bergararrak fresko-fresko ditu oroitzapen haiek: "Egun handia izan zen. Bost udal genbiltzan aspaldian horren atzetik, eta azkenean lortu genuen. Merezi izan zuen itxoitea", esaten du.

Bezperan gobernadorearekin izandako elkarrizketa ere ia hitzez hitz gogoratzen du: "Esan genion, faborez, poliziak ez zezala esku hartu, jende mordoa egongo zelako, eta horrela agindu zigun. Nik esan nion, "Badakizu, debekatzen badiguzu, horren atzetik jarraituko dugula. Zergatik ez gaur bertan baimena eman?", eta berak, horretarako ahalmenik ez zuela. Legazpin ikurrin bat kentzen bi guardia zibil hil berri zirela gogorarazi nion, eta galdetu nion ea horrelakoak hobeto iruditzen zitzaizkion, eta berak "arrazoi guztia daukazu" esan eta, "ondo portatzen" baginen, poliziarik ez zuela bidaliko esan zigun".

Tentsio momenturik ere izan zen: "Berdura plazan ikurrin bat agertu zen, eta Elkorok bozgorailutik eskatu zuen ken zezatela".

### "Asko dago egiteko"

Joan den domekan, Etxarri Aranatzen batu ziren berriz orduko protagonistetako batzuk, eta gaur egungo ordezkariak. Tartean zeuden Aramaioko garaiko alkatea, Julian Untzueta; Aramaioko, Arrasateko, Bergarako eta Antzuolako oraingo alkateak; zinegotzi batzuk; eta, Bergararen kasuan, orduko alkate Jose Luis Elkororen senideak. Hain zuzen, semeak, Iñigo Elkorok irakurri zuen berriz orain 35 urteko manifestua, eta ekitaldian aldarrikapen horiek berritu zituzten. Eta Etxarri Aranazko Udalak aipamen berezia egin zion Jose Luis Elkorori: "35 urte pasatu eta gero, herriarekin hartutako konpromisoagatik preso daukatelako". Izan ere, Elkorok baimena eskatu zuen ekitaldira joateko, baina Auzitegi Nazionalak ukatu egin zion bezperan.

Iñigo Elkorok Goienari esan zionez, "sentsazio arraroa" izan zuen Etxarri Aranazko ekitaldian: "Hunkigarria izan zen, alde batetik; orain 35 urte umea nintzen, baina momentu haiek berrikusi ziren. Baina gero, hainbeste urte pasa dira eta, hainbat kontutan, egoera berean gaude".

"Ekitaldia bera ere kolokan" egon izana salatu eta gero, Jose Luis Elkororen semeak aitaren erreakzioa kontatu zuen Goiena telebistan: "Esan zuen orain 35 urteko borrokak jarraitu egiten duela. Pozik agertu zen Etxarrin zegoen jendearengatik, egindako ahaleginarengatik, jende askoren goraintziak jaso zituen… Baina esan zigun bide handia dagoela egiteko, orduko aldarrikapenak lortzeko; herriaren borroka gaitasunean eta determinazioan dagoela hori, eta lortu arte aurrera egin behar dugula. Hori da berak transmititu nahi zuena".

### Nafarroa, beti buruan

Ordukoa eta oraingoa lotu zituen ere Jose Antonio Altunak: "Nafarroa buruan geneukan beti, Nafarroak ere bat egin behar zuela. Orain atzera egin du denak, baina ea egunen baten… Atxorrotzen egin zuten ekitaldiak, Nafarroa Bizirik mugimenduak poza eman digu, erakusten dutelako ez garela ahaztu".

## Oroitzapenak eta bitxikeriak

**"ALKATE JAUNA, SAR ZAITEZKE"**
Etxarrira bidean, Jose Antonio Altuna, Arrasateko alkatea, buelta ematera behartu zuten. Eta hauxe kontatzen du: "Mecako sarreran Guardia Zibilak debekatu egin zidan sartzea; orduan, esan nien herriko agintaria neu nintzela eta sartu egingo nintzela". Kuartelera eraman zuten, eta handik dei bat egin zuten. Gero, "alkate jauna, nahi duzunean sar zaitezke zure herrian", esan zioten.

**R5 AUTO BATEN**
Julian Untzueta autoarekin eta guzti akordatzen da: "R5 bat nuen. Etxarrira nindoala, Gasteiz pasa eta segituan, kontrola zegoen. DNIa eskatu, eta ezin nuela jarraitu esan zidaten". Alkateen Mugimenduan zegoen Arabako alkate bakarra izan zen Untzueta.

**MUTIKO MORDOA**
Ikurrina ipini eta betetako plazari begiratuta, Untzuetak "mutiko mordoa, ikurrin batekin plazan" ikusi izana gogoratzen du bereziki. Orduko irudiak buruan gordetzen dituen arren, argazki askorik ez duela onartu zuen Goiena *Magazinea*-n.

**ESKER ONEKO KEINUA**
Espainiako bandera jasotzea derrigorrezkoa zuten udalek. Arrasaten, Espainiakoa Gabriel Mendizabalek jasotzen zuen, eta ikurrina legeztatu zenean, Altunak Mendizabal aukeratu zuen hura jasotzeko, esker ona adierazteko.


Iñigo Elkoro, Etxarrin, manifestua irakurtzen; eskuman, Julian Untzueta | ETXARRI 2012

ARRASATEKO BASERRIKO PRODUKTUEN AZOKA
09:00-14:00 Seber Altube Plaza
HILEKO 3. ZAPATUAN
2012
urtarrilak 21
otsailak 18
martxoak 17
apirilak 21
maiatzak 19
ekainak 16
uztailak 21
irailak 15
urriak 20
azaroak 17
Antolatzailea: ARRASATEKO UDALA AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN Enplegu eta Garapen Ekonomikoaren Saila
Laguntzailea: ibai-arte Arrasateko baserriek eta merkatariek konfiantza, hurbiltasuna eta kalitatea eskaintzen dizkizuete.



# Euskal Herriaz jardun dute alderdi ia guztiek Oñatin , mahai-inguruan

## Gatazkaren ondorioez eta haren arrazoiez jardun zuten, besteak beste

**MONIKA BELASTEGI** | OÑATI

Udalak antolatuta, sentsibilitate ia guztietako alderdiek –sozialistak ezin izan zuen joan– mahai -ingurua egin zuten eguazten iluntzean Oñatin, Herrijorran ekimenaren barruan, Euskal Herriaren egoera politikoaz iritziak partekatzeko.

Bi ordu pasatxo iraun zuen mahai-inguruak eta Euskal Herrian zabaldu den garai berriaren gaineko balorazioa egin zuten; gatazkaren ondorioak aztertu –biktimak eta presoak–; gatazkaren oinarrian dauden arrazoi politikoez ere jardun zuten eta baita lurraldetasunaz ere.




Olaizola, Zubimendi, Gabilondo, Arregi (moderatzailea), Martinez eta Aztiria mahai–inguruan. | MONIKA BELASTEGI

### Une itxaropentsuak

Balorazioa egiteko orduan, azken bi urteetan egin diren urratsen gakoa argia da, EAJko ordezkariaren esanetan: "Ezker abertzale politikoak ETAren aurrean planto egin duela". Bestalde, ezker abertzaleak egindako urratsak positibotzat jo bazituen ere, "euskal gizarteak aspaldi eskatutako aurrerapausoak" zirela ere esan zuen, "beharrezkoak euskal gizarteari begira, baina ez nahikoak". Era berean, orain bi ardatz dituen "euskal trantsizioaren" beharra ere azpimarratu zuen: "Gatazka armatuak izan dituen ondorio guztien konponketa bideratzea eta oraindik indarrean dagoen gatazka politikoari aurre egitea".

Mikel Zubimendi ezker abertzaleko ordezkariaren ustez, azken garaietako eboluzioa "aldaketa" hitzak definitzen du. Baina aldaketa egiazkoa eta integrala izan dadin, bi ideia batu beharko liratekeela azpimarratu zuen: "Denok aldatzen badugu, dena aldatuko da. Bistan da ezker abertzalea aldatu dela, eta ezin da etengabe 'ez da nahikoa' entzuten ibili. Ariketa kolektiboa izan behar du". Bigarren ideia gisa esan zuen hau izan behar dela helburua: "Ondo itxi aro bat, sano, sorna barik, ongi irekitzeko aro berria, indar eta borondate sozialen akumulazioarekin".

Horrekin batera azpimarratu zuen ezker abertzalea bere oinarri sozialarekin egiten ari dela prozesua, baina baita bere aliatuekin, EArekin, Alternatibarekin, Aralarrekin. "Itxaropenerako motibo asko ditugu", esan zuen.

Eusko Alkartasunako eta Aralarko ordezkariek ere "une itxaropentsuak" bizi ditugula esan zuten. Eta zera azpimarratu zuen Aralarkoak: "Beste aldeak zer egingo zuen itxaron gabe egin dira pausoak eta hori oso garrantzitsua da, sinesgarritasuna ematen dizulako gizartearen aurrean. Hortaz, azken urteetako balorazioa gozoa da". Estatuari dagokionez, "zipitzik ez" dela mugitu esan zuen, eta "badela garaia bakegintzarako urratsak egiteko".

PPko ordezkariaren ustez ere "une itxaropentsua" bizi dugu, "gure arteko harremanak hobetu egin dira eta mahai-inguru hau da horren erakusle", esan zuen. Bilduk hauteskundeetan izandako emaitza onak ere ekarri zituen gogora, baina horregatik ez dagoela zertan "jokoaren arauak aldatu".

### Gatazka nola konpondu?

Gatazka konpontzeko bi fronte daude, Aralarko ordezkariaren esanetan: "Biktima guztiei zor zaien errekonozimendua eta gizartearen errekontziliazioa eta presoak".

Ezker abertzaleko ordezkariarentzat, Sortu, Parot... bezalako gaiak landu beharrekoak izanda ere, ikuspuntuak irekiagoa izan behar du. Horrekin batera, bide politikoaren azken emaitza ez da izan behar abertzaletasun edo konstituzionalismo handiagoa. "Azken emaitza demokrazia handiagoa izan behar da. Eta horretarako hiru *A* behar ditugu: adostasun berria, abiapuntu berria eta akordio politiko berria".

**MIKEL ZUBIMENDI**
EZKER ABERTZALEA

"Gatazka datozen belaunaldiei ondaretzan lagatzen badiegu, madarikatuak izan gaitezela gu guztiok. Orain daukagu aukera eta erresponstsabilitate ariketa egin behar dugu, infantilismoak alde batera lagata".

**XABIER GABILONDO**
EAJ

"Lurraldetasunari dagokionez, gauzak ezin dira termino plebiszitarioetan planteatu. Erabakitzeko esparruen banaketa delikatua da eta pertsonalki uste dut horren funtsa izan behar dela herritarren borondatea".

**JOSU AZTIRIA**
ARALAR

"Estatuak ez digu erabakitzeko eskubidea opariituko; erausi egin behar zaio. Nola? Gehiengoa aktibatuz eta lortuz, eta horretarako oso garrantzitsua da abertzaleon arteko elkarlana".

**LORE MARTINEZ**
EA

"Gatazka konpontzeko bidea demokrazia da. Herri honek nahi duena egiteko eskubidea dauka. Eta hori erabakitzeko eskubidean gauzatzen da; ez abertzaleok bakarrik. Guztiok erabaki beharko dugu herri honek nora joan nahi duen".

**RAFAEL OLAIZOLA**
PP

"Badirudi sekula ez garela adostasunera iritsi eta ez da egia. Euskaldun abertzale eta ez abertzaleak gaude eta elkarbizitza baten bizi beharko dugu. Baina horretarako formula badago orain ere, Autonomia Estatutua ".

# "Hobeto bizi izateko, lan gehiago eta besteek baino hobeto egin behar dugu"

**J.I./T.M.** | OÑATI

Epe laburrean aurreikusten diren arazo ekonomikoak eta epe luzerako erronkak aztertu zituen martitzenean Oñatin egindako hitzaldian Joseba Barandiaran ekonomialariak.

Etorkizun hurbilari buruz berba egiterakoan, Joseba Barandiaranek esan zuen aldaketa sakonik egon ezean, datozen bizpahiru urteetan, hazkundeari eta langabeziari dagokionez datu "lar onik" ezin dela espero. Bere esanetan, epe laburrean atzeraldi "ustez txiki bat" jasango du gure ekonomiak, datorren urtebete inguruan "kalteak" ekarriko dituena.

### Konponbidearen gakoak

Barandiaranek ez du ikusten esku beltzik egungo egoera ekonomikoaren atzean: "Finantzek nazioartean izan duten desregulazioa da erantzulea". Konponbideei buruz berba egiterakoan, ekonomialariak azaldu zuen gure enpresak ez direla lehiakorrak nazioarte mailan, eta gaineratu zuen hobeto bizi gura badugu, lan gehiago eta lan hobea egin beharko dugula. "Beste herrialde batzuekin alderatuta, eskulana garestia da hemen eta hori nolabait irabazi egin behar dugu", zehaztu zuen. Hezkuntza eta I+G+B alorrak jorratu beharra ere azpimarratu zuen, esanaz horiek direla errenta handien duten herrialdeen bereizgarriak.



Barandiaran, Oñatin. | JULEN IRIONDO

EAJren GBBk 2012rako martxan jarritako Ekintza Egitasmoko hitzaldietako bat izan zen Oñatikoa.

# Debagoienak ere erakutsiko du bere eskaintza Fitur turismo azokan

**M.B.** | BERGARA

Eguaztenean hasi eta domekara arte zabalik izango ditu ateak Fitur turismo azokak Madrilen. Eta hantxe Debagoienak ere izango du bere txokoa, Euskadiko standean, hain justu ere.

Euskadiko 1.000 metro koadroko standa bost gaitan banatuta egongo da: Hiriko Txangoak, Gastronomia eta Enoturismoa, Natura Aktiboa, Euskadi eta Euskadin Barrena. Azken horretan, hain justu ere, dago Debagoienaren gaineko informazioa.

Bi informazio mota daude ikusgai, Ana Heriz Mankomunitateko Turismo teknikariak azaldu duenez: Ignaziotar Lurraldeari lotutakoa eta bestelako baliabide turistikoen gainekoa; hau da, Bergara, Oñati eta Arantzazuren gaineko informazioa eta bailaran egin daitezkeen ibilbideena.

### Bailarako ordezkaririk ez

Aurreko aldietan ez bezala, aurten ez da bailarako ordezkaririk egongo Fiturren, Ana Herizek azaldu duenez.

Urtean barrena egoten diren azokak bost eskualderen artean banatzen dituztela azaldu du Herizek, eta aurten Debagoieneko ordezkariei ez zaie DFiturren egotea egokitu.

# Getarian ez ezik, Angiozarren ere aurkeztuko dute urteko txakolina

Domekan izango da, 12:00etako mezaren ostean, Parteitti auzoan

MONIKA BELASTEGI | ARRASATE

Txakolinaren festa handia ospatu zuten martitzenean, San Anton eguna, Getarian. Gipuzkoako Txakolina jatorri izeneko 26 upategik erakutsi zuten aurtengo uzta, tartean Debagoieneko bik: Arrasateko Egiaundi upategiak Kataide izenekoa erakutsi zuen eta Oñatiko Upaian upategiak Upaingoa izenekoa.

Getarian primeran pasa zutela eta eguna borobila izan zela esanda, aurrera begira jarri da Javier Arregi, Egiaundi upategiko nagusia: "Getariako dastatzeak funtzionatu du; aurtengo txakolina ona atera da, baina orain saltzen den ikusi behar da. Ardo asko dago eta Arabako Errioxakoarekin lehiatzea ez da erraza, nahiz eta txakolina ezberdina den, eta nire ustez hobea, gainera", esan du Arregik. Eta gehitu du: "Aurten %25 gehiago ekoiztu da. Guk 13.000 litro atera ditugu eta hori saltzea da orain kontua".

Getarian ez ezik, Angiozarren ere aurkeztuko du aurtengo txakolina Javier Arregik, Parteitti auzoko San Bizente jaian. 12:00etako mezaren ondoren izango da, auzokoek banatuko duten salda eta txorizoari laguntzeko



Javier Arregi, Getarian, Katxina jatetxeko Joxemiel Zendoarekin. | IZASKUN GARCIA

**Bailaran sei ekoizle**

Debagoienean sei baserritan dituzte Getariako Txakolina jatorri izenpeko txakolina egiteko mahatsondoak. Lau Oñatin daude eta beste bi Arrasaten. Oñatikoak Murgialdai, Belaskuena, Ditxosuena eta Upain dira; Arrasatekoak, berriz, Egiaundi eta Artazubiaga dira.

Sei ekoizle horietatik bi dira upategia dutenak: Egiaundi eta Upain. Biek egiten dute txakolina; lehenak, Kataide markakoa eta, bigarrenak, Upaingoa izenarekin. Hirugarren batek, Artazubiaga baserriak, Otxia izenarekin komertzializatzen du txakolina, baina honek ez dauka upategia eta Getariako upategi batean bihurtzen diote txakolin, Arrasaten batutako mahatsa.

Oñatiko Murgialdai, Belaskuena eta Ditxosuena baserrietan batutako mahatsa, berriz, saldu egiten dute, beste upategi batzuek txakolina egiteko.

# Maiatzaren 18tik 20ra egingo da Mundumira, Leintz Gatzagan

M.B. | ARRASATE

Dagoeneko erabakita dago; aurtengo Mundumira jaialdia Leintz Gatzagan egingo da maiatzaren 18an, 19an eta 20an.

Astelehen arratsaldean egindako batzarrean adostu zuten hori antolatzaileek, Debagoieneko Mankomunitateak, Euskal Herria aldizkariak eta Gin Music ekoizle etxeak, Debagoieneko Mankomunitateko ordezkariek azaldu dutenez.

2005. urtean Arrasaten abiatu zenetik, Oñatin, Aretxabaletan, Bergaran, Eskoriatzan, Antzuolan eta Elgetan egin da munduko kulturen jaialdia eta aurten Leintz Gatzagari iritsi da.

**Eskoriatzarekin batera**

Herriaren tamaina dela eta, Mankomunitateko ordezkariek esan dute, jaialdiaren formatua aldatu egingo dutela, herriaren tamainara egokituko dutela, azken baten.

Horrekin batera, hainbat ikuskizun Eskoriatzan egingo direla ere azaldu dute Mankomunitatetik. Baina ze ikuskizun eta non eta nola egingo diren oraindik zehazteko dagoela ere aurreratu dute.

Arduradunek aurreratu dute gaia nork bere aldetik aztertu ostean, otsailean egingo duten hurrengo batzarrera eroango dituztela euren proposamenak.

# Natura turismoaren gaineko jardunaldiak hilaren 26an Oñatin

M.B. | ARRASATE

Natura turismoaren inguruko III. jardunaldiak egingo dira hilaren 26an Arantzazuko Gandiaga Topagunean. Hirugarren jardunaldion asmoa da barneko eta naturako turismoaren inguruko esperientzia arrakastatsuak gerturatzea eta Euskadin esparru publiko eta pribatuan helmuga horien plangintza turistikoan diharduten agente turistikoen iritziak zuzenean jakitea. Jardunaldiok Oñatiko Udaleko Garapen eta Turismo Agentziak antolatu ditu, Aldundiaren eta Jaurlaritzaren laguntzarekin.

Goizean Kataluniako hiru esperientzia arrakastatsu azalduko dira hiru hitzaldiren bitartez: Garrotxa turismo elkarteak *Kolaborazio esperientzia bat turismo iraunkorrarentzat* delako hitzaldia egingo du; bestetik, Itinerànnia ibilbide sarearen gainean egingo dute berba; azkenik, Pireníssim Proiektua ere azalduko dute. Arratsaldean, berriz, parte-hartze tailer bat izango da taldean gogoeta egin eta ikuspegiak trukatzeko.

Jardunaldietan izena emateko azken eguna hilaren 24a da.Informazio gehiagorako deitu 945 21 81 78 zenbakira.

# Ugarteren adierazpenek sua piztu dute Batzar Nagusietan

Foru Aldundiko bozeramaileak adierazi du berak "gizartea informatu" besterik ez duela egin datuekin

A.B. | ARRASATE

Asteroko diputatuen kontseiluaren osteko agerraldian, Donostiako bigarren ingurubidearen finantzaketaren gainean kazetariek egindako galderari Larraitz Ugarte bozeramaileak emandako erantzunak piztu zuen sua martitzenean; "Non daude errepideen aurrekontuetan falta diren 247 milioi euroak?", galdetuz erantzunda. Ugarteren esanetan, Donostiako bigarren ingurabidea egitea hasieran aurreikusitakoa baino 92 milioi euro gehiago kostatu zitzaigun gipuzkoarroi eta, horretaz gain, Eibar-Gasteiz autobideko lanetan, beste 154 milioi euroko desfasea egon dela salatu zuen.

**Kargutik kentzeko eskaera**

EAJk onartezintzat jo ditu Foru Aldundiaren bozeramailearen adierazpenak eta Bildu eta EAJren arteko oztoporik handiena izana leporatu dio. EAJren bozeramale Markel Olanok kargu horretan egoteko ahalmenik ez duela eta kargutik kentzeko eskatu zion Ahaldun Nagusiari. Gaineratu du, esandakoa zuzendu ezean, Ugarteren kontrako ekintza legalak hartuko dituztela.

**Ahaldun Nagusiaren babesa**

Foru Aldundiaren bozeramaleak GOIENAri adierazi dio berak gizartea informatu duela, datuekin, eta hori dela, hain juxtu, bere betebeharra. Egindako adierazpenen atzean ez dagoela intentzio txarrik esan zuen.

Martin Garitanok gaineratu du ez duela ulertzen datu erreal batzuk jakinarazteagatik dimisioa eskatzea.

# Galdeketa telefonikoa egingo du Goienak

Astelehean hasiko da eta eskualdeko biztanleen artean egingo du. Helburua da herritarrek hedabideak kontsumitzeko dituzten ohiturak ezagutzea eta etorkizunean izan ditzaketenez iritzia jasotzea. Galdeketa Aztiker enpresak egingo du telefonoz eta bailarako 800 lagunen iritziak jasoko dira. Zuri egokituz gero, eskertuko genizuke deitzaileari kasu egingo bazenio 10 minutu iraungo duen elkarrizketan.

Galderak hedabideen kontsumoarekin lotutakoak dira; hainbat galdera pertsonal egin ditzakete, baina zure eta etxekoen euskararen ezagutza mailarekin, ikasketa mailarekin eta gaur egungo lan egoerarekin izango dute zerikusia. Hortik aurrerako galdera pertsonalik ez da erantzun beharrik izango. Erantzunen anonimotasuna ziurtatzen dizugu.



AMAIA TXINTXURRETA

## "Lan istripu gehiagorik ez"

Hori eskatu zuten eguaztenean Altuna Hermanos lantegiko langileek enpresa aurrean egindako elkarretaratzean. Lankide zuten 58 urteko Antonio Giraldo oñatiarraren heriotza eragin zuen istripua salatu zuten, halakoak ekiditeko neurriak eskatu zituzten eta familiari elkartasuna adierazi zioten. Astelehenean Oñatiko ezker abertzaleak deitutako beste elkarretaratze bat ere egon zen Herriko Plazan.

## ZABALIK



**RUFINA OLASAGASTI**
http://goiena.net/iritzia/

# Euskalduna izateaz jabetu

Lanean urte batzuk egin ondoren unibertsitate ikasketak egitera Belgikara joateko aukera izan nuen. Euskaldun mordoxka elkartu ginen han eta Unibertsitateko ikasketak egiteaz gain Euskal Herria eta euskara hobeto ezagutu nahi genituen. Han aurkitutako adituen artean Txillardegi zegoen, bera izan zen Euskal Herriko historia eta euskara sistematikoki irakatsi ziguna geure harridura piztuz eta kuriositatea asebetez.

Euskalduna izan bai, baina ordura arte eskolan irakatsitako Espainia eta Europako historia ziren nik ikasiak. Belgikan ikasi nuen Euskal Herriko historia, eta hainbat mendez euskaldunok bildu gintuen Nafarroako erreinuarena. Inguruko erreinuen erasoen ondorioz bere eremua mendebaldetik murrizten nola joan zen (oraingo EAE, Errioxa…). Albako Dukearen agindupean Aragoiko Fernandok (Katolikoa deituak) bidalitako armadak independentea zen Nafarroa Garaiko erreinua inbaditu eta nola menderatu zuen 1512an, Gaztelako erreinuari lotuz. Nafarroako erregea protestantea zenaren aitzakian nola Aita Santuak konkista hori bedeinkatu zuen, bidezkoa zeritzalako errege katoliko horrek Nafarroako lurrak eta jendeak menperatzea gerra bidez. Konkista justifikatzeko nola egin zituzten agiri faltsuak. Nafarroa berreskuratzeko beste saioek nola helburua ez zuten lortu eta zer gertatu zen 1521eko Amaiurko gazteluaren setio eta borrokaldi odoltsuetan.

> **"Nire esker ona dimentsio berri hau zabaldu zidatenei... "**

Hauek eta historiako beste hainbat pasarte ezagutzean nireganatu nuen euskalduna nintzela, beste batzuk espainolak edo frantsesak ziren bezalaxe. Euskal Herriaren historia ezagutzeak neure burua kokatzeko testuingurua eman zidan, bigarren mailako espainola ez nintzela konturatuz eta euskaldun izatearen harrotasunaz jabetuz. Geure historia eta hizkuntza ezagutzen ez dituenak ez daki zer galtzen duen!

Nire esker ona dimentsio berri hau zabaldu zidatenei, taldeko antolatzaileei eta joan berria zaigun Txillardegi irakasleari.

## USTEAK USTE

**ARANTZAZU EZKIBEL** | aezkibel@goiena.com

# Ostutako haurren harira

Azken egunotan, ostutako haurren harira agertu dian barrixak benetan gogorrak izan dia. Sasoi baten, emakumiek, eta familixek orokorrian, euren bizitzaren gainean ze kontrol gutxi eukain agerixan geratu da. Mediku batzuk, edo beste "haundikin" batzuk hartzen zittuzten erabakixak. Eta nortzuk zian ba eurak ume horreik euren familixetan gaizki egongo ziala uste, eta beste familixa batzuei emuteko? Donostian eta Itsasondon hutsik bilatutako hobixek delitua egon dala erakutsi daue; hortaz, horren arduradunak epaittu biharko dittuzte. Izan be, Donostiako kasuko familiarteko batek esan dauen moduan, hori egin daueinak kalian dabitz, lasai.

## MARRAZKIZ

**ALEX UGALDE** | http://goiena.net/iritzia/




## HANDIK ETA HEMENDIK

# Gorputz eta anima

**Juan Martin Elexpuru**
argia.com/albistea/gorputz-eta-anima

Gutariko askorentzat Txillardegi benetako zuzendari espirituala izan zen gure gazte denboran, *Branka, Huntaz eta Hartaz, Leturia* edo *Elsa Schellen* irentsi egin baikenituen irakurri baino gehiago.

1978tik aurrera, sarri gonbidatu genuen Bergarako UNEDera. Soziolinguistika, Fonetika edo Azentua bezalako gaiak jorratzen zituen sasoi hartan. Beste gai guztiak bezala, sakon, gorputz eta anima.

Teoria eta praktika uztartu zalea zen, eta Euskal Herrian Euskaraz taldearen sorreran ikusi genuen laster. Ordurako euskal letretako izen nagusietarikoa izan arren, militante xume baten gisa ezagutu genuen herriz herri egiten ziren bilera eta ekintzetan.

Gerora, Aralar sortu eta alderdian sartzera gonbidatu genuenean, berehala eman zuen pausoa, nahiz eta militantzia berria batere erosoa ez gertatu bere eguneroko bizitzan. Garbi zuen borroka armatuak mesede baino kalte gehiago egiten zuela dagoeneko, eta zerbait egin behar zela. Kide bat gehiago zen bileretan, eta zerrendetarako izena emateko ere ez zuen eragozpenik izaten. Maite zuen politika; sarri geratzen ginen pil-pilean zeuden gaiez mintzatzera. 2007an utzi zuen alderdia. Ez zitzaion batere gustatu hauteskundeetan Ezker Batuarekin elkartu izana.

Garai bateko eztabaiden zauriak haragi bizian zituen oraindik, eta "felipeak beti felipe" izaten jarraituko zuten.

Makal ibili da azkenaldian. Zer zeukan galdetuta, *zahartrosis* erantzun ohi zuen umorez.

Kartoizko txartel txukunetan idazten zituen gutunak. Nik jasotako azkenek 2009ko abenduaren bukaerako data dute. Oso interesatuta zegoen Iruña-Veleiako auziaz.

Nire liburua eta beste hiru euskal filologoren txostenak irakurrita zeuzkan, eta zera idazten zidan, beste gauza askoren artean: "Hori guztia ikusita, zalantzarik ez diat: 'grafito' horiek benetakoak dituk. Eta hor somatzen den euskara euskalki arkaiko bat duk".

Goitik beherainoko intelektuala izan da Txillardegi.

Integrala, jakintza-arlo ugari jorratu dituena, politikan eta beste ezertan bustitzeko beldurrik izan ez duena. Kontzientziak agintzen ziona egiten zuena. Beroa. Heterodoxoa, baina ez nabarmenguraz. Apala, goxoa, entzuten zekiena, lagun ona. Maitagarria.

Nik uste Euskaltzaindiko atea itxi zioten euskaltzainek ez zutela benetako Jose Luis ezagutzen.

# Ardi larruz jantzitako otsoa

**Juanma Sarasola**
berria.info/blogak/juanma/

Urrezko Ardi Larrua izeneko domina eman dio Espainiako erregeak Nicolas Sarkozyri. Hitz jokoa erraz ahalbidetzen du: ardi larruz jantzitako otsoa. Euskal Herria, Espainia, eta Frantzia sartuta dauden gatazka politikoan bere erantzukizunari muzin egiten dion Parisko agintariari halako ohoreak nork emango ba, haren kasa jokatzen duen erakundea ez bada?

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa, 20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola
**Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Monika Belastegi
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo.
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Itsaso Berezibar, Imanol Elortza.
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA**
**ARRASATE 20500**:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com

**ORDEZKARITZA**
**ARETXABALETA 20550**: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
**Harpidetza** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 20.100 ale.
**Difusioa:** 19.951 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

## GUTUNAK

### Eskerrik asko zuen laguntzagatik

**Jose Lazkano**
(Bergarako Etxerat-en izenean)
Bergara

Euskal presoen izenean Gabonetan egiten dugun laguntza kanpainan gurekin bat egin duzuen guztioi, eskerrik asko.

Asko izan zarete, urtero bezala, zuen elkartasuna bideratu duzuenok, dela ekitaldietan parte hartuz, dela ekarpen ekonomikoak eginez.

Hortaz, Bergarako herritarrei, dendariei eta beste guztiei, gure eta haien partetik, eskerrik asko.

### Txillardegiri

**Itxaro Artola**
Arrasate

Hamabost-hamasei urte izango genituen orduan, ez gehiago, BUP egiten ari ginen-eta Almenen.

Euskal nobelagintza berria ari ginen ikasten, badakizue: Ehun metro, Haur besoetakoa, Leturiaren egunkari ezkutua... eta Mari Karmen Abasolo euskara irakasleak gaiari buruzko talde-lan bat egiteko eskatu zigun.

Gure taldekook, Leturiaren maitemin etsiaz maiteminduta nonbait, Txillardegiren eleberria aukeratu genuen eta ez zitzaigun erokeria handiagorik bururatu telefonoa hartu eta egileari elkarrizketa bat eskatzea baino.

Eta berak onartu!

Horrela joango ginen bada, zortzi bat neskatila kapitalera, Leturiaren "aitarekin" egoteko.

Ez daukat gogoan, zoritxarrez, zertaz aritu ginen berriketan, baina bai, ondo gordeta gainera, arratsalde hartako irudi bitxia: Txillardegi Amara Berriko kafetegi bateko mahai batean eserita miresmenez entzuten zioten neskatilez inguratuta.

Hogeita bost bat urte joan dira harrezkero, eta askotan pentsatu izan dut egun hura mugarri moduko bat izan zela euskal literaturarekin daukadan lotura sentimentalean; esan barik doa, aparteko nota ere jarri zigula irakasleak talde-lan hartan.

Zor dizugun/dizudan guztiagatik, bada, mila esker Txillar, sekula ez zaitugu bakarrik utziko Zerubiden.

### Gutxiespena eta iraina ote?

**Rafa Stxez Muxika**
Bergara

Biktima guztiak ez dira berdinak, ez.

Euskal hiritarrok, edo behintzat independentistok, jakin badakigu kode eta epaile espainiarrek beste kalibre eta irizpide bat erabiltzen dutela euskal-nafar disidenteekin.

Badakigu "Zuzenbide Estatu" delako hori nazionalismo espainiarraren neurrira egituratutakoa dela eta, beraz, Espainiaren batasuna, ezaugarri nazional espainiarrak, eta gutxi batzuen interes ekonomikoen defentsan hainbat eta hainbat astakeria irenstea tokatzen zaigula.

Badakigu biktima batzuek merezi duten errespetua beste batzuek oraingoz ezin dutela espero.

Baina Fragaren heriotzaren ondorengo gorazarre eta laudorioak ez zaio inori Espainia osoan Frankismo eta post-Frankismoko "biktimei gutxiespen eta irainak" direla bururatu?

### Alde zaharreko txizalekua

**Maria Jose Atxa**
Arrasate

Gutuntxo honen bidez, Arbolapetako garajeko atean txiza egiten jarraitzera gonbidatu nahi ditut arrasatearrak eta kanpotarrak –Olarte kaleko garajea, hain justu ere–, gazte eta ez horren gazteak, noski.

Bai, horixe, jarrai dezatela, orain arte bezala, garaje horretako ateak komun publiko moduan erabiltzen, bertako bizilagunendako gozamen hutsa da-eta ikustea garaje horrek zelako zerbitzua egiten duen. Bene-benetan, halaxe da.

Bada, Arrasateko Udalari egin izan dizkiogu hainbat proposamen arazoa konpontzeko-edo: besteak beste, hesi txukun batekin kanpoko aldetik ixteko garajea; izan ere, normala den moduan, Arrasateko alde zaharra izanda, itxura zaindu egin beharra dago. Hori uste dut nik, behintzat.

Edozelan ere, antza, arazo horrek ez du soluziorik, edo bai: hain zuzen ere, usain goxo-goxo hori jasaten jarraitu, eta aldiro-aldiro garaje horretako ateko katea aldatu, jakina, txizak erre egiten du-eta guztia.

Kontu honen harira, esan beharra dago Europako hainbat lekutan, hainbat herrialdetan, komun publikoetan pertsona bat egoten dela: komunak garbitzeaz arduratzen da pertsona hori, propina baten truke.

Bada, aukera hori ere badaukagu bertako bizilagunok.

**Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne) edo 50 lerro. GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko.**
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | papera@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

GORAKADA

GOIENA.NET
Goiena.net %50 hazi da 2011n.*

GOIENA PAPEREKO EDIZIOA
33.000 irakurle astero Gipuzkoan.**

GOIENA TELEBISTA
10.000 ikus-entzule egunero Gipuzkoan.**

ESKERRIK ASKO!

* GOOGLE ANALYTICS-ETIK ATERATAKO DATUAK. ** CIES-EK EGINDAKO NEURKETAN.

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena“

**Markel Olano** | EAJren bozeramailea Gipuzkoako Batzar Nagusietan

# "Gipuzkoaren gehiengoak ez du atez atekoaren alde egiten eta zaila da errauskailua saihestea"

▸ Azken ika-mikatan murgildu dira oraingo astean Bildu eta oposizioko alderdi nagusia

▸ "Larraitz Ugarte da gaur egun EAJren eta Bilduren harremanetan oztopo nagusia"

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Markel Olano itxaropentsu eta pozik dago alderdia indartuta atera delako azken batzar orokorretik. Baina haserre, Gipuzkoan Bilduk eurekiko darabilen jarrerarekin. Azken ika-mika, oraingo astean bertan, Ugarte Diputazioko bozeramailearekin. Kargugabetzea eskatu diote Garitanori.

**Ez zaudete gustura Larraitz Ugarte Gipuzkoako Foru Aldundiaren bozeramailearekin...**

Larraitz Ugarte da EAJren eta Bilduren arteko oztoporik nagusia. Harremanak gaiztotu egiten ditu eta behartzen gaitu erantzun gogorrak ematera. Behin eta berriro egiten ditu adierazpen arduragabeak. Ez du kategoriarik, ahalmenik, daukan postuan egoteko.

**247 milioi euroko desfasea leporatu dio aurreko agintaldiko Bidegiri, Eibar-Gasteiz autobidearen eta Donostiako bigarren ingurabidearen lanetan.**

Desbideraketak egon dira, baina ez kontzeptu berei dagokienez. Bestalde, Bidegik administrazio kontseilu bat dauka eta han zeuden ordezkatuta, aurreko agintaldian, Batzar Nagusietan ordezkaritza zuten alderdiak, baita gaur egun Bildun dauden bi alderditako ordezkariak ere, EAkoak eta Alternatibakoak. Eta hauek ere onartu zituzten kontuak, gardentasun guztiarekin. Gure kudeaketa eta Gipuzkoako alderdi politiko guztiena zalantzan jarri du adierazpen horiekin Larraitz Ugartek.

**Gipuzkoak ordezkari bat galdu du EBBn eta Egibarren ildokoek eragin ahalmena galdu duzue zuzendaritzako organoetan.**

Bai, baina halako kontsiderazioak egitea da iraganera begiratzea. Baina bai, egia da, esaterako, Xabier Barandiaranek Gipuzkoan boto gehien atera zituela, baina, gero, ez dela aukeratua izan exekutiba nazionalerako. Alderdikideek egin dute aukeraketa bide demokratikoak erabilita.

**Sendotu egin da Urkulluren lidergoa?**

Bai, eta ona da gure alderdiaren liderra sendoa izatea. Egitura eta lider indartsu bat eta printzipio garbiak edukitzeak ematen digu arnasa, datozen urteak gogorrak izango direlako. Batasun itxura eman dugu. Gure alderdian ikuspegi ezberdinak daude, ukaezina da hori, baina modu leialean kudeatzen jakin behar da ezberdintasun hori, eta lortu dugula uste dut.

**Sei hilabete eman ditu Bilduk Gipuzkoako Foru gobernuan. Ze balorazio egiten duzu?**

Uste genuena baino lan okerragoa egin dute. Eta ez geneukan esperantza handirik. Erakundeen kudeaketan esperientzia gutxi duen jendea da, eta igarri egin da hori. Baina, bestalde, okerrena erakutsi duten harrokeria handia eta, bereziki, kontuan izanda ez dutela erabateko gehiengorik. Kudeaketaren aldetik, zabarra eta abileziarik gabekoa izan da, motela. Eta, tartean, gainera, irainak daudenean, bada, sei hilabete hauek beltzak izan dira.

**Zelako oposizioa egin duzue?**

Saiatu gara egiten oposizio leiala; ez bakarrik hitzetan, baizik eta baita ekintzetan ere. Esaterako, aurrekontuen prozesuan erraza izango litzateke guretako aurrekontuak atzera botatzea. Eta kalte handia egingo genioke Bilduri. Baina ez dugu hala jokatu. Ez dugu politika horrela ikusten, ze ondorioa, koiuntura latz honetan, larria izango bailitzateke herritar guztiendako. Horregatik eskatu genion Bilduri esertzeko. Egin genituen bizpahiru eskari eta aintzat hartu zituzten. Hori egin genuen, seguruen, Bilduk gehien behar zuen momentuan, ze esperientziagatik baitakit lehen aurrekontuek markatzen dutela agintaldi osoa. Erantzuna, ostera, oso gaiztoa izan da. Orain, abisua pasatu diet gure kideei: lehen erasoa, akaso, euren errua izango da, baina bigarrena geurea da, utzi egin diegulako hori egiten.

**Zaborren kudeaketaren gainean eztabaidatzeko sei hilabete hartuko dituzte. Non hartuko da erabakia?**

Batzar nagusietan, aurreko agintaldian, hartu zen erabaki bat gehienen adostasunarekin eta ondo planifikatuta utzi genuen zaborren kudeaketa: azpiegiturak, eredua… Hori guztia planifikatzea dagokie Batzar Nagusiei. Baina, bestalde, zaborren kudeaketarako eskumena dute udalek, mankomunitateek eta horretarako sortutako partzuergoak. Batez ere zaborren bilketarako. Baina, orain, ikusten dugu ezker abertzaleak daukala gaiaren gaineko beste ikuspegi bat, eta Batzar Nagusien gehiengoak, ostera, aurreko agintaldiko eskema nahiago duela: bost edukiontzi ahal den guztia birziklatzeko eta konpostatzeko, eta geratzen den soberakina erretzeko Zubietako errauste planta. Ezker abertzalek oraindik ezagutzen ez dugun beste eskema baten alde egiten du.



Markel Olano, Goienan, martitzenean. | ENEKO AZKARATE

**"Zabarra eta abileziarik gabekoa izan da Bilduren kudeaketa"**

**"Bilduk ezin izango du atez atekoa lurraldeko herri guztietara hedatu"**

**"Sozialistak eta Bildu ez daude Kutxabanken administrazio kontseiluan haiek ez dutelako nahi izan"**

**Irtenbidea?**

Planteatzen dugu sei hilabeteko epea hartzea Batzar Nagusietan gaiari irtenbidea emateko. Izan ere, ezker abertzaleak izan dezake nahi bat, atez atekoaren aldekoa, baina hori ezingo du herri guztietan ezarri eta, gainera, Gipuzkoako populazioaren %60 bizi den herri edo hirietan, ez dute atez atekoaren alde egingo, Bilduk ez daukalako erabateko gehiengoa. Gauza bat da desioa eta beste bat errealitatea. Adostasun batera heldu nahi dugu eta hori da proposatu duguna. Baina badirudi enfrentamendurako eskema duela ezker abertzaleak.

**Azken erabakia zeini dagokio?**

Batzar Nagusiei. Eta partzuergoari, mankomunitateari, udalei, Foru Aldundiari dagokie erabaki hori aintzat hartzea.

**Erabakia ez da izango lurralde osoan atez atekoa ezartzekoa eta Zubietako erraustegia bertan uztekoa.**

Ezker abertzalekoek diote konbentzitu egingo gaituztela euren planteamenduaz eta guk diogu geuk konbentzituko ditugula geureaz. Baina hau ez da kaskagogorren lehia. Bakoitzak badauka bere eredua, argia da, eta denok ezagutzen dugu. Guk ez dugu atez atekoan sinesten. Hortaz, aukera daukagun guztietan, gurekin bat datozen beste alderdiekin batera, atez atekoen planteamenduak atzera botako ditugu. Hori argi izan behar du ezker abertzaleak. Gipuzkoaren gehiengoak ez badu atez atekoaren alde egiten, zaila da errauskailua saihestea. Ezin dezakegu utzi eraiki gabe errauste planta eta, bestalde, atez atekoa ez ezarri. Ze, bestela, egoera jasanezin batera hel baikaitezke, non ez dugun jakingo zer egin birziklatu edo konpostatzen ez den zaborrarekin.

**Zubietako errauste planta egingo dela uste duzu?**

Sei hilabete ditugu zentzuzko adostasun batera heltzeko. Nik ez dut esango, orain, zein izango den azken erabakia. Oinarriak planteatu baino ez dut egin. Edozelan ere, ez dut ikusten errauste plantarik bareko alternatibarik; ez dago. Ez dago, hain justu ere, Bilduk ezingo duelako hedatu bere planteamendua herri guztietara.

**Sozialistek eta Bildukoek zerga politika aldatzeko lortutako akordioaren gainean ze iritzi daukazu?**

Finantza ikuspegitik ez da aldaketa eraginkorrik izango. Ez da diru gehiago batuko Bilduk eta sozialistek adostutako zerga politika berriarekin. Gehiago izan da ezkerreko pose bat. Bai lortuko du desarmonizazioa beste lurraldeekin eta, ondorioz, gipuzkoarrok gehiago ordaintzea beste lurraldeetakoek baino, zerbitzu berberak jasotzearren.

**Kutxabanken administrazio kontseilua dela-eta oso kritiko agertu dira sozialistak eta Bildu.**

Hemen eskatzen zitzaion EAJri uko egin zezala Kutxabanken administrazio kontseiluan, berez eta legez tokatzen zitzaion erabateko gehiengoari. Eta Martin Garitanori ere berdin eskatu nion: ea Batzar Nagusietako gehiengoak kudeatuko lituzkeen eta gehiengoa edukiko lukeen, Diputazioaren sozietate publikoetan. Ea hori baimenduko lukeen. Sozialistak eta Bildu ez daude Kutxabanken administrazio kontseiluan haiek ez dutelako nahi izan.

# zatoz ikastolara!

## matrikula epea zabalik

urtarrilaren 30etik otsailaren 10era



### HAUR HEZKUNTZA 0-6 URTE

**BILERA INFORMATIBOAK**

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| BASABEAZPI | urtarrilak | **26** | 18:00 | ARETXABALETA |
| URIBARRI (0-3 UDAL ZERBITZUA) | urtarrilak | **31** | 18:00 | ARRASATE |
| UMEZAINTZA (0-3 UDAL ZERBITZUA) | otsailak | **1** | 18:00 | ARRASATE |

**ATE IREKIAK**

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| OLARTE | urtarrilak | **24** | 17:00-18:30 | ARRASATE |
| SANTA TERESA | urtarrilak | **24** | 17:00-18:30 | ARRASATE |
| BASABEAZPI | urtarrilak | **24** | 18:00-20:00 | ARETXABALETA |
| ARIMAZUBI | urtarrilak | **30** | 17:00-18:30 | ARRASATE |
| JOSE ARANA (0-3 UDAL ZERBITZUA) | urtarrilak | **31** | 18:00-19:30 | ESKORIATZA |

### LEHEN HEZKUNTZA 6-12 URTE

**BILERA INFORMATIBOAK**

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| GAZTELUONDO | urtarrilak | **25** | 18:00 Bilera informatiboa / 19:00 Gunearen bisita | ARRASATE |
| ARIMAZUBI | urtarrilak | **30** | 18:00 Bilera informatiboa / 19:00 Gunearen bisita | ARRASATE |
| SANTA TERESA | otsailak | **1** | 18:00 Bilera informatiboa / 19:00 Gunearen bisita | ARRASATE |

**ATE IREKIAK**

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ALMEN | otsailak | **4** | 16:30-18:30 | ESKORIATZA |

### DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA 12-16 URTE

**BILERA INFORMATIBOAK**

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| SANTA TERESA | urtarrilak | **25** | 18:00 | ARRASATE |
| GAZTELUPE | urtarrilak | **31** | 18:00 | ARRASATE |
| GAZTELERAZ | otsailak | **1** | 18:00 | ARRASATE |
| ALMEN | otsailak | **2** | 18:00 | ESKORIATZA |

MONDRAGON Finantzak Industria Banaketa Ezagutza
GIZATASUNA LANEAN

ikastolenelkartea

informa zaitez

**943 77 20 25**
**www.arizmendi.eu**

**Arizmendi ikastola**

## DUELA 10 URTE

2002-01-25

### Argia saria 'Goienkaria'-ri

*Goienkaria*-k 2002ko Argia saria irabazi zuen prentsa idatziaren sailean. Aldizkari berritzailea zela azpimarratu zuten: "Eskualde bateko herri aldizkariak egunkari formatuan biltzen dituen proiektu berritzailea da", esan zuen epaimahaiak. Diseinuari eta edukiari dagokionez *Goienkaria* bailara osoarendako "integrazio pauso handia" izan zela azaldu zuten. *Arrasate Press* eta ATB ere saritu zituzten beste urte batzuetan.



*Goienkaria*-ren hainbat zenbaki. | GOIENA

2002-01-25

### Ecenarro kooperatiba, MCCn

Bergarako Ecenarro kooperatiba MCCn sartu zen. Ecenarro enpresan burdina eta altzairua lantzen zituzten. 2001eko ekitaldian, 1.500 milioi pezeta fakturatu zituen, %65 barne merkatutik eta %35 esportaziotik. Frantziara eta Alemaniara esportatzen zuen, batez ere. Ecenarro enpresa 1943an eratu zen eta 1982a ezkero izan da kooperatiba. Orduko bezerorik garrantzitsuenak Renault, Peugeot eta Volkswagen-Seat ziren.

## DUELA 5 URTE

2007-01-20

### Arrikrutz kobak, Fiturren

Debagoienak Oñatiko Arrikrutz kobak erakutsi zituen Fitur azokan. Urte hartako urtarrilaren 31n zabaldu zituzten Estatuko turismo erakusketa handienetakoaren ateak, eta, ibarrekoaz gain, Euskadiko produktu nagusienetakoa izan ziren Arrikrutzeko kobak. Debagoiena bederatzigarren aldiz izan zen han.

## HERRITARRAK

OÑATI

**Ana Mari Liziaga** Ikusi Makusi antzerki taldeko kidea da eta hainbat *casting* ere egin ditu. Horrez gain, informatika eta pinturako ikastaroetara ere joaten da; ez da etxean gelditzekoa. | AMAIA TXINTXURRETA

# "Antzerkiak lan handia ematen didan arren, gustura ibiltzen naiz saltsan"

Ana Mari Liziaga oñatiarra saltsa ugaritako perrexila da. San Juan kalean jaio zen eta gaur egun Roke Azkunen bizi da. Hala ere, ez da etxean geldirik egoten den horietakoa; agenda bete-betea dauka Liziagak. Ikusi Makusi antzerki taldeko kidea da; izan ere, txikitatik gustatu izan zaio antzeztea, eta orain, gustura ibiltzen da bertako lagun koadrilarekin hara eta hona giro ederrean. Hainbat *casting*-etan parte hartu du eta film labur baten aktore lanak ere egin zituen. Horrez gain, informatikako eta pinturako ikastaroak ere jasotzen ditu; beraz, teknologia berriak eta antzinatik egiten den pintura ere uztartzen ditu. Hori guztia gutxi balitz, lagunekin elkartu eta kafetxo bat hartuaz berriketan egiteko denbora ere hartzen du Liziagak. Arratsaldeko kafetxoaren aurretik egin dugu harekin hitzordua Oñatiko kultura etxean.



Liziaga, Oñatiko kultura etxeko aretoan, egutegi batean atararako bere argazkia eskuetan duela. | A.T.

**Ikusi Makusi antzerki taldeko kidea zara. Hasieratik zaude bertan?**

Bai; taldea 2005ean sortu genuen zazpi emakumek, eta sorreratik nago bertan. Gaur egun hamaika lagunek osatzen dugu taldea. Txikitatik daukat antzerkirako zaletasuna; eskolako garaitik eta orain pozik ibiltzen naiz taula gainean beste pertsonaia batzuei bizia emanez.

**Antzerkian, zerk erakartzen zaitu horrenbeste?**

Taldean oso ondo konpontzen gara, eta, niretako denbora-pasa izan arren, lan handia egin behar izaten dugu. Daukagun adinerako entsegu ugari egiten ditugu, gainera. Baina oso gustura nabil, baita nire lagunak ere. Beraz, ahal den bitartean, behintzat, hortxe segituko dut. Oñatin egingo dugun hurrengo emanaldia martxoaren 3an izango da eta lan hau eskainiko dugu: *Con vecinos como estos, libranos señor*.

> **"Facebooken kontua daukat, informatika ikastaroan egina"**

> **"Arantzazun, mojei sukaldean laguntzen ere ibili nintzen zazpi urtean"**

***Casting*-en batzuk ere egin dituzu, ezta? Konta iezaguzu.**

Bai; hiru lagun egon ginen *casting* batean Donostian, baina euskara batuan antzeztea guretako nahiko zaila da. Bestelako proba batzuk ere gin ditut, eta beste esperientzia bat izan zen da.

**Film labur baten aktore moduan ere parte hartu zenuen, ezta?**

Oñatin joan zen urtean egin zen film laburren rallyan egin nituen aktore lanak parte hartu zuten taldekide batzuekin. Gazteek deitu zidaten parte hartzeko eskatuaz, eta, ni horrelako saltsetarako gertu egoten naizenez, animatu egin nintzen. Hirugarren saria lortu genuen, gainera.

**Antzerkiaz aparte, informatika apur bat ere ikasi duzu.**

Bai, hori ere gustatzen zait. Pake Lekutik, gainera, ikastaroak jartzen dituzte eta niretako bezain beste ikasi dut. Ez dakit askorik, baina moldatzen naiz. Amerikétako lehengusina batekin Messenger bitartez hitz egiten dut, Facebook sare sozialean ere ibiltzen naiz, albisteak irakurtzeko ere erabiltzen dut Internet, eta antzerkiko dokumentuak gordetzeko ordenagailua erabiltzen ere ikasi dut.

**Pintura ere bada zure zaletasunetako bat.**

Bai, hala da. Lehen, olio erara margotzen nuen, eta orain, pintura artistikoa egiten dut denbora-pasa moduan. Etxean egon beharrean, astean ordu pare batean ikastaro horietara joaten naiz. Horrela, jende berria ere ezagutzen dut.

**Pinturaz gain, eskulanetan ere fina zara.**

Gortinak egin izan ditut, besteak beste, eta egin dudan azken eskulana zapatila batzuk izan dira.

**Arantzazu aldean mojekin ere lanean ibilitakoa zara, Ana Mari.**

Arantzazun lau mojarekin sukaldari laguntzaile ibili nintzen garai batean, bai. Zazpi urte egin nituen tarteka eurei sukaldean laguntzen, eta, beraz, hori ere egin dut bizitzan.

**Ez zara, beraz, etxean egoten den horietakoa. Saltsa guztietan zaude!**

Denbora-pasa moduan erabiltzen ditut zaletasunak; entretenitzeko balio dit eta gustura ibiltzen naiz. Etxean egon beharrean, pozik ibiltzen naiz hara eta hona. Baina gauza horiek ez daukat obligazio moduan, aisialdia da. Bestalde, lagunekin egotea ere asko gustatzen zait, kafetxo bat hartu, gure kontuei buruz hitz egin... Eta antzerki taldekoak ere elkartzen gara noizbehinka gure bazkariak eta afariak egiteko. Ahal dudan bitartean, behintzat, horrelaxe segitzeko esperantza daukat.

## NIRE HERRIAN

**:) SAN JUAN KALEA, JAIO ZEN TOKIA**

San Juan kalean jaiotakoa da Ana Mari Liziaga, eta maitasun berezia dio kale horri: "Txikitako oso oroitzapen politak ditut eta beti gustatu izan zait". Orain, Roke Azkunen bizi da, eta hori ere gogoko du. Miresten duen beste toki bat Arantzazu da; ordu asko igaro ditu, gainera, Arantzazun, hango mojekin.

**:( AUTOBUS ZERBITZUA**

Oñatin autobus zerbitzu eskasa dagoela esan du Ana Mari Liziagak: "Gasteizera joateko, lehenengo Arrasatera joan beharra dago. Donostiara joateko ere autobusez aldatu beharra dago, eta hori ez zait batere gustatzen. Hiriburuetara zuzenean ezin daiteke joan Oñatitik". Bada, hori ez zaio batere gustatzen.

# HERRIAK

ARRASATE

# Baserriko produktuen urteko lehen azoka bihar

- Iazko balorazioa apartekoa ez izan arren, segitzea erabaki dute
- Promozioan eta sentsibilizazioan lan egingo du Udalak, indartzeko


Salerosketan, aurreko edizio bateko azokan. | JOSETXO ARANTZABAL

JULEN IRIONDO | ARRASATE

Laugarren urtea izango du bihar abiatuko duena Udalak antolatzen duen baserriko produktuen azokak. Hilero, hileko hirugarren zapatuan egingo dute orain arte bezala, baina izango ditu nobedadeak, aurreko azoka-egutegiaren amaieran baserritarrekin balorazio bilera egin eta handik ateratako ondorioek eragindakoak.

Baserritarrekin abenduan egindako bilera hartan azokaren gainean egindako balorazioa ez zen erabat baikorra izan, nahiz eta ekimenarekin aurrera segitzea erabaki: "Balorazioa izan zen 2011 urtea diskretua izan dela, emaitzak ez direla apartekoak izan", dio Marga Garmendiak, Udaleko Enplegu eta Garapen Ekonomiko teknikariak.

Dena dela, ateratako ondorioen artean baikorragoak ere izan ziren; honela, antolatzaile eta baserritarrek ikusi dute badagoela bezero talde bat behin eta berriz agertzen dena hilean behingo zapatuetako hitzordura, eguazten eta egubakoitzetako ohiko merkatura joan ezin duena agian, lanorduetan izateagatik, adibidez.

"Azoka hauen helburuetako bat hori da: aukera ematea herritarrei baserriko produktuak ekoizleari zuzenean erosteko", dio Marga Garmendiak, gehituz bide honi ekin ziotenetik jakin bazekitela ez zela izango lan erraza eta berehalakoan egiteko modukoa jendearen erosteko ohiturak moldatu ahal izatea: "Bagenekien hau iraupen luzeko lasterketa zela, ezin zirela espero gorakada nabarmenak".

Horrela, ekimenarekin jarraitzea erabaki bai, baina orain arteko emaitzekin konformatu beharrean, horiek hobetzeko ahalegina egingo du Udalak. Promozioan eta sentsibilizazioan egingo dute lan berezia; baserriko produktuak kontsumitzearen garrantziaz ohartarazi nahi dituzte herritarrak Garmendiaren arabera, baserriko ekoizpen sistema tradizionalak berarekin dakartzan onurak gizarteratuz, zeintzuen artean dauden: "Elikadura subiranotasuna, sasoiko produktuak izatea, ekoizlearekiko zuzeneko salerosketa, bidezko ekonomia, tamaina txikiko esplotazioak mantentzea, paisaiaren mantenua, ondare kulturalaren babesa, artisau erako lanaren kalitatea...". Baserriko produktuak erosten ditugun bakoitzean horien guztien aldeko "pausotxoa" egiten dugula dio Udaleko teknikariak.

Izan ere, kanpotik ekarritako eta era industrialean ekoiztutako produktu batek eta bertako baserri batetik irtendakoak izena bera izan dezakete bai, "baina produktua eta horren baitan dauden osagarri asko ez dira berdinak", teknikariaren arabera, bataren eta bestearen ekoizpenean erabilitako sustantzia kimikoak adibide jarriaz: komeni da "ulertzea zergatik duen prezio bat batek eta bestelakoa besteak". Sentsibilizazio kanpainak egingo dituzte aurrerago hauek guztiak zabaltzeko.

**Azokan bertan ere nobedadeak**

Hori gizarteratzeari dagokionez; azoka berari dagokionez ere, baina, badira baita nobedadeak: "Jarraituko dugu bertako produktoreei lehentasuna ematen, baina ahalegina egin behar dugu bailarako baserritarrei ere aukera ematen bertara ekar ditzaten euren produktuak, batez ere kontuan izanda badirela ekoizle batzuk inguruko herrietan ekoizten dituztenak Arrasaten gutxiagok ekoizten diren produktuak: eztia, sagardoa, fruta...". Udala ari da harremanetan hainbat produktorerekin, "bezeroei begira eskaintza zabalago eta osatuago bat eman ahal izateko".

Horrez gain, "kontsumo arrunteko beste produktu batzuk ere" azokan nahi dituztela dio Marga Garmendiak: ardoa, olioa... "baina era ekologikoan ekoiztuak".

Orain arte bezala, bestalde, baserriko produktu sorta zozketatzen jarraituko dute eta Jesus Romero sukaldaria ere izango da azokan –ez guztietan–, orain arte erantzun polita izan duen pintxo dastaketarekin jarraitzeko: "Eta pentsatzen ari gara beste elementu batzuk sartzea, talogileak adibidez", aurreratu digu Marga Garmendiak.

**ESANAK**

**"Bagenekien hau iraupen luzeko lasterketa izango zela"**

**"Badago bezero talde bat behin eta berriz etortzen dena azokara"**

MARGA GARMENDIA
UDALEKO ENPLEGU ETA GARAPEN EKONOMIKO TEKNIKARIA

**DATUA**

**10**

ZAPATUTAN

**Urteko bi hilabetetan baino ez du hutsik egingo azokak: abuztuan eta abenduan.**

**09:00-14:00**
**Seber Altuben**

Biharko urteko lehenengo azokan hamar-bat postu izango dira. Bertako baserrietako ekoizleez gain, Bergarako Comercial Bruneten baserrirako tresnak egongo dira salgai, eta baita Zaldibarko Belar mintegiaren eta Bergarako Zubikoaren arbola landareak ere.

Gernikako Kintana erremintak eta Arrasateko Felix Barcinaren egurrezko tresnak ere izango dira. Jesus Romero ere Seber Altuben izango da, pintxoekin.

**MARIA ARANA** | IKUTIXO BASERRIKOA

## "Jendeak ez du apreziatzen zenbat kostatzen den baserriko ekoizpena"


Maria Arana. | J.A.

Maria Arana da baserriko produktuen azokan postua jartzen duenetariko bat.

**Zer moduz funtzionatzen du zapatuetako azokak?**

Martxan jarri zenean jendea polito etortzen zen, baina orain asko jaitsita dago. Generoa etxera bueltan eraman behar dugu behin baino gehiagotan.

**Eta zuentzako esfortzua izango da hara joan beharra...**

Bai. Txarrena izaten da egubakoitzean plazan egoten garela goiz osoan saltzen, eta arratsaldean berehala iluntzen du eta denbora laburra dago zapatuko generoa prestatzeko. Jendeak ez du apreziatzen zenbat kostatzen den baserriko ekoizpena.

**Eta plazan, zer moduz?**

Eguaztena galduta dago erabat, inor ez da etortzen, gutxi. Egubakoitzean jende gehiexeago etortzen da eta hobexeago saltzen da.

# 2012ko aurrekontua: gizarte ekimena lehentasun, oposizioaren babes barik

## Udalbatzaren asmo nagusiak eta EAJren eta PSE-EEren iritziak jaso ditugu

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

2011ko abenduaren 26ko ezohiko osoko bilkuran, 2012rako aurrekontua Bilduk eta Aralarrek bakarrik babestu zuten. PSE-EEk eta EAJk kontra bozkatu zuten eta PPko Itziar Lamarain ez zen egon. Aurrekontu orokor finkatua 34.884.546 euro izango da. Udalarena berarena 31.162.825 euro izango da hain justu, iazkoa baino %4,92 handiagoa –2011n 29.700.120 euro izan zen–. Gastuei dagokienez, Zerbitzuetan (%40,06), Pertsonal Sailean (%9,47) eta Ongizate Sailean (%7,39) izango dira gastu handienak.

**"Herriaren neurrira eginda"**

Izan ere, ongizatea bermatzeak izango du lehentasuna: "Apustu irmoa egingo dugu oinarri sozialeko programak, ekimenak, laguntzak eta lanak mantentzearen alde", dio Iratxe Zeziagak, Ogasun zinegotziak. Eta honakoa gaineratu du: "Pertsonengan eta herriaren neurrira egindako proiektu txikiak egingo ditugu".

Proiektu edo inbertsio horietako batzuk aipatuko ditugu jarraian. Adibidez, Udalak 300.000 euro bideratzea aurreikusten du artxiboa Markuletera pasatzeko: "Udal Artxiboari behin betiko kokalekua bilatzea halabeharrezko eta ezinbesteko behar bihurtu da. Irtenbide bat aurkitu dugu, hasieran pentsatu baino kostu txikiagoa duena; izan ere, artxiboak ez du behar ondasun higiezin berririk. Artxiboko arduradunekin egon gara eta Markuleteko kokaleku berriak ez dakar murrizketarik zerbitzuan. Beraz, horren alde egingo dugu", adierazi du Zeziagak.

Hezkuntza arlorako 241.000 euroko partida bideratuko da. Horietatik 205.000 euro inguru Gazteluondo eta Olarte gunerako galdara eta gasifikazio gela berritu eta bateratzeko erabiliko dira. Bestalde, Aukea erakunde autonomorako 130.000 euroko partida onartu da, batez ere Iturripeko estalkiko egitura konpontzeko bideratuko dena –teilatua, itoginak eta habea.

**Azokaren eredua birplanteatzen**

Azokari beste izaera bat ematea pentsatzen dabil Udala. 2014an amaitzen dira postuen esleipenak eta orain arteko eredu azoka ezbaian jarri gura dute, uste dutelako ez dituela baserritarren eta erabiltzaileen beharrak asetzen: "Denon artean eta herritarren parte-hartzea bultzatuz azokari irtenbide duin eta egonkor bat eman nahi diogu".

Ekogunea izena eman diote proiektuari, eta, ondoko herrietako esperientzian oinarrituta baino gehiago, Arrasateko kasua hartuko dute aintzat: "Herriak erabaki behar du bere azokak eta kontsumo motak nolakoa izan behar duen". Horretarako da Ekogunea, eta egungo azokaren erabiltzaile eta baserritarrekin parte-hartzean oinarrituko da. 23.000 euro bideratuko dira azokaren eredu berri hori martxan jartzeko. Ekoizleen eta erosleen onerako izango dela uste dute.



Udal Azokarendako beste eredu bat gura du Udalak, erosle eta ekoizleendako zerbitzua hobetzeko asmoz. | J.B.

**241.000 euro Makatzenarako**

Hirigintza arloari dagokionez, inbertsioen artean nabarmendu beharra dago Makatzena auzoa birgaitu eta zaharberritzeko plana. Plan horrek erantzuten dio Suradesak Udalari emandako informazioari, Eusko Jaurlaritzak ireki nahi dituen dirulaguntzen lerro baten gainean, etxebizitzak zaharberritzeko. Lehen azterketa batean ikusi da Makatzenak baldintzak betetzen dituela eta laguntza lerro horietan sartzeko aukera dagoela. Hori horrela, Udala agente laguntzailea litzateke, beti ere Makatzenako komunitateak interesa erakusten badu. Eta, jarduera horien osagarri moduan, irisgarritasuna hobetzeko aukera legoke Udalak esku hartzeko. Nola? Bada, adibidez, Hondarribia kaleko 1 eta 3 zenbakietako etxebizitzen esparruan igogailu bat eraikiz.

Bestalde, San Josepe auzoa berriro urbanizatzea legealdi honetako helburu nagusietako bat dela dio Zeziagak. Auzo horretan lan handiak egin behar dira; errepidea hobetu eta aparkalekuak birmoldatu, besteak beste.

**Epe luzeko hainbat proiektu**

2012ko ekitaldian hasiko diren hainbat eta hainbat proiektu hurrengo ekitaldietan jarraitu beharko dute "Ikusi egin beharko dugu bermaturik geratuko den horiek finantzatzea", dio Zeziagak. Urte askotarako kreditatuak dira, beraz. Horien artean dago, esaterako, San Josepe auzoa berriro urbanizatzearena.

---

**MARIA UBARRETXENA** | EAJ-KO ZINEGOTZIA

### "Planifikazio falta orokorra ikusten dugu, eta, ondorioz, inbertsioetan ideia gabezia garbia"

Aurrekontuen zirriborroa onartu aurretik ekarpenak egiteko aukerarik izan ez dutela dio Ubarretxenak: "Udal Gobernuak sustatu gura duen parte hartzearen eredua barrutik hasi behar dela uste dugu".

**Zeintzuk dira hutsune nagusiak, zuen ustez?**

Ekonomia berpiztu eta lana sortzeko neurriak ez dira nahikoak. Mugikortasunari dagokionez, badakigu gaia aztertzen dabiltzala, baina guk ekintza azkarrak eskatzen ditugu. Biztanleria naztatuta dago: autoak espaloian aparkatuta, ospitale inguruan lekurik ez... Arrasate ez dago oinezkoendako prestatuta, gure ustez. Aparkalekuen auzian, herritarrendako kostu gabeko edo kostu txikiko neurriak har daitezke. Adibidez, Bergarako TAO sistema edo aparkaleku publiko merkeak.



J.B.

**Zein iritzi duzue onartu diren inbertsioez?**

Planifikazio falta orokorra ikusten dugu, eta, ondorioz, inbertsioetan ideia falta garbia. Mantentzelanak dira asko eta inbertsio finko berririk ez dugu ikusten. Adibidez, Udal Artxiboa mugitzea garrantzitsua izango da, baina ez dugu inbertsio moduan ikusten. Inbertsioek herriari zerbitzu bat eskaini behar diote. Bestalde, krisi garaia egokia da inbertsioak planifikatzeko. Azkenik, ez dugu uste atez atekoa ezartzeko garaia denik.

**Zein izango da Arrasateko EAJren politika?**

Oposizio konstruktiboa egingo dugu, ez dugu kontra egingo kontra egiteagatik. Betiere, Arrasaterendako onena denaren alde egingo dugu lan.

---

### Mugikortasuna, aurtengo erronka

**21012rako erronken artean dago Mugikortasun Plana abian jartzea. Gaia osotasunean landuko da, eta 120.000 euro bideratu dira. Garraio publikoa bultzatzea, Laubideko aparkalekuen egoera desblokeatzea, zenbait lekutan TAO sistema jarri behar den aztertzea eta garabi zerbitzua hobetzea daude aurten egin beharreko lanen artean, besteak beste. Arrasate oinezkoendako herria izatea gura du Udalak.**

---

**ARITZ ARRIETA** | ALDERDI SOZIALISTAKO BOZERAMAILEA

### "Alkatearen lidergorik ezaz gain, inbertsio falta izugarria ikusten dugu aurrekontuetan"

Aurrekontuak onartzeko prozedura eta alkatearen lidergo falta salatu ditu Arrietak, eta horregatik aurkeztu zioten osotasunari emendakina.

**Zein hutsune ikusten diezue aurrekontuei?**

Krisiak eragindako aurrekontu murriztuei aurre egiteko beste erakundeetara jo beharra dago eta alkateak horretarako lidergo falta erakutsi du. Eurak daude Diputazioan eta negoziatzeko aukera badago, diru gehiago lortzeko. Horrez gain, enplegua sustatzeko orain arte egin dena ez da nahikoa. Lehen mailako arazoa da eta gehiago egin daiteke. Arrasate bailarako hiriburua izanik, Udalak aukera handiak ditu beste erakundeekin –enpresa, unibertsitate, banketxe...– batera enplegua sustatzeko. Guk dakigula, ez da halakorik egin.



J.B.

**Inbertsioen gainean zein da sozialisten iritzia?**

Oro har esanda, inbertsio falta izugarria ikusten dugu. Adibidez, 15.000 euro etxe hutsen gaineko azterketa bat egitera bideratzea ez zaigu beharrezkoa iruditzen. Zergatik ez dira diru hori enplegura bideratu? Ulertzen ez dugun beste partida bat atez ateko sistemarena da. Hasieratik esan dugu atez atekoa Arrasaterendako atzerapausoa dela eta bosgarren edukiontzia egokia eta merkeagoa dela. Amaitzeko, autoa uzteko ordua heldu da. Arrasaten garraio publikoa oso ondo dago, eta hori erabiltzeko kanpainak egin behar dira. Horren harira, aparkalekuen arazoarendako, Udaltzaingoak gehiago inplikatu behar du.

---

**DATUAK**

**35**

MILIOI BAINO GUTXIAGO

Aurrekontu orokorra –Aukea eta Iturbide barne– 34.884.546 euro da, iaz baino %4,92 handiagoa.

**%40**

ZERBITZUETARA

Zerbitzuetara diru gehien (%40,06), Pertsonal Sailaren (%9,47) eta Ongizate Sailaren (%7,39) aurretik.

**Unai Arana** | Meatzerreka auzoko alkatea

# "Mus txapelketa egubakoitzera pasa dugu jendea erakartzeko"

- Hilaren 27an, 28an eta 29an San Baleixo jaiak izango dira Meatzerrekan
- Lehen jaiak dira auzo-alkate berriarendako; kargua ezagutzen dabilela dio

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

San Baleixo jaiak ospatuko dira urtarrilaren 27an, 28an eta 29an Meatzerreka auzoan. Jaien gaineko argibideak Unai Arana (Arrasate, 1980) auzo-alkate berriari eskatu dizkiogu. Izan ere, alkate 12 urtez izan den Inazio Zuazubiskar ordezkatuko du Aranak. Gabonetan izendatu zuten, eta kargu berrian bete beharrekoak ezagutzen dabilela aitortu digu.

**Ume garaietako zein oroitzapen duzu auzoko jaiez?**

Txokolatada gogoratzen dut baina batez ere Gorriti eta haren animaliak; poney artean eta txerria harrapatzen gustura aritzen ginela gogoan dut. Oro har oso oroitzapen onak ditut.

**Nobedade aipagarririk bai aurtengo egitarauan?**

Jaietako ekitaldi garrantzitsuena mus txapelketa da, zalantza barik. Orain arte zapatu arratsaldean egiten zen baina aurten egubakoitz gauera pasa dugu. Jende gehiagok parte hartzea gura dugu eta horretarako pasa dugu egubakoitz gauera. Edonork har dezake parte, Meatzerrekako elkartean agertzearekin nahikoa da. Kontuan izan behar da zortzi erregetara jokatzen dela. Bestalde, auzo-afaria egubakoitzean egiten zen baina mus txapelketa dagoenez, zapatura pasa dugu. Beste nobedade bat ere badago: auzoko baserri arteko patata tortilla lehiaketa, zapatuan 12:00etan. Aurreko urteetan ez dut uste egin denik.

Domekan ez dago aldaketarik: 11:00etan hasita meza San Baleixo ermitan Gesalibar eta Garagartzako abesbatzekin eta gero Lore Gazteak taldearen dantza emanaldia.




Unai Arana, Meatzerrekako elkartean, San Baleixo jaiak iragartzen. | J. BEREZIARTUA

## "Berria naiz lan honetan; ahalik eta ondoen egiten saiatuko gara"

**Auzo-alkate berria zara. Noiztik? Nola izendatu zintuzten?**

Gabonen aurretik hasi nintzen. Bozketa bidez izendatu ninduten eta aldaketaren berri eman genion Udalari. Bilera pare bat izan ditut dagoeneko udaletxean eta nik dakidanez, oraingoz Garagartza eta Meatzerrekan bakarrik aukeratu dira auzo-alkate berriak.

**Zeintzuk dira zure betebeharrak?**

Berria naiz lan honetan eta enteratzen ari naiz. Oraindik ere auzoko baserri guztietan eman behar dut aldaketaren berri, eta badira 20 bat baserri.

Horietako bakoitzaren eskaerak entzuteko asmoa daukat aurrera begira. Oraingoz jaiak antolatzen nahikoa lan izan dugu. Izan ere, lehen aldia da halako ardura bat hartzen dudana; ahalik eta ondoen egiten saiatuko gara.

NIRE USTEZ

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL



## Heriotza eta sentimenduak

Herioaren aurrean izan ditzakegun erreakzioak nolakoak diren errepasatzen hasi eta askotarikoak izaten direla ohartu naiz. Penaz hartzen dugu norbait betirako gure albotik joaten deneko albistea, negar egiten dugu, baita txanpan botila zabaltzerainoko poza sentitu…. Urtarrilean heriotza ugariren berri izan dugu, eta sonatuak izan dira azken aldiko batzuk. Fraga frankistak bereak eta bi egin zituen diktadura garaian, nola ahaztu hori! Bada, justizia deitzen duten horren aurretik pasatu gabe alde egin du; ondorioz, amorrua izan da askori sortu zaien sentsazioa. Aldiz, Txillardegik euskal literaturgintzari eginiko ekarpen handiarekin geratu gara asko eta asko, horregatik esker oneko berbak besterik ez ditugu entzun haren agurrean. Eta sentimenduak anitzak diren moduan, heriotzak ere desberdinak izan daitezke. Krisiaren aitzakiarekin, guraizeek protagonismoa hartu eta hiltzera kondenatu dituzte proiektu ugari; adibide gisa, Nabarra edota Euskonews Gaztea astekariak, dantzan.com ataria…. Eta dagoeneko desagertu ez badira, herioaren korridorean topatuko ditugu asko. Sentsazioa, euskaldunak eta kultura galtzaile ateratzen direla.

Albiste txarren aurrean, mundua beltz ikusteko joera eduki arren, burua altxatzen ere badakigu, argi izpi soil bat gure ingurua koloreztatzeko gai da. Baikorra izatea, hortxe koska.

**"Euskaldunak eta kultura, galtzaile ateratzen direnak"**

# Abaroako kuota bulegoan ordaindu behar da aurten

Bulegoko jarduna egokituko dute hilaren 31ra arte; ordaintzeko azken eguna martxoaren 4a da

J.B. | ARRASATE

Abaroa erretiratu elkarteko zuzendaritzak jakinarazi duenez, zabalik dago bazkideendako urteroko kuota ordaintzeko epea, martxoaren 4ra arte. 2012rako kuota bederatzi eurokoa izango da eta, diotenez, kuota hori ordaintzea ezinbestekoa izango da elkartearen ekintza guztietan parte hartzeko. Ordainketa bulegoan egin beharko da. Horretarako bulegoko jarduna egokitu egingo dute urtarrilaren 31ra arte: ohiko ordutegiaz gain, 11:00etatik 12:00etara kuota kobratzeko bakarrik egongo da zabalik.

**Aratusteetako ospakizuna**

Aratusteak otsailaren 21ean ospatuko dituzte, 18:30etik aurrera. Gonbidapenak urtarrilaren 31tik otsailaren 13ra arte jaso ahal izango dira bulegoan, bazkide txartela aurkeztuta.



JOKIN BEREZIARTUA

## Ikusmina piztu du HAPOra egindako bisita gidatuak

Ikusmina piztu zuen Arizmendik Lanbide Heziketak Eraikuntza Zikloko ikasleendako HAPOren aurrerapena ezagutzeko atzo goizean egindako deialdiak. Ikasleez gain, eragile askotariko kideak –Bagara Herrigintza eta Arrasateko Zientzia elkartea kasu– eta zenbait herritar izan ziren Kulturateko erakusketan, Juan Antonio Urdangarin Hirigintza Saileko teknikariburuaren azalpenak bertatik bertara jarraitzen.

### Gitarra jotzen ikasteko aukera gazte txokoetan Olatz Urkia hezitzailearen eskutik, eguenero, bi hilabetez

Otsailaren 3a ezkero doako gitarra ikastaro bat antolatu dute San Andresko gazte txokoan. Ikastaroa eguenetan izango da, 18:00etatik aurrera, eta bi hilabete iraungo du. Olatz Urkia hezitzailea eta gitarra jole arrasatearra izango da irakaslea. Izenematea mugatua da eta gazteei konpromisoa eskatuko zaie. Gitarra batzuk egongo dira gazte txokoan, erabiltzeko moduan. Izena emateko San Andresko gazte txokora edo Txatxilipurdira jo, eta informazio gehiagorako 943 79 54 46 telefonora deitu.

### Arrasate Musikalen eskutik, ikasturteko bigarren jam saioa urtarrilaren 25ean, 19:00etan hasita

Arrasate Musikalek datorren asterako beste hitzordu baten berri eman du. Izan ere, beste jam saio bat egingo dute datorren eguaztenean, urtarrilaren 25ean. Jam saioa da musikarien arteko bilera informala, entseatu bako piezak jotzeko. Ikasturteko bigarrena izango da. Musika Eskolan –Monterron jauregian– izango da, 21:00etan. Antolatzaileek adierazi dutenez, eskolakoak ez ezik, gonbidatuak daude eskolan matrikulatuak ez dauden guztiak ere, "parte hartzera edo entzutera". Sarrera doan da.



Mondrak etxean jokatutako partiduetako bat, Real Unionen kontra (0-0). | JOSETXO ARANTZABAL

# Mondrak iraultza behar du bigarren itzulian, mailaz ez jaisteko

- Sailkapenean azkenak dira, 12 puntu batuta
- Beti Gazte hartuko dute zapatuan Mojategin

**XABIER URTZELAI** | ARRASATE

Mondrak Beti Gazteren kontra hasiko du zapatuan bigarren itzulia. Liga hasi zutenetik, Arrasateko zaleak birritan erretiratu dira Mojategitik etxekoen garaipen baten testigu izanda, eta horrek goitik behera aldatu beharko du kategoriari eutsi nahi badiote. Jokalariak sinistuta daude azken postuetatik ihes egiteko gauza direla, eta hori da garrantzitsuena.

Taldea gertutik segitu dutenek badakite, hain zuzen, kategoriako oilarren kontra erakutsi duela Mondrak, joko aldetik, aurpegirik onena, baina partidu horietan ez dute merezitako saririk jaso; eta kontrario zuzenen kontra egin dute huts, barkatu ezin diren partidu horietako asko barkatuta.

Diogun moduan, Mondrak iraultza ekarri beharko du geratzen diren hamazazpi jardunaldietara; iazko datuei erreparatuta, zortzi edo bederatzi partidu irabazi beharko dituzte mailari eusteko.

**Beti Gazte, lehenengoa**

Zapatuan Mojategin bisitari izango den Beti Gaztek izan beharko du Mondraren iraultzaren lehenengo *biktima*. Urolaren zelaian berdindu berri, Aretxabaletaren kontrako derbitik errekuperatu dira zuri-moreak: "Pena Urolan garaipena lortu ez izana, guk egin genuelako lehenengo gola, eta langara bota genituen beste bi jaurtiketa. Derbian oso txarto jokatu ostean, Urolan egindako partiduak konfiantza eman digu", adierazi digu aste barruan kapitainak, Kepa Mercaderrek. Egia da oso talde gaztearekin geratu dela aurten Mondra, beteranotasuna falta zaiela; baina gazte horien ordua iritsi da.

**KEPA MERCADER 'TXAOTE'** | MONDRAKO KAPITAINA

## "Hemendik Aste Santura arteko epea erabakigarria izango da; gauza gara"



GOIENA

Kepa Mercader (Arrasate, 1985) Mondrako atzeko lerroan izango da zapatuan. Etxeko partiduak dagoeneko final bilakatu direla onartu digu, nahiz eta bigarren itzuli osoa geratzen den.

**Itzuli osoa geratzen da kalkulagailua eskuan izateko.**

Dagoeneko egin ditugu kalkulu horiek. Gutxienez, zortzi edo bederatzi partidu irabazi behar ditugu; iaz 35 punturekin eutsi zioten kategoriari, eta erreferentzia moduan balio dezake. Hala, garaipen horiek etxean lortu behar ditugu. Kanpoan lortzen dugun guztia ongietorria izango da, baina etxean orain baino indartsuago egon behar dugu.

**Hilabete garrantzitsuak dituzue aurretik.**

Aste Santura arte atzeko postuetan dauden taldeen kontra jokatuko dugu: Beti Gazte, Trintxerpe, Roteta, Behobia... eta kontrario horien kontra, batez ere etxean, irabazi egin behar dugu. Hain zuzen, talde horien kontra huts egin dugu lehen itzulian. Liga amaieran, goian daudenen kontra jokatu beharko dugu, eta hor puntuak batzea zailagoa izango da.

**Dena dela, oraindik zuen esku dago guztia.**

Bai, bai, oso garbi daukagu hori. Galdu ditugun partidu asko oso alde txikiagatik izan da, detaileengatik erabaki dira partidu asko, eta posible da egoerari buelta ematea. Hobeto egin beharko ditugu gauzak, eta zorte apur bat aldeko izatea ere oso garrantzitsua da; edonoren kontra irabaz genezake.

**Josu Larreategi** | Mondragon Unibertsitateko entrenatzailea

# "Ez gara iritsi gure momenturik onenera; badugu zer hobetu"

Biharko partiduan, klubak txokolate beroa eta bizkotxoa banatuko du zaleen artean



Josu Larreategi. | GOIENA

**X.U.** | ARRASATE

Mondragon Unibertsitateak garaipenarekin hasi du urtea; eta, azken emaitzekin, jaitsiera fasea buruan izatetik igoera faserako sailkatu nahi duten taldeak estutzera pasa dira; seinale ona da hori.

**Sailkapenean azken postuan dagoen La Alcoholeraren kontrako partidua arriskutsua zen.**

Errioxako norgehiagoka hasiera batean irabazteko modukoa zen, baina, aldi berean, arriskutsua. Etxetik kanpo sekula ez da samurra irabaztea, eta garaipena 25 puntuko aldeaz lortzeak meritu handia dauka. Espero dugu bide horretatik jarraitzea. Gauza askotan hobeto behar dugu; oraindik ez gara ailegatu gure unerik onenera.

**Jaitsiera fasera ahalik eta puntu gehien batuta joatea da helburua, ala oraindik posible da sorpresa ematea?**

Ez dut horretan pentsatu nahi. Nahiago dut pausoz pauso joan eta hurrengo partiduan baino ez pentsatu. Oraindik sei partidu geratzen dira lehenengo fasea bukatzeko, eta, gauzak ondo eginez gero, edozer gerta daiteke; horretarako, baina, guk gure lana oso ondo egin beharko dugu.

**Zelan dago taldea?**

Gabonetan oso gogor egin dugu lan. Beheko mailako jokalari batzuen laguntza izan dugu ondo entrenatzeko: Julen Kortabarria, Unai Ezpeleta eta Iker Moreno, besteak beste. Andoni Arantzabal hilabete osoa egon da lesionaturik eta aste honetan ekin dio entrenatzeari; ez zaio askorik kostatzen sasoian jartzea, eta espero dut Araberriren kontrako partidurako ondo egotea. Martxel ere hasi da entrenatzen; denboraldi-aurrean hanka hautsi zuen eta gaur arte egon da geldi. Iker Barbero poliki-poliki iazko jokalaria izaten ari da eta taldearentzat oso garrantzitsua da. Gainontzekoek lan polita egin dute azken hilabetean.

**Araberriren kontra jokatuko duzue asteburuan. Hori ere kontrario zuzena da.**

Bai, Araberri oso gertu daukagu sailkapenean, partidu garrantzitsua izango da. Gasteizen jokatu genuenean, lehenengo zatian bakarrik izan ginen lehiakorrak. Zapatuan, berriz, espero dut partidu osoan lehiakorrak izatea eta garaipena etxean gelditzea.

**"Gabonetan gogor egin dugu lan, jokalari gazteen laguntzaz"**

## Gipuzkoako atletismo txapelketatik urrezko dominekin itzuli ziren Arrasateko hainbat atleta

Arrasateko atletek lan nabarmena egin zuten Gipuzkoako txapelketan. Istar Dapenak, Maialen Axpek, Malen Ruiz de Azuak, Alba Etxeandiak eta Iñigo Uribarrenek urrezko dominak jantzi zituzten hainbat kategoria eta atletismo modalitatetan. Chen Jianek eta Eukene Donorronsorok, bestalde, zilarra jantzi zuten. Arrate-Eibar krosean, bestalde, promes kategorian Martin Berrizbeitia hirugarren izan zen eta Maria Jose Gil, lehenengoa 70 urtetik gorakoetan.

## Zaldibarren jokalari berriendako izen-emate epea amaitu da; asteburuan, hamargarren jardunaldia

Oraingo asteburuan Zaldibarko txapelketako hamargarren jardunaldia jokatuko dute –nahiz eta oraingo astean orri honetan Zaldibarko zutaberik sartu ez dugun–. Bihar, zapatua, At. Betrayer eta Sonografos taldeek hasiko dute jardunaldia, 10:30ean. Bazkalorduan atseden hartu ostean, 16:00etan ekingo diote berriz jokatzeari: Aldatz eta Ekaitz izango dira aurrez aurre. Domekarako, berriz, bi partidu gorde dituzte. Ordutegi guztiak *www.zaldibarkofutbitotxapelketa.com* webgunean daude.

# Berriro ere hasi dituzte literatura solasaldiak

## Euskarazko saioak Mikel Aierbek koordinatuko ditu eta gaztelaniazkoak, ostera, Harkaitz Canok

A.MONEDERO/A. EZKIBEL | ARRASATE
Arrasateko Udal Bibliotekak 10. urtez antolatu ditu literatura solasaldiak. Urritik abendura bitartean egin zituzten lehenengo saioak, eta, urte berriarekin batera, solasaldien bigarren jardunaldiak aurkeztu dituzte. Aurtengo lehenengo solasaldia Anne Berest idazlearen *Bere aitaren alaba* liburuaren gainean egin zuten martitzenean. Mikel Aierbe irakasleak koordinatu zuen saioa.

Otsailetik ekainera beste bost solasaldi egingo dituzte; besteak beste, Pello Lizarralde, Sergi Pamies eta Patxi Iturregi idazleen liburuez jardungo dute.

**Liburuak aukeratzeko modua**
Liburuak koordinatzaileak aukeratzen ditu; euskarazkoak, Mikel Aierbek: "Urtarriletik ekainera sei saio izango ditugu; hala, saiatzen naiz mota askotariko liburuak aukeratzen. Kontuan hartzen dut herria, generoa... Anne Berest idazlea, esaterako, berria da, liburu arina da... ".

**Liburua eta zinema**
Gaztelaniazko solasaldiak Harkaitz Canoren gidaritzapean egingo dituzte. Aurtengo berritasuna izan da zikloka edo gaika antolatu direla solasaldiak. Lehenengo hiru hilabeteetan nobela beltza izan da gaia. Juana Lopez de Munainen gidaritzapean egin dituzte saioak eta oso gustura geratu dira solasaldiek izan duten erantzunarekin –38 lagun.

Datozen hiru hilabeteetan, Canorekin literatura eta zinema landuko dute. Hala, liburuak irakurri eta era berean filmak ere ikusiko dituzte interesatuek. Gero, solasaldia egingo dute Canorekin Kulturaten, 18:00etatik 20:00etara. Literatura eta zinema solasaldietan izena emateko azken eguna gaur da, urtarrilak 20. Dagoeneko 30 lagunek eman dute izena.


Martitzenean egin zuten lehenengo saioa. | ANDER MONEDERO

**SOLASALDIEN EGUTEGIA**

| EGUNA | LIBURUA | IDAZLEA | HIZKUNTZA |
|---|---|---|---|
| **Urtarrilak 26** | *Alta Fidelidad* | Nick Hornby | Gaztelania |
| **Otsailak 21** | *Iragaitzaz* | Pello Lizarralde | Euskara |
| **Otsailak 29** | *Disparen sobre el pianista* | David Goodis | Gaztelania |
| **Martxoak 20** | *Gaueko gezurrak* | Gesualdo Bufalino | Euskara |
| **Martxoak 28** | *Dublineses* | James Joyce | Gaztelania |
| **Apirilak 17** | *Haize kontra* | Patxi Iturregi | Euskara |
| **Maiatzak 22** | *Limoi bat imintziorik egin gabe jaten baduzu* | Sergi Pámies | Euskara |
| **Ekainak 19** | *Hiru liburu* | Rikardo Arregi | Euskara |

# Laukote formatuan arituko da Keu Agirretxea

A.E. | ARRASATE
Urtarrilaren 26an, datorren eguenean, eskainiko du kontzertua Keu Agirretxea ondarrutarrak gaztetxean. *Kooltur ostegunak* ekimeneko saioa izango da, 22:00etan, bost euroren truke.

Agirretxea ondarrutarra Governors, Etsaiak, Fjord eta Uek taldeetako kide izan da. 15 disko grabatu ditu, horietako hiru instrumentalak. Gitarra, harmonia moderno, musikaren historia, informatika musikal eta psikopedagogiako ikasketak egin zituen Donostian. Gaur egun, Ondarroako eta Bermeoko musika eskoletan gitarra irakasten du. Azken proiektua aurkeztuko du Arrasateko gaztetxean: Fignuh Experience. Ondokoak izango ditu lagun: Mikel Arakistain baxuan, Iñaki Jaio baterian eta Isusko Ramon saxoan.

Urtarrileko egitaraua bukatuta, otsailean kontzertuekin segituko dute. Dagoeneko aurreratu dute datozen asteetan Faire Leires eta Xabi eta Petti bikotea pasako direla gaztetxetik.

# Inauterietako kartela egiteko lehiaketa antolatu du Udalak

A.E. | ARRASATE
Interesatuek otsailaren 1a baino lehen eraman beharko dituzte lanak BAZera –19:00ak baino lehen–. Udalaren asmoa da lan irabazlearekin Inauterietako kartela egitea.

**Teknika librea izango da**
Kartela egiteko teknika librea izango da eta derrigorrez ondoko esaldia eraman beharko du: *2012 inauteriak Arrasate*. Gainera, formatuak bertikala izan beharko du, derrigorrez.

Kartelaren neurriak 50x70 zentimetro izan beharko du. Informatika euskarrian (pendrivean edo CDan) ere aurkeztu ahal izango da kartela, DIN-A3 tamainako paperean inprimatuta. Gainera, kartelak ondo babestuak aurkeztu beharko dira, honda ez daitezen.



Iazko kartel irabazlea. | ARRASATEKO UDALA

Lehiaketaren irabazleak 400 euroko saria eramango du. Hala ere, epaimahaiak saririk ez emateko aukera izango du, aurkeztutako lanen artean mailarik ez dagoela uste badu.

**Oinarriak**
Udalak egoki ikusten badu, lehiaketara aurkeztutako lanekin erakusketa egingo du. Oinarriak udaletxeko arkupeetan eta *arrasate-mondragon.org* atarian daude ikusgai. Lehiaketan parte hartzeak oinarriak onartzea dakarrela gaineratu dute antolatzaileek.

# Arrasate literatura lehiaketan, aurten, diru gehiago saritan

A.E. | ARRASATE
AEDk literatura lehiaketa jarri du abian, aurten 25. aldiz. Hainbat berritasun izango ditu lehiaketak; besteak beste, diru gehiago banatuko dute lehen sarian: "Saria potoloagoa izango da aurten", azaldu du Itxaro Artolak, AEDko arduradunak. Gainera, lanen tamaina (idatzi beharrekoa) ere aurreko urteetakoa baino motzagoa izango da aurten.

**Hiru sail bereizi dituzte**
Literatura lehiaketak hiru sail izango ditu: ipuina, poesia eta bertso-papera. Beste urte batzuetan komiki saila ere izan dute, baina, aurkeztu izan duten kopuru txikia ikusita, aurten sail hori kentzea erabaki dute.

Lehiaketa Leintz bailarako gazteendako da, LHko 5. mailatik DBHko 4. mailara bitartean; batxilergoan eta 1995a baino lehen jaiotakoen mailan, ostera, Debagoien osora zabaltzen da. Nagusien mailan saria 200 euro da; DBHko 3. eta 4. mailetan, 150 euro; DBHko 1. eta 2. mailetan, 125 euro; eta LHko 5. eta 6. mailetan, 100 euro. Lanak martxoaren 30era arte aurkeztu ahal izango dira.







## OHARRAK

**BEDELKARREKO ZOZKETA**
Bedelkarreko zozketan, 1.000 euroko saria 63.310 zenbakidun txartelarendako izan da: era berean, 250 euroko lau sari banatu dituzte eta hauek izan dira saritutako zenbakiak: 9.843, 26.834, 41.656 eta 54.026. Lehen saria Aitziber Payrosek eraman du eta Miriam Perezek eta Santiago Bernardok 250 euroko sari bana jaso dute. 9.843 eta 26.834 txartelen jabeak ez dira oraindik azaldu.

**BATZOKIKO ZOZKETA**
Gabonetako zozketan 402 zenbakia izan da sarituta talasoterapia zentro batean bi lagunendako aste bukaera bateko egonaldiarekin.

**1956KOEN AFARIA**
1956. urtean jaiotakoen afaria urtarrilaren 28an Tartufon. Joan-etorria egiteko autobusa izango da. Bule tabernan elkartuko dira, 19:00etan. Izen-ematea Tartufon (943 76 35 51) edo 630 62 61 30 telefonoan.

**BASERRI INGURUNEKO PLASTIKO BILKETA**
Debagoieneko Landa Garapen Elkarteak bilketa egingo du martitzenean, urtarrilaren 24an. Belar boletan eta siloa eta lurra estaltzeko erabiltzen den plastiko beltza eta berotegiko plastiko zuria jasoko dute. Bergaran, Ugarrixan (granja parean), Murinondon, trenbide ondoan, eta San Juango eliza aurreko plazan egingo dute bilketa. Argibideak 943 76 25 47 telefonoan.

**TAILA ESKOLA: BATZARRA**
Taila eskolako kideek batzar orokorra egingo dute gaur, egubakoitza, Zabalotegiko lokalean, 18:30ean hasita.

**ODOL ATERATZEA**
Eguaztenean, hilaren 25ean, anbulatorioan, 18:00etatik 20:30era.

**SANE ETA ABDOMINALAK: HITZALDIA EGUENEAN**
Sane fisioterapia zentroaren eskutik, *Zergatik egiten dituzu abdominalak? Zer lortu nahi duzu?* izenburuko hitzaldia eguenean, hilaren 26an, Miguel Altuna ikastetxeko aretoan, 18:30ean hasita.



Hasiera baten, Urteagako 32 etxebizitza (argazkian, atzean) 2014ko udarako bukatuta egongo lirateke. | ARTZAMENDI

# Urteagako babes ofizialeko etxebizitzak, jabeen zain

## Eskaerak egiteko epea otsailaren 3ra arte dago zabalik udaletxean

EDU MENDIBIL | BERGARA

Urteagan eraikitzear dauden babes ofizialeko 32 etxebizitzen zozketan parte hartzeko izenematea otsailaren 3ra arte dago zabalik. 32 etxebizitza horietatik 29 aterako dira zozketara; izan ere hiru etxebizitza bere garaian Urteagaren garapenerako desalojatutako hiru familiarendako izango dira.

**Lanak udan abian**
Etxebizitzak egiteko lanak ez dituzte oraindik hasi, baina asmoa da uda aldera jartzea lanak abian. 2014ko udarako lanak bukatuta egotea aurreikusten dute promotoreek. Madura Etxegintza SL enpresak eta Udalak Gabonetan sinatu zuten hitzarmena.

Esandako moduan, 32 etxebizitza aurreikusten dira, Urteagan egiten ari diren etxebizitza tasatuei jarraituta, hain zuzen ere. Etxebizitza txikienak 42 m2 eta logela bakarra dauka, eta garajea eta trastelekua barne 100.000 euro balio du (BEZa aparte). Etxebizitza handienak, berriz, 73 m2koak dira eta hiru logela dituzte. Hauen kasuan, prezioa 151.000 eurokoa da, garajea eta trastelekuarekin. Prezioari BEZa gehitu behar zaio.

**Baldintzak udaletxean**
Hasiera baten, babes ofizialeko 128 etxebizitza 64 etxeko bi fasetan egitea aurreikusten zuten, baina krisi ekonomikoa dela eta ez dira garai onenak hauek etxeak saltzeko eta hori dela eta oraingoz behintzat, 32 etxebizitza egingo dira. Lehen faseko beste 32 etxeak pendiente geratuko dira oraingoz.

Esan bezala, zozketa egin eta gero hasiko lirateke Urteagako babes ofizialeko etxebizitzak egiten. Etxeen planoak eta zozketan parte hartu ahal izateko bete beharreko baldintzak udaletxeko bulego teknikoan daude eskuragarri. Edozelan ere, Jaurlaritzako Etxebizitza Sailaren araudira egokitu beharko dira eskatzaileak. Interesatuek bulego teknikora jo dezakete argibide eske, astelehenetik egubakoitzera, 08:00etatik 14:00etara bitartean. Eskaera, berriz, otsailaren 3rako aurkeztu beharko dira, ondorengo zozketan parte hartu ahal izateko.

Hasierako aurreikuspenen arabera, baliteke zozketa udaberrian izatea.

# San Anton, ondo ospatuta

Ohiturari eutsiz, auzoko zaindariaren eguna ospatu zuten martitzenean San Antonen. Jende ugari joan zen ermitara, eta, meza entzun ostean, auzotarrek gertatutako salda eta txorizoa dastatzeko aukera izan zuten bertaratutakoek. Hala ere, garai bateko ohitura galduz doala zioten auzotarrek; izan ere, sasoi batean, animalia eta guzti joaten ziren ermitara. Orain, baina, ez da hala izaten. Edozelan ere, giro ederrean ospatu zuten San Anton eguna.



AMAIA TXINTXURRETA

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

UREDERRA
ITURGINTZA
Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta
Arruriaga 11
686 943 918

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULU ELEKTRONIKOAK, KALKULAGAILUAK...
Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

BERGARA MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
*Sukalde eta bainu enzimerak*
Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

Kabutzia
ARRAINDEGIA
Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

# Seminarioko permuta: martxoan bilduko da UNEDeko patronatua

## Aurretik Diputazioa eta Udala batuko dira

**E.M.** | BERGARA

Udalak aurten sinatu nahi du Seminarioa eta Arrizuariagaren arteko permuta eta hori aztertzeko bilera egingo du UNEDeko patronatuak martxoan. Diputazioa, Kutxa, UNED eta Udala daude patronatuan. Aurretik baina, Udaleko ordezkariak eta Diputazioak batuko dira, permutaren xehetasunak aztertzeko. Tartean, Arrizuriagan egin beharreko egokitzapen lanak mahai gainean izango dira.

Jesus Elortza alkateak adierazi digunez, "alde guztien arteko borondate akordioaren aldekoa da, baina gero eta kaskarragoa da egoera ekonomikoa eta aurreikuspenak ere ez dira batera onak". Honekin lotuta, Haziendak 2011rako aurreratutako 51 milioi euroren itzultzea eskatu die Diputazioak Gipuzkoako udalei hasierako aurreikuspenak ez direlako bete.

**Aspaldiko nahia**

Zeresan ugari eman du permutaren gaiak, eta Bildu Diputaziora iritsi zenetik gauzak dezente argitu omen dira. Permuta gauzatuko balitz, Udala izango litzateke Seminarioaren jabe berria. Besteak beste, museoa jasoko luke eraikinak. Etorkizunera begira, museoa da proiektu izarra , plan estrategikoan jasotzen denez. Arrizuriaga, berriz, UNEDeko patronatuaren esku utziko luke Udalak.

**Munibeko karpan kalteak**

Bestalde, gobernu batzordeak Muniben kokatuta zegoen karpari eragindako kalteak salatu ditu. Urtarrilaren 15eko gauean, karparen alboetako 10 toldoetan, labanaz edo erreminta zorrotz batez, ebakiak egin zituzten ezezagun batzuek. Kalteen balorazioa egiten dihardute.

### 'Dibortzio osasuntsu baterantz' hitzaldia eguaztenean kultura etxean, Agipase elkartearekin

Udaleko prebentziorako zerbitzuak gurasoei zuzenduta antolatutako hitzaldi sortaren barruan, eguaztenean, hilaren 25ean, *Dibortzio osasuntsu baterantz* hitzaldia izango da kultura etxean, 18:00etan. Gaztelaniaz izango da eta hizlaria Agipase elkarteko kideren bat izango da. familiek egiten duten lan hezitzaileari laguntza eta babesa ematea da hitzaldion helburua.

### San Bizente jaia ospatzeko meza eta erromeria domekan Angiozarko Parteitti auzoan

Domekan, hilaren 22an, San Bizente jaia ospatuko dute Angiozarko Parteitti auzoan. Eguerdiko 12:00etan meza izango da eta ondoren hurbildutako jendearen eta zelai eta soloen bedeinkazioa egingo dute elizpean. Ondoren, erromeria izango da Zabarteko atarian: salda beroa, pintxoa eta Kataideko txakolin berria hartzeko aukera izango da baita. Antolatzaileek azpimarratu bezala, aurtengo txakolina primerakoa omen dator.

### Herribus zerbitzua indartu dute herritarrek erabil dezaten; txartelarekin, 0,60 euro bidaia bakoitzeko

Gabonak ezkero, egunero dabil herribus zerbitzua. Urtarrilaren 2tik ari dira lanean autobus berriak asteko egun guztietan. Ibilbide bakoitzeko txartelak 1,10 euro balio du, baina, autobusean bertan kargatu daitezkeen kartelak erabiliz gero, 0,60 euro ordaindauko du herritarrak ibilbide bakoitzeko. Argibideak *www.herribusa.com* webgunean edo 943 76 59 42 telefono zenbakian jaso ditzakezue.



Sei postu daude zabalik Oxirondoko azokan. Goiko irudian, saltzaile gutxi batzuk atzo goizean . | E.M.

# Oxirondoko azoka: 17 urteren ostean saltzaile kopuru bera

## Tokiz aldatzea baino, azoka dinamizatzea eskatzen dute bertako saltzaileek

**EDU MENDIBIL** | BERGARA

Oxirondoko azokak 17 urte bete zituen joan den irailean. 1994ko irailaren 1ean inauguratu zuten. Orduan sei saltzaile ziren, gaur egungo kopuru bera. Azokak 300 milioi pezeta [1,80 milioi euro] inguruko aurrekontua izan zuen eta 24 salmenta posturekin zabaldu zuten. Bistan da aurreikuspenak ez direla bete. Hutsune gehiegi dago eraikinean.

Gotzon Inza oñatiarrak hasieratik dihardu Oxirondon. Aurretik, azoka zaharrean Nikolas Arzelus zenarekin, eta Mayceko ekonomatoan jardun zuen. Orain, arrebarekin batera eramaten du Bikain harategia. Gotzon Inzaren hitzetan, "azokako postu denak zabalik egon beharko lirateke baina hasierako baldintzekin jende askok atzera egin zuen. Postu bakoitzeko bikoitza baino diru gehiago ordaindu genuen orduan, eta malguagoa izaten asmatu izan balu Udala, merkatu biziagoa genuke gaur... Orain, bizi dugun krisiarekin, nor animatuko da ba merkatura etortzen postu bat zabaltzeko?".

Azokako postu bakoitzeko 4 milioi pezeta [24.000 euro inguru] ordaindu zuten merkatariek bere garaian eta baldintzak zirela eta, tira-bira ugari izan zen duela 17 urte Udalaren eta merkatarien artean.

**Super BMren itxiera**

Negozio aldaketa txiki batzuk tarteko sei saltzailerekin jarraitzen du beraz Oxirondoko azokak. Bigarren solairuan dagoen labandegia izan ezik, beste bostak beheko solairuan daude. Orain dela zortzi bat urte sotoan zegoen SuperBM kendu zutenetik, azokan jende gutxiago dabilela diote saltzaileek. Zapatuetan izaten da jende gehien: egun horretan etortzen dira baserritarrak eta bakailaoa, gozokiak, fruta edota Extremadura aldeko txorizo eta urdaiazpikoak ekartzen dituztenak. Beste saltzaile batek eguenean aipatu zigunez, baserritarrak astean zehar ere egun batez gutxienez etortzeko egin zitzaien proposamena ezertan geratu da. Arrasaten, esaterako, eguazten eta egubakoitzetan joaten dira hango azokara.



Azoka 1994an zabaldu zuten.

**DATUA**

**6**

SALMENTA POSTU

24 posturendako tokia eta 6 besterik ez daude zabalik. Pol-Pol elkarteari laga diote bigarren solairuko lokal bat.

**Azoka Miguel Altunara?**

Orokorrean gustura dira merkatariak azokarekin, baina zertxobait gehiago dinamizatzea botatzen dute faltan. Behin Miguel Altuna zaharra hutsik geratzen denean, azoka Ibargaraira eramatea eta azokako eraikinean auditorioa egitea aztertu zuen aurreko udal gobernuak. Iaz merkatariekin elkartu ziren hori aztertzeko. Ez da merkatarien gustuko proposamena izan. Aparkalekua ondoan, leku egokian daudela eta tokiz aldatzeak berriro hutsetik hastea suposatuko lukeela diote.

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna
Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak
Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 39 53

TELEIXA
BILTEGIAK
Eraikuntza
materialak
Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

Mujika
gozotegia
Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak
Artekalea 3 BERGARA
943 76 10 34

GURIA
Taberna
Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34

PINTXOAK eta
OGITARTEKOAK
SEKULAKO MARTXA!!
EUXEBIO II
Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

**Manex Azula** | Snowboard riderra

# "Pena izan da, labaindu eta lurrera joan naiz txanda erabakigarrian"

- 'Sloop-style' proban finalerako sailkatu ostean, jausi egin zen Azula
- Aurrerago egoteko aukerak izan arren, balorazio positiboa egin du

**XABIER URTZELAI** | BERGARA

Manex Azulak (Bergara, 1995) ez ditu Joko Olinpiarrak nahi moduan amaitu. Atzo goizean jokatu zuten *sloop-style* izeneko proba, eta, hasierako kanporaketa gainditu ostean, hemezortzi rider onenen artean zegoela, jaitsiera erabakigarrian labaindu eta lurrera erori zen. Txanda amaitu eta berehalakoan erantzun zuen Goienaren telefono deia. Ez zegoen pozik, baina esperientzia aldetik egunotan bizi izandakoa oso positiboa izan dela azpimarratu zuen.



Manex Azula, eskuman, espedizioko kideekin, Innsbrukera bidean. | GOIENA

**Pena, goizeko lehenengo orduan izandako sentsazio onak ez dituzulako jaitsiera erabakigarrian errepikatu.**

Ba bai, penagarria izan da, goizeko kanporaketa saioan oso gustura ibili naizelako eta zirkuitua oso egoera onean zegoelako. *Feeling* ona nuen.

**Lehenengo kanporaketa gainditu duzu.**

Bi multzotan banatu gaituzte, eta multzo bakoitzetik lehenengo bederatziek egiten zuten aurrera. Hor sailkatzea lortu dut, eta finaleko saioan 18 lagun geunden. Ez dut esango dominaren bat irabazteko espero nuenik, oso maila handia zegoelako, baina lehenengo sei edo zortzi onenen artean egoteko moduan nengoela uste dut.

**Eta jaitsiera erabakigarrian, labaindu eta lurrera.**

Bai, halako probetan gerta daitekeen gauza bat da, kurba batean labaindu naiz eta konturatu orduko lurrean nintzen. Lurretik altxa eta aurrera jarraitu dut, baina apur bat beherago beste akats bat egin eta saltoa zegoen lekura abiadura barik iritsi naiz; salto hori trukorik egin barik pasatu behar izan dut.

**Hori da egindako lan guztia karta bakarrera jokatzea.**

Horrelakoak dira proba hauek, ezin zaio buelta gehiago eman, nahiz eta pena handia hartu dudan. Dena dela, finalera sailkatu izana garrantzitsua da niretako. *Half pipe* proban oso gutxigatik ezin izan nintzen finalerako sailkatu (19.a izan zen, eta 18 sailkatzen ziren) eta oraingoan lortu dut, nahiz eta aurrerago egon nahi nuen. Dena dela, horrelakoetatik ere asko ikasten da; oso esperientzia ona bizi izan dut egunotan.

## "Zirkuitua gustuko nuen, oso egoera onean zegoen, eta 'feeling' ona nuen"

## "Olinpiar Jokoetan egotea garrantzitsua da babesleei begira"



Manex Azula, *half pipe*-ean saioa egiten. | GOIENA

**Eta orain?**

Orain oporrak. [Barre] Urtarrilaren 23ra arte hemen egon behar dugu, egun horretan egingo dutelako Joko Olinpiarretako amaiera ekitaldia, eta bertan izan behar dugu. Lasai ibiltzeko aprobetxatuko dugu.

**Espainiako selekzioak snowboardean lehiatzeko ordezkari bakarra bidali du gizonezkotan, zu zeu; ordezkari bakarra bidaltzea ez da oso apustu sendoa, ala?**

Bueno, egia da beste selekzio batzuetatik jende gehiago bidali dutela, selekzio indartsuak egon direla eta ni bakarra naizela gizonezkoen modalitatean –emakumezkoetan, berriz, Sara Egibar lehiatu da, hori ere euskalduna–. Mundu mailako 40 onenak batu dituzte, eta horien artean egotea oso pozgarria da; oso maila handia egon da hemen.

**Zelan aukeratu zaituzte Joko Olinpiarretarako?**

Azken urtean Europako Kopako probetan egindako lanagatik; Hautatzaileek hori hartu dute kontuan selekziorako aukeratzeko orduan.

**Joko Olinpiarrak amaituta, datozen hilabeteotarako asmorik?**

Egia esateko, ezin dezaket gauza handirik aurreratu, gogor entrenatzen segitzeko asmoa daukadala. Elur falta dago Europako eski estazio gehienetan; esaterako, Austrian txapelketa bat egin behar genuen, baina bertan behera geratu da arazo horregatik, elurrik ez dagoelako. Horrenbestez, ez dakit aurrerantzean ze txapelketa izango dugun.

**Zu bezalako gazte batendako, zer da Joko Olinpiarretan egon izana?**

Oso garrantzitsua da, kirol honetan babesleei esker egiten dugulako aurrera, eta horretan ere laguntzen du; hau da, ezagunago izaten.

# Eneko Mugurutzaren txanda martitzenean

**X.U.** | BERGARA

Bergarako lau t'erdiko Soraluce sariak aurrera segitzen du, eta datorren martitzenean, hilak 24, iritsiko zaio Eneko Mugurutzari txapelketara sartzeko ordua. Haren lehengusu Ander Mugurutzak ondo gainditu zuen torneoko lehenengo kanporaketa, eta datorren astean atseden izango du.

Aurreko koadroetako lehian Eneko Mugurutzak Otamendi izango du kontrario, eta martitzeneko bigarren partidua izango da eurena. Lehenago (Munizipalean 19:30ean), Olaetxeak eta Bilbaok jokatuko dute kanporaketa.

Datorren asteko partiduekin amaituko dituzte Soraluce sariko kanporaketa partiduak, urtarrilaren 31tik aurrera final-zortzirenak hasiko dituzte-eta. Hala, iazko onenek orduan hasiko dute torneoa.

**Martitzeneko emaitzak**

Joan den martitzeneko kanporaketari dagokionez, Antsotegik egin izan zuen partidua jokatu, baina Peñasek ezin hobeto bete zuen hark utzitako hutsunea, Artolak 10 tanto baino ezin izan zituelako egin. Arratsaldeko bigarren partidua ez zen askoz ere berdinduagoa izan, Etxanizek 22-10 irabazi zion-eta Andreuri.

## Gure Auzuneren kontra jokatuko du Soraluce BKEk

Joan den astean Urdulizen kontra garaipen txukuna eskuratuta, asteburuan sailkapenean erditik atzera dagoen beste talde baten kontra jokatuko dute Josetxo Muniategiren mutilek (Zapatua. 18:30. Gasteiz). Hamargarren postuan sailkatuta, Bergarakoek geroago eta urrunago dituzte jaitsiera postuak.

## Hirugarren dagoen Irungo taldearen bisita Labegaraietan

Easoren kantxan hiru puntuko aldeagatik galdu ostean (53-50), Gipuzkoako senior mailan hirugarren postuan dagoen Carnicas San Marcial Irun taldearen bisita izango dute domeka arratsaldean Labegaraietan (18:15). Etxekoak hamaikagarren postuan daude, hemeretzi puntuekin.

Kayak Taberna
Gosari bereziak
09:00etatik zabalik!
• Afariak
• Plater konbinatuak
• Ogitartekoak
• Hanburgesak
• Sandwichak
• Entsaladak
Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11

Bizkotxoak, erreilenoak eta tostoiak
Larrañaga
San Pedro, 9 - Teléfono 761051
R.S.I. 209374 - SS
BERGARA

Juantxo Urbieta | Dantza irakaslea

# "Kanpoko dantzak gora doaz eta hemengoak, berriz, behera"

Jardunek euskal dantzen ikastaroa antolatu du; otsailaren 1ean hasiko da

MIRIAN BITERI | BERGARA
Jardun euskara elkarteak euskal dantzen ikastaroa antolatu du. Eskola horietan irakasle lanetan ibiliko den Abarka dantza taldeko Juantxo Urbietarekin egon gara. Ikastaroa otsailaren 1ean hasiko dela eta ekainera arte iraungo duela jakinarazi digu, besteak beste.

**Aurten ere animatu zarete dantza ikastaroa egitera...**

Hala da. Orain dela sei urte hasi ginen urte erdi inguruko iraupena duten horrelako ikastaroak antolatzen, eta, harrera ona izaten dutenez, ostera ere egitea erabaki dugu. Dagoeneko zabalik dago izen-ematea; Jardunek Errotalde jauregian duen egoitzan eta 943 76 36 61 telefono zenbakian eman daiteke izena. Edozeinek parte har dezake: hutsetik hasten denak, dagoeneko dantza egiten dakienak... Adinari dagokionez, ez dago mugarik.

Aurten, dena dela, arau berezia jarri dugu: hain justu ere, behin ikastaroan izena emanez gero, bost hilabeteko konpromisoa hartu behar da. Orain arte jendea izena eman eta lehenengo bi hilabeteetan joaten zen eskoletara, eta gero, ez zen ostera ere bueltatzen. Gertatzen zena zen maiatza iristen zela eta 15 lagunendako hiru irakasle geundela. Hori ekidin nahi dugu arau horrekin; seriotasuna eman nahi diogu ikastaroari.


Juantxo Urbieta. | EDU MENDIBIL

## "Izena emanez gero, bost hilabeteko konpromisoa hartu behar da"

**Zenbat balio du ikastaroak?**

Jarduneko bazkideak direnek hilean 14 euro ordaindu beharko dituzte (ikastaro osoa 70 euro) eta gainerakoek, 16 euro hilean (ikastaro osoa 80 euro).

**Noiz hasiko dira eskolak?**

Otsailaren 1ean. Betiere, eguaztenean eskainiko ditugu eskolak, 19:30etik 21:00etara. Zabalotegi aretoan izango dira aurten. Dantzei dagokienez, besteak beste, porrusalda, fandangoa, arin-arina eta aurreskua dantzatzen ikasiko dute partaideek. Aurreskua zelan dantzatzen den jakitea oso garrantzitsua dela iruditzen zaigu; gaur egun, gertuko baten ezkontzan dantzatzeko ohitura dago, eta jendeak oso gustura hartzen du.

**Oker ez banago, Abarka dantza taldeko hiru irakasle ibiliko zarete ikastaro horretan, ezta?**

Hala da; hain justu, ni neu, Juantxo Urbieta, nire alaba Janire Urbieta eta Jon Arrillaga izango gara. Ikastaro lasaia eta pertsonalizatua izatea nahi dugu, eta, horretarako, ezinbestekoa da hainbat irakasle egotea. 30 lagun inguru izanda, irakasle bakar batekin ikastaroa ez dugu oso ondo eskaintzen: hutsetik hasten direnak dakienari jarraitu ezinda ibiltzen dira, eta, hortaz, urduri jartzen dira eta presionatuta sentitzen dira. Zabalotegin hainbat gela dauzkagu, eta, hiru irakasle garenez, banatzeko aukera daukagu. Azken finean, esan dezakegu bakoitzari egokitutako eskolak eskaintzea dugula helburu.

**Nola ikusten dituzu euskal dantzak?**

Behera doa. Kanpoko dantzak gora doazen neurrian, gu, berriz, behera. Hortaz, dei egiten dugu ikastaroan parte hartzera, ikasteaz gain, gimnasia ere egiten delako. Ikastaroa egiteko, gutxienez, 20 lagun behar dira.

# AC/DC talde mitikoaren klasikoak entzungai bihar, zapatua, Tartufon

M.B. | BERGARA
Powerages talde bilbotarrak Bon Scotten garaiko AC/DCren klasikoak maila gorenean ipiniko ditu bihar, zapatua, gauean, Tartufon. Kontzertua 23:00etan hasiko da eta sarrera debalde izango da.

Powerages taldearen atzean, Ehiztari, Positiva, Jane Doe, eta Macarrada taldeetan ibilitako musikariak ditugu. 2009. urtean osatu zen taldea. Hasieran, Iurgi Latxa (gitarra jotzailea) eta Miguel Moral (abeslaria) lagunen arteko proiektu xumea izan behar zena, apurka indarra hartzen joan zen, eta handik gutxira, Eritz Martinez (bateria jotzailea) eta Rafael Moral (gitarra jotzailea) sartu ziren taldean. 2010. urte amaieran, berriz, Elier (baxua) heldu zen Powerages taldera.

**Kantu esanguratsuenak**

Australiako bandaren kantu esanguratsuenak jo eta agertoki gainean musika emanaldi dibertigarria egiten du boskote bilbotarrak. Hala, besteak beste, *Dog eat dog*, *Dirty deeds done dirt cheap*, *Hell ain't a bad place to be*, *Whole lotta rosie* eta *Highway to hell* abestiak entzun ahal izango dira.


Boskote bilbotarra. | GOIENA

# Jesus Valenciak 'La ternura de los pueblos' aurkeztuko du gaur

M.B. | BERGARA
Jesus Valenciak idatzitako *La ternura de los pueblos. Euskal Herria internacionalista* liburuaren aurkezpena egingo dute gaur, egubakoitza, gaztetxean. Valenciak berak gidatuko duen ekitaldia 18:30ean hasiko da. 350 orrialde dituen liburu horretan, herrialdeen arteko elkartasuna jorratu du idazleak. Bidaian eroango ditu irakurleak (euskal nazionalismoaren jatorrietarik gaur egunera arte) askotariko herri eta borroketatik (Euskal Herria, Irlanda, Nikaragua, Guatemala, Kuba, Palestina, El Salvador eta Sahara, besteak beste), non euskaldunek bizitzaren onena eman duten, baita euren bizitza bera ere. Aurkezpenaren ondoren galderak egiteko aukera izango da, Valenciarekin solasaldia zabalduta.

**Dinamika berria**

Gaztetxeko Angiolillo liburutegiak antolatu du esandako hitzaldia. Horren harira, jakinarazi dute aurrerantzean liburuen aurkezpen gehiago egiteko asmoa dutela eta Valenciarena dinamika berri horren lehen ekitaldia dela.

## Bergarako Udal Musika Bandaren kontzertua etzi

Bergarako Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko du etzi, domeka, herriko Udal Pilotalekuan. Alfredo Gonzalez Chirlaque bergararrak zuzenduta, bost pieza joko dituzte emanaldi horretan musikariek: hain justu ere, Pasqua Marquinaren *Certamen levantino*, Satoshi Yagisawaren *Moses and ramses*, Charles-François Gounoden *Funeral march of a marionette*, Jose Maria Usandizagaren *Las Golondrinas* eta Wiily Fausten *On broadway* kantuekin gozatu ahal izango dute zaleek. Esandako kontzertua 12:30ean hasiko da.

## Ibai Nikolairen eskutik didjeridu ikastaroa dute bihar gaztetxean

Datozen asteotan askotariko ikastaroak egingo dituzte gaztetxean; esaterako, bihar, zapatua, Ibai Nikolai musikari oiartzuarrak eskainiko duena dago. Urteak daramatza australiar aborigenen didjeridu izeneko musika tresna jotzen, eta bihar, esandako instrumentuari buruzko oinarrizko azalpenak eskainiko ditu. Bi orduko ikastaroa izango da, 17:30etik 19:30era.

Horretaz gainera, taila, euskal dantza eta salsa ikastaroak ere antolatu dituzte. Interesa dutenek gaztetxean dituzte bete beharreko orriak.

sane fisioterapia zentroa
Ane Remedios Sanchez
Ane Coranti Gabilondo
Ibargarai 35
20570 Bergara
Tel.: 943 25 24 40
sanefisioterapia@hotmail.es
Zergatik egiten dituzu abdominalak?
Zer lortu nahi duzu?
Ezagut ezazu zer dagoen ariketa hauen atzean eta zer egin zure helburuak lortzeko (estetikoak edo osasunarekin loturikoak)

**Eguna:** Ostegunean, urtarrilaren 26an, 18:30ean
**Lekua:** Migel Altuna Institutua (aretoa) – BERGARA
**Hizlariak:** Ane Coranti eta Ane Remedios fisioterapeutak
*Hitzaldia gaztelaniaz izango da.*

# Ikuskizunetarako sarrerak Interneten eta zinemarako makina digital berria

## Udaleko Kultura Sailak berrikuntzak aurkeztu zituen atzo kultura etxean

**MIREIA BIKUÑA** | OÑATI
Udaleko Kultura Sailak bi berrikuntza aurkeztu zituen atzo: Santa Ana antzokian egingo diren ikuskizunetarako sarrerak Internetez erosteko aukera *www.barrabarra.eu* atarian eta zinema emanaldietarako makina digital berria. Mikel Biain alkateak, Manu Egaña Kultura zinegotziak eta German Meabe Kultura teknikariak aurkeztu zituzten.


Manu Egaña zinegotzia eta Mikel Biain alkatea, zinema emanaldietarako bi makinekin. | MIREIA BIKUÑA

**Zenbakitutako sarrerak**
"Udalera heldu ginenean garbi geneukan ikuskizunetarako sarrerak Internet bidez erosteko aukera aztertu behar genuela. Egin dugu, eta emaitza hauxe da: aurrerantzean *www.barrabarra.eu* atarian eros daitezke", esan zuen Manu Egañak.

Udalak 3.000 inbertsioa egin behar izan du ataria kudeatzen duen Acting enpresak Santa Anako sarrerak salgai ipintzeko. "Erosleak atarian sartzen direnean Oñatiko ikuskizuna aukeratu eta Santa Anako planoan aukeratu beharko ditu sarrerak. Zenbakitutako jarlekuak izango dira. Ordainketa egin ahal izango dute Visa txartelarekin edo *Paypal* bidez. Internet bidez saltzen ez diren sarrerak leihatilan ipiniko ditugu", esan zuten.

Internet bidez saltzen den sarrera bakoitzaren %7 ataria kudeatzen duen enpresarendako izango da. Erabiltzaileak ohitu arte, Udalak hartuko du bere gain kostu hori.

Udalak Santa Anan antolatzen dituen ikuskizunetarako sarrerak sarean ipintzeak hainbat onura ekarriko dizkio erabiltzaileari eta Oñatiri. "Alde batetik, gure ikuskizunetara edozein herritar etor daiteke: Donostiakoa, Hernanikoa edo Arrasatekoa. Beste alde batetik, gure eskaintza zabaltzeko aukera ematen digu", esan zuen Egañak.

Bada, *www.barrabarra.eu* atariaren alde egin dute "kudeaketa gustuko" dutelako eta kutxazainetan baino askoz merkeagoa delako. "Eskarmentu handiko enpresa da. Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak, Durangoko Plateruenak, Donostiako Dokak, Bartzelonako Euskal Etxeak eta Lasarteko Udalak haiekin egiten dute lan", esan zuten aurkezpenean.

**Zinemarako makina digitala**
Bestalde, teknologia berrietara egokitzeko zinema emanaldiak egiteko makina digitala erosi du Udalak. 57.000 euroko aurrekontuarekin, 2D formatuan emateko makina berria erosi du –Eusko Jaurlaritzak %30 finantzatuko du.

Aurrerantzean bi formaturekin egingo dute lan kultura etxeko zinema-aretoan: 35 mm-koa eta digitala. "Oraingoz, bi makinak erabiliko ditugu, eta, ekartzen dugun pelikularen arabera, bat edo beste erabiliko dugu", esan zuten.

Digitalizazioak dituen abantailak asko dira; besteak beste, pelikulen kopiak lehenago eskuratzea eta etorkizunean 3D pelikulak ikusteko aukera izatea. "2D makina erosi dugu, hiru dimentsiokoa oso garestia zelako. Dena den, etorkizunean 3D pelikulak behar baditugu, makina berriari beste gailu bat ipiniko diogu", esan zuten.

### Internet bidezko lehen ikuskizuna

Tanttakak hilaren 27an eta Teloncillok hilaren 29an egingo dituzten ikuskizunetarako sarrerak eskuragarri daude *www.barrabarra.eu* atarian.

Tanttaka taldeak *Contra el viento norte* antzezlana egingo du, 22:30ean. Hutsegite baten ondorioz emakume baten e-maila jasotzen duen psikologia irakasle baten eta emakumearen artean sortzen den hartu-emanaz egiten dute berba. Joseba Apaolatza, Itziar Atientza eta Kike Diaz de Rada dira protagonistak.

Bestalde, Teloncillo taldeak 3-6 urte arteko umeendako *Los animales de Don Baltasar* ikuskizuna egingo du hilaren 29an, 17:00etan. Hitzik gabeko antzezlana da: onomatopeiak, irudiak eta musika dira nagusi.


Itziar Atientza aktorea. | GOIENA

# Martxoan hasiko dituzte autoestimu ikastaroak

## Interesa duten emakumeek Berdintasun Departamentuan eman behar dute izena

**M.B.** | OÑATI
Udaleko Berdintasun Sailak emakumeendako hainbat ikastaro antolatuko ditu; hain justu ere, autoestimuaren eta tratu onen eta txarren gaineko ikastaroak.

Martxoan hasiko dira, eta, oraingoz, izena emateko deialdia egin dute. Interesa duten emakumeek Bidebarrietako zerbitzura dei dezakete (943 03 77 00 telefonora), informazioa eskatzeko edo izena emateko, hilaren 30a baino lehen. Ondoren, sortzen den talde kopuruaren arabera, ikastaroen ordutegiak eta egunak zehaztuko dituzte. Talde bakoitzean, gehienez, 15 emakume onartuko dituzte.

Edurne Izagirre eta Amaia Aldama psikologoak izango dira irakasleak, eta 27 orduko ikastaroak emango dituzte.

**Hiru ikastaro**
Berdintasun Sailaren asmoa da hiru talde sortzea: azken urteotan autoestimu ikastaroa lantzen ibili direnekin, hastapeneko autoestimu ikastaroan parte hartzeko izena ematen dutenekin eta bikote harremanen gaineko ikastarokoekin. Bada, azken horri *Gure eguneroko harremanetan jakin dezagun zer den tratu on eta tratu txar fisiko eta psikologikoa* izena ipini diote. Besteak beste, dependentzia emozionala zer den, harreman osasuntsuak nola izan, tratu onak eta tratu txarrak zeintzuk diren eta beste jorratuko dituzte.

Ikastaroetan teoria landuko dute eta ondoren, egunerokotasunean sor daitezkeen egoeretan nola jokatu ikasiko dute emakumeek.

# Asobal ligako partidua jokatuko dute bihar Zubikoan

**M.B.** | OÑATI
Urtero moduan, punta-puntako eskubaloiaz gozatzeko aukera izango dute zaleek. Aloña Mendiko eskubaloi sailak Asobal ligako bi talde gonbidatu ditu: Helvetia Anaitasuna eta Balonmano Huesca taldeek elkarren kontra jokatuko dute bihar, zapatua, 19:00etan, Zubikoan.

Sarrerak bost eurotan salduko dituzte.

**Lagunartekoak**
Asobal ligako taldeek atsedenaldia dute hilaren 25era arte, Serbian Europako eskubaloi txapelketa jokatzen dihardutelako. Tarte horretan lagunarteko partiduak jokatzen dituzte taldeek, eta horietako bik erakustaldia egingo dute Oñatin.


JULIO CALLEJA

## Hondakinen prebentzioari buruz

Debagoieneko Mankomunitateak hondakinen sorreraren prebentzioaren gaineko erakusketa jarri du kultura etxean. Domekara arte ikus daiteke, 18:00etatik 20:00etara arte. Zazpi ataletan banatu dute, eta bakoitzean, prebentzioaren eta berrerabilpenaren alderdi bat lantzen dute. Herritar guztiendako dago zabalik. Gainera, asteon, DBHko bigarren mailako ikasleek bisita bereziak egin dituzte.

# Ate irekiak eta matrikula epea zabalik ludotekan



Txalokako umeak pilotaz betetako igerilekuan. | TXALOKA

## Hilaren 24an eta 26an egongo da zabalik Txaloka, herritarrek barrutik ezagut dezaten

**MIREIA BIKUÑA** | OÑATI

Txaloka ludotekak hainbat ekintza ditu esku artean: ikasturtearen bigarren aldirako matrikula epea zabalik eta ludoteka barrutik ezagutzeko ate irekiak.

Otsailetik ekainera arte ludotekak ematen duen zerbitzua erabili gura dutenek orain dute aukera. Izena emateko aukera dute, aurrenekoz, 2009an jaiotako umeek. Nagusienak 2002ko neska -mutikoak dira. Informazioa eskatu edo izena emateko Ludoteka zabalik dago astelehenetik egubakoitzera, (16:30-19:30).

**Ate irekiak**

Bestalde, ludoteka barrutik ezagutu gura dutenendako ate irekien egunak egingo dituzte. Hori horrela, hilaren 24an eta 26an, herritar guztiek izango dute aukera Txaloka ezagutzeko. Deialdia, bereziki, haurrak dituzten gurasoendako da. Hala gura badute, euren seme-alabekin joan daitezke ludotekara.

**Beste ekimen batzuk**

Txaloka ludotekako arduradunak gainera, jostailuak konpartitu eta etxean baztertuta dauden jostailuei bizia emateko hainbat egitasmo ipiniko dituzte abian datozen egunetan.

*Truki-truke* programaren bidez, egunean, euren jostailuak trukatzeko aukera izango dute umeek. Hala, aukera izango dute jolas berriak ezagutzeko, besteekin konpartitzeko eta ardurak hartzeko.

Bestalde, etxean dituzten jostailuak ludotekara eroateko aukera izango dute. *Nirea zuretzat* egitasmoarekin, euren jostailuak lagunei erakusteko aukera izango dute.

Azkenik, *Berpiztuz* delako ekintzarekin, etxean baztertuta dituzten jostailuei bizia emango diete ludotekan.

**Irratsaioa**

Ludotekako neska-mutikoek hedabideak ezagutzeko aukera izango dute. Hain zuzen ere, Oñati Irratian irratsaioa egingo dute. Elkarlanean, euskal kantu eta jolasen inguruko irratsaioa egingo dute. Helburua da euskarazko kantu berriak ezagutzera eman eta kantu zaharrak berreskuratzea.

# Sei urteko ogro txikiaren nondik norakoak, Malirako dirua batzeko

## Elkar Heziko guraso elkarteak antolatu du Gorakada taldearen emanaldia: bihar, Santa Anan

**M.B.** | OÑATI

Elkar Heziko guraso elkarteak antolatuta, Gorakada antzerki taldeak *Ogro txikia* delako antzezlana egingo du bihar, 17:00etan, Santa Ana antzokian. Sarrerak euro baten salduko dituzte, eta batutako diru guztia Joxan Larrañaga parrokoak Malin duen elkartasun proiektura bidaliko dute. 5 urtetik gorako neska-mutikoendako emanaldia da.

**Aktore ezagunak**

Suzzane Lebeau idazlearen testu baten oinarrituta, Agurtzane Intxaurragak zuzendu du antzezlana. 6 urteko ogro txiki baten istorioa kontatzen du. Aitarengandik haragia xamur lortzeko bideak ikasi ditu eta amarengandik, munduarekin bakean bizi izateko grina. Baina eskolara joateko garaia heltzen zaionean, bere izaera basatia erakutsiko du.

Iñake Irastortza, Aritza Rodriguez eta Javi Tirado izango dira protagonistak.

**Ikasleen lana**

Gorakada taldearen antzezlanarekin, askotariko lanak egingo dituzte Elkar Heziko ikasleek: Maliko proiektuaren gaineko panelak egin, antzezlan bat egiteko behar diren elementuak aztertu, egilearen biografia landu, Fran Lasuenen musika ikertu, antzezlanaren gaineko hausnarketa egin...



*Ogro txikia* antzezlaneko une bat. | GOIENA

# Pop eta folk doinuekin girotuko dute gaur Antton taberna Andrakan taldekoek

**M.B.** | OÑATI

Gaur, egubakoitza, pop eta folk doinuek hartuko dute Antton taberna. Andrakan taldeak kontzertua egingo du, 20:00etan.

Bost lagunek osatzen dute taldea: Iban Urizar, ahotsa eta gitarra akustikoa; Patxi Zabaleta, ahotsak, gitarra elektrikoa, banjoa eta ukelelea; Carlos Cebrian, mandolina; Andoni Muxika, baxua; eta, Rafa Furnier, bateria eta ahotsak. Pop eta folk kutsua duen musika egiten dute. Klasikoak diren musika tresnak erabiltzen dituzte, baina baita folk inguruko beste musika tresna batzuk ere; besteak beste, mandolina, banjoa, tronpeta...

Gehienez ere, hiru minutuko kantuak egiten dituzte: kantu goxoak eta lasaiak; folk eta pop ukituak dituzten abestiak, entzuleak erakartzeko.



Andrakan taldeko kideak. | GOIENA

## OHARRAK

**HITZALDIA**

Deustuko Unibertsitatearen gaineko informazioa emango dute Zuazola Institutuan, hilaren 24an, 18:00etan. Bestalde, hilaren 23an, Irati Jimenez idazleak berbaldia egingo die Batxilergoko lehenengo eta bigarren mailetako ikasleei.

**PLASTIKO BILKETA**

Hilaren 24an egingo dute baserrietan sortutako plastikoen urteko lehen bilketa. Oñatin lau lekutan utz daitezke plastiko zuriak eta beltzak: Zañartun Zuazola inguruan, ETEO atzealdean, Murgiako Asentzio ermitaren ondoren eta Olabarrietako autobus geltokiaren parean.

**ESKI IRTEERAK**

Astelehenetan hartzen dituzte eski sailak antolatuko irteeretarako izenak: Aloña tabernan, 19:00etatik 20:00etara arte.

## BETERANUAK

**EMAITZAK "B" TALDEA**

| | |
|---|---|
| Joxely-Indar 85 | 2-0 |
| Zorrobero-Bundeswehr | 3-1 |
| Gibel Boys-Sasquatch | 2-0 |
| Xaguxar-Ankarteko | 4-0 |

**SAILKAPENA "A" TALDEA**

| | TALDEA | P | J |
|---|---|---|---|
| 1 | Kalañatasaray | 12 | 5 |
| 2 | Dollygans | 10 | 4 |
| 3 | Etxaixat | 10 | 5 |
| 4 | Albok | 9 | 5 |
| 5 | Lozorromo | 7 | 4 |
| 6 | Txarrixak | 7 | 4 |
| 7 | Nandrolona | 3 | 5 |
| 8 | Txuskos | 0 | 4 |
| 9 | Paketinaikos | 0 | 4 |

**SAILKAPENA "B" TALDEA**

| | TALDEA | P | J |
|---|---|---|---|
| 1 | Xaguxar | 12 | 5 |
| 2 | Zorrobero | 10 | 5 |
| 3 | Gibel Boys | 10 | 5 |
| 4 | Joxely | 9 | 5 |
| 5 | Indar 85 | 7 | 5 |
| 6 | Bundeswehr | 4 | 5 |
| 7 | Sasquatch | 3 | 5 |
| 8 | Ankarteko | 1 | 5 |

**ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK**

A TALDEA, 6. jardunaldia

**Zapatua 13:30** Txuskos-Paketinaikos

**Zapatua 14:30** Kalaña-Lozorromo

**Zapatua 18:30** Albok-Dollygans

**Domeka 13:30** Etxaixat-Txarrixak

**Atsedena:** Nandrolona

**Arduraduna:** Sasquatch

### Atzeratutako partidua

A taldearen txanda da aste bukaeran. Partidurik aipagarrixena sailkapeneko azken biek elkarren kontra jokatuko dutena da. Txuskosek eta Paketinaikosen denboraldiko puntuak lortzeko aukera izango dute. 0 puntu dituzte.

# Emakumeak lan esparruan sartzeko prestakuntza saioak antolatu dituzte

## Kultura arteko prestakuntza da, etorkinendako eta bertakoendako

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

Emakumeendako prestakuntza saioa eta ordaindutako praktikak antolatu ditu A4 Lan Talde izeneko taldeak. Hainbat herritarrek osatutako taldea da, eta Udalaren eta Caritasen laguntza jaso dute.

**Zailtasunak lanerako**

Etorkinendako Aretxabaletan argitaratzen duten *Hemen* aldizkariko kideek –tartean Paloma Martinez mexikarra– kanpotik etorritako emakumeek gurean bizi duten egoera ezagutu dute, eta konturatu dira latinoamerikarrak ez direnendako oso zaila dela lan esparruan sartzea: "Etxeetan garbitasun lanak egin ditzakete, baina bertako ohiturak, garbitasunerako produktuak eta tresnak... ez dituzte ezagutzen eta zaila da aurrera egitea".

Hiru behar atzeman dituzte: batetik, formazioa; bestetik, lanpostuak; eta hirugarrena, etorkin horiek dirulaguntzekin konformatu beharrean lan esparruan sartzeko garrantziaren kontzientzia sortzea. Eta hortik etorri da prestakuntza saioak antolatzea.

**Kalitatezko zerbitzua ematea**

Etxeko garbitasunaren gaineko formazio saioak otsailean hasiko dituzte, Basotxo erretiratuen egoitzako eraikinean. 15 lagunendako daukate lekua eta izena emateko epea urtarrilaren 25ean bukatuko da. Udaletxera jo behar da horretarako, edo, bestela, honako telefono zenbakira deitu: 630 24 78 71. Ikastaroa ez da etorkinendako bakarrik, bertako emakumeei ere zabalik dagoela argi utzi gura dute antolatzaileek. Izena emandako guztiak elkarrizketatu egingo dituzte gero, eta kasu bakoitzaren egoera aztertuko dute.

Prestakuntza saioak otsailaren 11n hasiko dituzte (astean hiru egunean bi ordu), eta hainbat gai landu adituen eskutik: lanerako kultura, berdintasuna, ingurumena, lanlekua, lanerako tresnak eta familiako zaintzak. Horiek guztiak lantzeko Maite Zubillaga Kurtzebarri eskolako jantokiko langilea; Rebeca Garcia, Aretxabaletako emagina; eta Luz Mari Rojas, bidezko komertzioan jakituna izango dituzte irakasle, besteak beste. "Kalitatezko zerbitzua emateko gai izan daitezen gertatzea da helburua; hala, garbitasunerako teknikak jasotzeaz gain bertako ohituren berri ere emango diete, tartean zabor moten banaketa. Gainera, konpromisoa hartzearen garrantzia erakutsiko da: baietza ematea, puntualtasuna...", argitu du Martinezek. Ikasleei, gainera, jarraipena egingo diete tutoreek bai ikasketak egin bitartean, bai praktika sasoian. Martxo eta apiril artean egingo dituzte praktika horiek, herriko etxeetan.


Ikastaroaren antolatzaileak Maider Aizkorbe zinegotziarekin (erdikoa). | M.A.

### Ume txikiak dituzten familiei eskainia

Praktikak egingo dituzte, gero, 0 eta 5 hilabete arteko umeak dituzten familietan. Martxoan hasita hilabeteko praktikak izango dira: astean bi egunetan, bi ordu (16 ordu). Eta ikasleen ordainsaria ez dute familiek ordainduko. "Ume jaioberridunek eskertuko dute laguntza", dio Martinezek: "Era berean, erakutsi gura diegu familiei kalitatezko garbitasun zerbitzua izan dezaketela prezio onean, eta, hala, lana emango dietela beharrean dauden emakumeei".

# Uhin elektromagnetikoekin eta zaratekin kezkatuta agertu dira ikasle gazteak

## Eskola Agenda 21 barruan landutako gaiak ziren eta Udalari hainbat eskaera zuzendu zizkieten iaz; martitzenean erantzun zien Lore Martinez zinegotziak

**M.A.** | ARETXABALETA

Hainbat iradokizun egin zizkieten iaz Kurtzebarri eskolako ikasleek udal ordezkariei zaraten, argiaren eta uhin elektromagnetikoen gainean; Eskola Agenda barruan landutako gaiak ziren. Martitzenean elkartu zen Lore Martinez Ingurumen zinegotzia ikasleokin orduko eskaerak erantzuteko.

Santa Kurtz kalea oinezkoendako bakarrik izatea eskatu zuten ikasleek, eta Martinezek ez dela hala izango erantzun arren, hainbat lan egitekotan direla iragarri zien, eta "espaloi zabalagoak egin". Jaietan musika baxuago jartzeko ere eskatu zuten gaztetxoek, eta Martinezek onartu zuen ordenantzarik ez dutela halakoetarako, baina "aztertzeko kontua dela". Bestalde, autobidean zarata ekiditeko panel gehiago Udalak ezin dituela jarri jakinarazi zien, "Aldundiaren ardura" delako errepidea.

Faroletako argia eguzki energiarekin lortzearen gainean jardun zuten gero, eta zinegotziak erantzun "instalakuntza berriak egitea garestia" dela. Hala ere, eskaera Hirigintza Sailera bideratzekotan geratu zen.

Uhin elektromagnetikoekin kezkatuta agertu ziren ikasleak, eta leku publikoetan wi-fiaren ordez kablea jartzeko eskatu zuten. Horrek, baina, diru kostu handia ekarriko lukeela erantzun zien. Bestalde, antena eta tentsio dorreen kokapena zaintzeko arautegia badagoela jakinarazi zien.

Eskola Agenda barruan aztertuko duten hurrengo gaia ere aurkeztu zuten: elikadura.


Kurtzebarri eskolako ikasleak Lore Martinez zinegotziarekin, udaletxean. | M.A.

## OHARRAK

**LETE GOGOAN IZANGO DU JON SARASUAK GAUR**

Loramendi Elkartearen eskutik, Jon Sarasua aretxabaletarrak Xabier Leteren gaineko saioa eskainiko du gaur Arkupen (18:30): *Letez kantuberbetan. Xabierri buruzko interpretaziño bat*. Sarrera debalde da.

**SAN BIZENTE EGUNA**

San Bizente eguna ospatuko dute bihar Areantza auzoan: 17:00etan meza eta gauean afaria Matikua jatetxean.

**ODOL ATERATZEAK**

Astelehenean, hilak 23, hasi eta hurrengo bi astelehenetan, urtarrilak 30 eta otsailak 6, odol ateratzeak egingo dituzte Arabako Odol Bankuko kideek osasun etxean (16:30-20:00).

**HIRIGINTZA KONTUEN GAINEKO BERBALDIA**

Udaleko Berdintasun Saila hirigintza arloko ikerketa egiten dabil –irisgarritasuna, mugikortasuna, segurtasuna...–. Erretiratuen iritzia jasotzeko hitzaldi-tailerra egingo dute martitzenean Basotxon (17:00).

## NIRE USTEZ

**BEÑAT ZAMALLOA**



## Bitik bost

*Gogoa da guztia* leloa ekarri dut gogora gaurkoan, hiruzpalau urteren ostean. Atxabaltarrok kulturarako izan genezakeen lelotzat jo genuen orduan. Gogoak eroango du gaur Jon Sarasua Arkupera *Leteaz kantuberbetan* aritzera; aspaldiko gogoak bideratutako urteetako lanak eta ahaleginak eroango du ostegunean Arkupera Iurgi Etxebarria, helduendako *Eunon* antzeztera; eta gogoak elkartu gaitu bost lagun hurrengo ostiralean kontaketa-musikatuen ikuskizuna gogotsu udaletxe zaharreko atari epelduan aurkeztera (22:30).

Gogoa ez dela dena entzun nuen behin baino gehiagotan leloa aurkezterakoan; eta hiruzpalau urte pasatu direnean, gogoa dela guztia pentsatzen jarraitzen dut, etenik barik gogobetez eta gogoberrituz. Gogoak gidatzen gaitu, oharkabean ere. Kutsakorra da gainera, onerako zein kalterako. Zer ekartzen digu ba opari gogorik ezak?

Gogoa genuen, eta birekin hasitakoan, bost gara orain. Gogoak elkartu gaitu, nahiz ez jakin zehatz zein den gogo hori, nork berea baitu gogoa. Badakigu, ordea, gogo horrek betetzen gaituela eta zenbateraino betetzen gaituen. Gogo horrek pozten gaitu, momentuz, eta bada aski, asko denez. Gogotsu gaude sortzeko eta plazaratzeko, eta gure gogoak eta ilusioak gidatuko eta gogo berrituko gaitu. Gogorik baduzu, gogoan izan eta gogoak elkartuko gaitu.

**"Gogoak gidatzen gaitu, oharkabean ere; kutsakorra da, gainera"**

### Beira birziklatzearen gaineko argibideak emango dituzte bihar

Beiraren birziklapenaren gaineko kanpaina jarri du abian Mankomunitateak, eta bihar gurean izango dira argibideak ematen; Durana kalean jarriko dute karpa (11:30-14:30). Beira birziklatzeko zein prozesu jarraitzen den, zein onura lortzen diren, edukiontzi berdeetan zer sartu behar den... erakutsiko dute.



Musakola Margoak enpresako kideak Gernika plazakoa margotzen. | M.A.

# Euskaraz berba egitera animatuz mezuak zabaltzen dabil Loramendi

**M.A.** | ARETXABALETA

Euskaraz dakitenek ez dutela erabiltzen sumatu dute Loramendi Elkarteko Sustapen Taldeko kideek, eta zera galdetu: "Euskaraz dakienak, gustuz erabiltzeko zer egin?". Hausnarketa prozesua egin ondoren, beste ekintza batzuen artean, herriko hainbat lekutan mezu adierazgarriak idaztea erabaki zuten: "Mezu laburrak, umoretsuak, goxoak…". Eta hona hautatutako lekuak: guraso eta umeak elkartzen diren guneak; tabernak; zerbitzuak; eta kirol-guneak.

Hala, *Jo trague euskeriei!* mezua zabaldu zuten abenduan tabernetan; eta *Erderaz be badakigu!* zerbitzuetan, eskuorrien bitartez. Kartel, pegatina eta esku-orrien diseinuan Haritz Larrinaga aretxabaletarraren laguntza izan dute, "eta ezin hobeto islatu du mezua. Eskerrik asko, Haritz!".

### Astean hirugarren mezua

Asteon hirugarren mezua zabaltzen dabiltza: *Euskeraz badakitzu -ta!* Gurasoak umeekin elkartzen diren guneetako bost hormatan margotuko dute hori: Gipuzkoa, Iralabarri eta Gernika plazetan, bolatokian eta erdigunean.

Mezu horien guztien helburua zein den argitu dute: "Aretxabaletarrek, batez ere euskaraz dakitenek, jakin dezatela hizkuntza uneoro norberak hautatu egiten duela eta euskara gustuz hautatzea goreneko lorpena litzateke. Gogoratu, euskararen etorkizunean gurea da giltza!".

# 'Eunon' antzezlana aurkeztuko du Apropox proiektuak eguenean

Jurgi Etxebarria aktore aretxabaletarrak zuzendutako proiektua da

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

*Eunon* antzezlana aurkeztuko du hilaren 26an Jurgi Etxebarriak zuzendutako Apropox proiektuak. Iaz Elorrioko gaztetxean hasi eta bederatzi bat gaztetxetatik pasatu ostean dator gurera emanaldia, eta aurkezpen ofiziala izango da. Eguenean bi saio egingo ditu (11:00 eta 19:30) eta domekan, hilak 29, azkena (19:30).


*Eunon* antzezlaneko protagonista. | APROPOX

### Lagun eta senideen laguntza

Umeak zaintzeko eszedentzia eskatu Kukubiltxon, eta Apropox proiektua sortu du Etxebarriak: "*Familie Flöz* antzezlan alemaniarra ikusi ostean bururatu zitzaidan. Maskaren bidez egiten dute lan, eta asko gustatu zitzaidan ideia. Talde hartako kide batek maskara horiek zelan egin ikastaroa eman zigun orain dela lau urte, eta ordutik nabil lanean".

Proiektua dela Apropox dio Etxebarriak, eta ez taldea: "Jende asko dago tartean, eta ez dakigu hemen bukatuko duen ibilbidea kontu honek edo aurrera egingo duen". Lagun eta senide askok lagundu diotela onartu du: soinu efektu eta programetan Ander Monederok; jostun lanetan Mari Karmen Etxebarriak eta Rosario Etxenausiak; musika konposatzen Igor San Juanek; kartela diseinatzen Haritz Larrinagak; zuzendari laguntzaile lanetan Beñat Zamalloak, Iam Agorriak eta Paco Gonzalezek; eta ekitaldian teknikari lanetan Juan Carlos Arraitzak.

### Ama eta semea

Maskarak jantzi eta unean uneko istorioak asmatuz ibilbidea hasi zuen proiektu hark *Eunon* antzezlana osatu du. "Komiki eta karikaturetatik gertu dago, baita txotxongiloetatik ere", dio. Eta gaineratu du: "Ondo pasatu eta barre eragitea beste helbururik ez du lanak; gainera, gurean koka daitekeen istorioa da". Ordubetean amaren eta semearen arteko maitasun-gorroto istorioa kontatuko du: "Amaren etxetik alde egin eta bakarrik bizi izatera joan den semearen istorioa da, baina alboko etxean geratu dena". 1980ko hamarkadan oinarritua dago eta *Torrente*-ren umore sarkastikoa sartu diote. Horregatik, "helduendako" dela argitu du.

ARETXABALETAKO
EUSKAL ESKOLA
PUBLIK*A



KURTZEBARRI ESKOLA 2-12 urte
HAUR HEZKUNTZA-LEHEN HEZKUNTZA
Santa Kurtz 19
Tel.: 943 79 00 49
012015aa@hezkuntza.net

**BILERA INFORMATIBOAK:**
**HH eta LHko (2-12 urte)**
Urtarrilaren 25an liburutegian
- 18:00etan euskaraz
- 19:00etan gazteleraz

MATRIKULA EPEA:
URTARRILAREN 30etik OTSAILAREN 10era




goieskola
debagoieneko euskal eskola publikoa

www.goieskola.net

# Herce: "Zerbitzuak eta gastuak diru sarreretara egokituko ditugu"

Atzo egitekoa zen osoko bilkuran bost milioi pasatxoko aurrekontua onartzeko asmoa zuten

**MIRIAN BITERI** | ESKORIATZA

Aurtengo aurrekontua onartzekoak ziren atzo iluntzean egitekoa zen ohiko osoko bilkuran. Aurten, bost milioi pasatxo izango dituzte; joan den urtekoekin alderatuta, jaitsiera nabarmena dute, 6.191.666 euroko aurrekontua onartu zuten-eta 2011rako.

Beñat Herce alkateak atzo aurreratu zigun diru sarreretan beherakada nabarmena izango dela, zerga bilketa eta Gipuzkoako foru fondotik Eskoriatzara bideratuko duten diru kopurua murritzagoa izango direlako. Egoera berria kontuan izanda, honakoa azaldu zuen alkateak: "Dauzkagun zerbitzuak eta gastuak diru sarreretara egokitzen saiatuko gara". Dena dela, gaineratu du azken urteotatik Udalak duen aurrezki zati bat erabiltzeko asmoa dutela, gastu eta inbertsioetan jaitsiera hori horrenbeste igar ez dadin.

Proiektu horren ildo nagusiak azaldu zituen: batetik, aipatu zuen gizarte arloko inguruko gastuak lehenesteko asmoa dutela. Horren harira, esan zuen aurtengoaren antzekoak izango direla horiek. Horrekin batera, murrizketa txikiak egongo badira ere, euskara eta kulturari jaitsiera larregi ez eragiten saiatu direla gaineratu zuen. Azken arlo horien harira, honakoa esan zuen: "Herriak oso ondo baloratzen ditu egiten diren ekintza kultural guztiak". Udal langileen lan baldintzak "ahalik eta egokienak" izan daitezela ere gura dutela nabarmendu zuen.

### Zaldibar eta Atxorrotz

Inbertsio nagusiei dagokienez, Zaldibar antzokiko proiektuari jarraipena emateko asmoa dutela adierazi zuen, baita Atxorrotzeko gazteluaren inguruan dagoen egitasmoari ere.

Bestalde, Hercek gogorarazi zuen aurrekontuak kudeaketa plan batekin lotuta doazela. Horren harira, azpimarratu gura izan zuen "hausnarketa" urtea izango dela aurtengoa. Haren esanetan, gaur egungo zerbitzuak Eskoriatza bezalako herri baterako egokiak diren aztertu beharra dago, eta zerbitzu eta gastu guztien azterketa sakona iragarri zuen.

### Eguenean, bilera

Aurrekontu eta kudeaketa plan horren gainean azalpenak emateko, Udalak komunikazio bilerak deitu ditu. Lehena eguenean, hilak 26, izango da 18:30ean, Ibarraundi museoan. Horra joatea ez dutenendako bigarren bilera antolatu dute hilaren 31ean, 19:30ean, toki berean. Azaroan martxan jarritako Eskoitza prozesu parte-hartzailearekin harira egingo dituzte batzar horiek. Orduan egindako batzarretako ekarpenetatik zeintzuk aukeratu dituzten azalduko dute, besteak beste.

# Gorka Azpitarte presoak barau egin du, kiroldegira joan barik zigortu dutelako

Neskalagunarekin patioan berba egiteagatik hilabeteko zigorra ezarri diote

**M.B.** | ESKORIATZA

Eskoriatzako presoen aldeko taldeak asteon jakinarazi du Gorka Azpitarte preso eskoriatzarrak urtarrilaren 13tik 16ra bitartean baraualdia egin duela Frantziako Poitiers Vivonne espetxean ezarri dioten zigorra salatzeko.

Azaldu dutenez, patioan neskalagunarekin (Vivonnen preso dago hura ere) berba egin zuelako espedientea zabaldu diote eta hilabetean kiroldegira joan gabe zigortu dute. Horrekin batera, eskoriatzarrarekin batera dagoen Eneko Zarrabeitia preso abadiñarrari ere bisita ordu batean beste preso batekin hitz egiteagatik espedientea zabaldu diote, eta bi hilabetez bisitak kristalarekin egitera zigortu dute. Horren harira, gogorarazi dute Frantzian kristalik gabe izaten direla normalean bisitak.


Gorka Azpitarte. | GOIENA

Eskoriatzako presoen aldeko taldearen arabera, espetxeko zuzendariak ezarritako zigor horiek salatzeko, eta, berarekin batera horren gaineko adostasuna lortzeko asmoz batzarra egin ahal izateko lau egunetako gose greba egin zuten esandako egunetan Azpitartek eta Zarrabeitiak.

### "Ohikoak eta neurrigabeak"

Egoera horren aurrean, Eskoriatzako presoen aldeko taldeak "beste behin ere" euskal presoek espetxeetan jasaten dituzten eskubideen urraketak eta "ohikoak eta neurrigabeak" diren zigorrak eta salatu gura izan du prentsa ohar baten bidez; horren harira, dispertsio egoera eta zigor bereziak lehenbailehen amaitzeko eskaera ere egiten du, Gorka Azpitarteri eta Beñat Zarrabeitiari elkartasuna helaraztearekin batera.

Frantziako poliziak 2009ko apirilean atxilotu zuen eskoriatzarra Perpiñanen, ETArekin hartu-emana zuelakoan.

## Indarrean daude taxi zerbitzurako tarifa berriak

**M.B.** | ESKORIATZA

Azaroan taxi zerbitzurako aurtengo tarifak aho batez onartu ostean, urte berriarekin batera indarrean jarri dituzte horiek. Bi tarifa mota daude. Lehenengoak lan egunetan 07:00etatik 22:00etara bitartean dagoena aurreikusten du. Gutxieneko tarifa 3,3055 eurokoa izatea adostu zuen udalbatzak, eta egindako kilometrokoarena 1,0355. Itxaronaldia orduko, berriz, 19,7759 eurokoa da.

Bigarrena egunero 22:00etatik 07:00etara izateaz gain, zapatu, domeka eta jai egunetan 07:00etatik 22:00etara bitarteko tartea ere aurreikusten du. Gutxieneko tarifa berdina izango da horretan; baina egindako kilometroko 1,6516 euro eta itxaronaldi ordu bakoitzagatik 31,0875 euro ordainduko ditu bezeroak.

## OHARRAK

**MIHILUZE TXAPELKETA**
Gaur Mihiluze txapelketa egingo dute Tortolis ludotekan; eguenean, wii txapelketa.

**IRRATIA GAZTELEKUAN**
Asteburuan gaztelekuko irratia jarriko dute abian.

**KIROL HITZORDUAK**
Hiru norgehiagoka jokatuko dira bihar, kiroldegian: 11:00etan, saskibaloiko kadeteetan, Arizmendi-Eskoriatza eta Orioko ikastola lehiatuko dira; 16:00etan, areto futboleko lehenengo erregionalean, Eskoriatza eta Labastida; eta 18:00etan, saskibaloiko seniorretan, Eskoriatza eta Cafes Aitona B.

**MUS TXAPELKETA**
Zabalik dago Euskal Herriko IV Mus Txapelketarako izenematea, Inkernu tabernan. Bikoteko 20 euro ordaindu beharko dira. Lehen kanporaketa urtarrilaren 29an jokatuko da, 16:00etan.

## Etxean konponketak egin ahal izateko tailerra

Joskintza ikastaroa egiten dabiltza martxora bitartean herrian. Cari Dominguezen eskutik, astelehenero zortzi bat emakume elkartzen dira, kultura etxean, josten ikasteko. Batzuk hutsetik hasi dira eta beste batzuek, oinarrizko ezagutzak izanda, josteko makina erabiltzen ikasi nahi dute. Guztiek etxean konponketak egiteko asmoz eman dute izena.


MIRIAN BITERI

## Bihar 20 orduko hika ikastaroa hasiko dute kultura etxean

Eingeinkek antolatuta eta Udalak lagunduta, herriko hika ikasteko ikastaroa egingo dute bihar, zapatua, kultura etxean. Interesatuek kultura etxera jo dezakete, edo *eingeinke@eskohitza.com* helbidera idatzi. Bihar bertan ere eman ahal izango da.

Eingeinkeren arabera, hika galtzen ari da, eta, hori dela eta, horren gaineko ikastaroa antolatzea erabaki dute. Zortzi saio egingo dituzte, zapatuetan, 11:00etatik 13:30era. Bi zapatutan eskola eta hirugarrenean jai izango dute ikasleek. Leintz euskaltegiko zuzendari Karmele Agirregabiriak emango ditu eskolak.

**Iraia Gabilondo** | 'Ez dot moztuko bizarra!' taldea

# "Parte-hartze naturala bultzatu nahi dugu"

Eskubide zibil eta politikoen alde egingo dute

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Eskubide zibil eta politikoen alde egiteko *Ez dot moztuko bizarra!* izeneko taldea sortu dute herritar batzuek. Iraia Gabilondo da horietako bat eta taldearen helburuez berba egin dugu harekin.

**Zer dela-eta sortu duzue talde hau?**

Antzuolan parte-hartzea bultzatzeko talde bat egoteko beharra ikusi zen eta horregatik sortu genuen; nork bere ekarpena egiteko, baina, betiere, eskubide zibil eta politikoen aldeko borrokarekin lotuta. Ezin da ahaztu presoak direla gaur egun eskubide horiek gehien urratuta dituztenak, eta Antzuolan daukagu *Eltzikorta*. Horri guztiari lotura emanez sortu genuen *Ez dot moztuko bizarra!* taldea.

**Herri mailako taldea da, beraz.**

Antzuolarroi parte hartzea gustatzen zaigu, baina ekintzetara ez gara pasatzen. Agian, beldurra ematen digulako zerbaitetan parte hartzeak izango duen eraginak edo loturak. Helburuetako bat da hori gainditzea eta parte-hartze naturala bultzatzea, herriko guztiok elkar ezagutzeko.

**Parte-hartzea bai, baina eskubide zibil eta politikoen alde egiteko.**

Eskubide zibil eta politikoen arloa zabala da eta zilegi da aldarrikatzea denon eskubide horiek errespetatuak izatea, era berean horrek ekarriko lukeelako Antzuolan pertsona bakoitza libre bizi izatea, orain ditugun mugak eduki barik. Hori lortzeko oinarria da kaleko jendeak parte hartuko duen mugimendu bati indarra ematea. Talde honi izaera emango diote bertan parte hartzen dutenek, ez alderdi politiko batek, ez marka batek... Gure marka hori izango da, eskubide zibil eta politikoen alde egiten dugula eta, gainera, herritar guztiek parte hartzea nahi dugula denon artean taldearen izaera hori sortzeko.

**Ekintza batzuk ere egin dituzue.**

Uztailean hasi ginen batzen eta Gabonak arteko egitaraua egin genuen. Helburua da gauza txikiak egiten joatea. Orain arte egin dugun ekintza garrantzitsuena Gabon egunekoa izan da: kantuan irten, umeendako eskulanak, *Eltzikorta*-ren eskutitza irakurri, luncha... Gure taldeko informazioa eta ekitaldiak ikusteko panel bat jarri genuen. Eskubide zibil eta politikoekin zerikusia duten gertakizunak eta informazioa ere jarriko ditugu bertan.

**Beste ekintzaren bat egiteko asmorik baduzue?**

Bizi dugun egoerak eraginda, dispertsioaren inguruko informazioa eman nahi dugu, baita Parot doktrina zer den agertzea ere. Bestetik, jende ezberdina guregana hurbiltzea nahi dugu.

**Norbaitek taldean parte hartu nahi badu, zer egin behar du?**

Parte hartu nahi izanez gero, gure e-posta helbidera idatzi *ezdotmoztukobizarra@gmail.com* edo kalean lasai gerturatu.



Iraia Gabilondo, taldearen kartela ondoan duela. | USOA AGIRRE

## Herriko mus txapelketa hasiko da gaur, egubakoitza

U.A. | ANTZUOLA

Gaur, urtarrilak 20, 20:15ean, jokatuko da Mox tabernan Antzuolako mus txapelketaren lehen kanporaketa. Bigarrena zapatuan, 16:30ean, Arin jatetxean jokatuko da. Eta domekan, berriz, hirugarren kanporaketa jokatuko da Eperra elkartean.

Hurrengo astean parte hartzeko azken aukera egongo da egubakoitzean, urtarrilak 27, 10:15ean Gailur tabernan.

**Herriko finala hilaren 29an**

Kanporaketa batean parte hartu ahal izango du bikote bakoitzak eta zortzi edo lau erregetara jokatuko da bikoteen akordioz. Kanporaketa horietan sailkatutakoekin urtarrilaren 29an, domeka, jokatuko da herriko finala Arin jatetxean. Bertan banatuko dira herriko irabazleendako sariak eta lurraldeko txapelketara joango diren bikoteak hautatuko dira. Lurraldekoaren ondoren Euskal Herrikoa etorriko da; horietara joan ahal izateko aukera bakarra herrian sailkatzea da.

Iaz ere egin zen Euskal Herriko mus txapelketa eta herriko irabazleak Juan Simon Aristi eta Beñar Kortabarria izan ziren. Bestalde, iaz Urruñan jokatu zen Euskal Herriko finalean herriko hiru bikote izan ziren.

## Familiaren Eguna ospatuko dute domekan parrokian

U.A. | ANTZUOLA

Antzuolako eliza elkarteak Familiaren Eguna egingo du urtarrilaren 22an, domekan, 11:00etan, parrokian. Umeendako meza berezia egingo dute eta katekesian dabiltzan umeek parte hartuko dute bakoitzaren familiarekin batera. Gainontzeko herritarrak eta katekesian ez dabiltzan umeak ere gonbidatu dituzte meza berezira.

**Lourdesera irteera**

Bestalde, urtarrilaren 25ean, eguaztena, helduendako katekesi saioa hasiko dute. 20:00etarako egin dute hitzordua, abade-etxean. Taldean biltzen diren lagunen nahiaren arabera antolatuko dituzte katekesi -saioak. "Fedea sakondu eta sendotu nahi duten guztiei" daude zuzenduta, eliza elkartearen esanetan.

Otsailaren 11n, berriz, Lourdesko Amaren eguna da, eta Lourdesera bidaia egingo dute eliza elkarteko kideek. Irteeran parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dute; elizako aretoan egunero egiten den mezaren aurretik edo ondoren eman ahal izango da izena. Prezioa eta ordua aurrerago zehaztuko dituzte.

## Uzarraga elizatea berreskuratzeko talde bat sortu nahi dute herrian

U.A. | ANTZUOLA

Uzarraga elizaren eta inguruko eraikinen egoera txarragatik ixteko erabakia hartu zuen iaz Gipuzkoako Elizbarrutiak. San Juanetan egin zuten Uzarragan azken elizkizuna eta harrezkero hesituta daude eraikin guztiak; bertako ondareak ateratzen aritu dira azken hilabeteotan. Bada, elizatea berreskuratzeko irabazi asmorik gabeko taldea sortzeko dei egin dute Juanjo Aranburu Pollero eta Jose Mari Iturbe antzuolarrek. Jarri dira harremanetan herriko eliza elkartearekin, lanean hasteko formula egokia zein den jakiteko.

**Beste erabilpen bat**

Aranburuk eta Iturbek hauxe adierazi dute: "Ezin dugu eta ez dugu nahi hiltzen lagatzea hain antzinako gure ondarea, Antzuolako sorrera eta sustraia". Eliza elkarteak Uzarraga ez erabiltzeko eta bertan obrarik ez egiteko erabakia hartu du, eta, egungo egoeran, erabaki hori "ulergarria" dela esan dute. Garbi utzi nahi izan dute ez dutela nahi eliza elkartearen erabakia epaitu; Uzarragari "bizia" eman nahi diote, erabilpen ezberdin bat emanda. Uzarraga "herritarrena, antzuolarrena" izan dadin.

Hauxe gehitu dute Aranburuk eta Iturbek: "Lan ikaragarria eta urtetarakoa daukagu aurrean. Bitarteko urriekin, baina antzuolarren indarrarekin posible egingo dugu, ezin dugulako gure ondarea erortzen eta desagertzen utzi. Gure aurrekoei ere zor diegu, eta beraz: Bagaittuk ala ez gaittuk? San Juan Uzarragako zeru txit argiak aurrera".

### OHARRAK

**FUTBOLA**

Erregional mailako taldeak bihar, zapatua, 16:30ean, Azpeitian jokatuko du Lagun Onak taldearen kontra.

**PILOTA**

Eskuz, alebin mailako Olaldeko bikoteak Bergararen kontra jokatuko dute gaur, 19:30ean hasita, herriko pilotalekuan.

## Arratoien kontrako kanpaina jarri du abian Udalak

Antzuolako Udalak, herrian dagoen arratoi kopurua dela eta, haien aurkako kanpaina jarri du abian. Hiru hilabetez enpresa bat arituko da arratoiak akabatzen. Bada, Udalak herritarrei eskatu nahi die arratoiak zein tokitan ikusi dituzten esanez udaletxera dei dezaten, 943 76 62 46 telefono zenbakira.

## Aiherrako eskolako umeek Antzuola bisitatuko dute gaur

Gaur, egubakoitza, Aiherrako eskolako umeen bisita izango dugu herrian. Goizean harrera egingo diete eskolan eta ikastetxea ezagutzeko aukera izango dute. Bazkalostean herria ikusiko dute eskolako ume talde baten laguntzarekin. Arratsaldean eskolara itzuliko dira eta jokoak egingo dituzte bi eskoletako umeek elkarrekin.

GAILUR
taberna eta
gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

zabalo
IGELTSEROTZA
Jose Luis Zabalo
Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. eta faxa:
943 76 60 89

ZAHAR BERRITZEAK:
Fatxadak
Bainugela eta sukaldea
Lokal komertzialak
Teilatuak

# Cuatrovientos: AHTri aurre egin behar, egunero

## Luis Zabala kexu da baserrirako sarreraren egoeragatik; Udalak beste hiru bizilagunen kexak ere bideratu ditu

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARAMAIO

Cuatrovientos baserriaren egoerak bere horretan jarraitzen du. Arrasate eta Aramaio lotzen dituen A-2620 errepidea ireki zutenetik aramaioar gehienendako amaitu zen amesgaiztoa ez da oraindik amaitu bizilagun batzuendako.

Aramaio eta Arrasate artean, Suñarako bidegurutze ondoan baina errepidearen beste aldean hasten den bidetik gora joanda dagoen Cuatrovientos baserrian bizi den Luis Zabalaren kasua da deigarriena. Baserrirako sarrera eta irteeraren egoeragatik aspalditik kexu da Zabala. A-2620 errepidera irteteko legez Aramaiora egin behar du derrigorrez, Arrasaterako norabidea hartzeko lerro etengabea du-eta –kamioien joan-etorriek errepideko seinaleztapena ezabatu egin dute–. Eta Aramaiora joateko ere ondoko bidea hartzera behartuta dago. Gainera, 50 kilometro orduko abiadura muga dago gune horretan baina Zabalaren arabera, inork ez du hori errespetatzen.

Egunez obrako langile batek egiten ditu semaforo lanak baina gauez ez dago inor. Bi hitzetan esanda, "istripu arrisku larrian" bizi da Zabala eta haren familia. Konponbide bat izan daiteke bidegurutzera heldu aurretik –Aramaiorako noranzkoan– baserrirako desbideratze bat egitea.

Arazoa, baina, ez da hor amaitzen. AHTko lanei egunero egin behar die aurre Zabalak etxera heldu ahal izateko. Izan ere, kamioien joan-etorri etengabeen artean, auto batek zeharkatu ezin duen egoeran dago errepidea. 4x4 edo lur orotako ibilgailu baten igo beharra dago.


A-2620 errepidetik Cuatrovientos baserrirako sarrera, eguaztenean. | J.B.

**Beste hiru kexa ere jaso dira**

Bi idatzi aurkeztu ditu Zabalak, Cuatrovientoserako sarreraren egoeraren berri eman eta konponbideak eskatuz. Udalak Adif eta Diputaziora bideratu ditu idatziok. Baina Cuatrovientoseko kasua ez da bakarra. Beste hiru bizilagunek ere aurkeztu dituzte euren kexak: Antonia Bergaretxek Karmelo Zabala eta Luis Mari Eriz dira. Lehenak ur iturburua galdu zuen 2010ean eta oraindik ez du berreskuratu. Bigarrena kexu da Lugartegi baserrira doan bide berriko urak jaso gura dituelako eta hirugarrena, berriz, Bolinburuko baserrietara joateko bidearen egoera salatzen du. Bide hori publikoa izan da orain arte, baina Adifek desjabetze puntuala egin du AHTko obrekin aurrera jarraitzeko.

Kexa hauek guztiak Adifen Madrilgo egoitzara bidali zituen Udalak urtarrilaren 11n. Salatutako arazoak "lehenbailehen" konpontzea espero dute.

**LUIS ZABALA** | CUATROVIENTOS BASERRIKO BIZILAGUNA

### "Inork ez dauka ardurarik hemen, batak bestearen teilatura bidaltzen du pilota"

Arrasate eta Aramaio arteko bidea ireki zenetik A 2620 errepiderako irteera "klandestinitatean" egin behar duela dio Luis Zabalak.


Luis Zabala. | J.B.

**Zein da obrek eragiten dizuten kalterik handiena?**

Arazo guztien artean errepiderako irteera da arazo handiena. Lehen gaizki bazegoen, orain erabateko klandestinitatera pasa gaitutzte. Arrasaterako etengabeko lerroa daukagu eta Aramaiorako noranzkoan ere ondoko bide zatia hartu beharra dugu nahitaez. Ez dago ikusgarritasunik eta gure segurtasuna ez dago bermatuta, inondik inora.

**Zuen kexek izan al dute erantzunik?**

Toki denetan jarri ditut kexak: udaletxean, Diputazioan, Adifen... Ertzaintzan ere egon nintzen. Baina gure kasuan kexek ez dute ezertarako balio. Baserri bakarra garenez ez gara lehentasuna, antza. Inork ez dauka ardurarik hemen; batak bestearen teilatura bidaltzen du pilota. Bakarrik gaude.

# Lau Udaletako alkateak datoz domekan, ABB ezagutzeko asmoz

## Okondo, Aiara, Laudio eta Urduñakoak, hain justu

**J.B.** | ARAMAIO

Aramaio Baserri Barri ekimena bertatik bertara ezagutzeko eta esperientziak elkartrukatzeko lau Udaletako ordezkarien bisita izango dugu domekan Aramaion. Okondo, Aiara (Araba), Urduña eta Laudioko (Bizkaia) alkateak etorriko dira, beste teknikari eta ordezkari batzuekin batera.

Ramon Ajuria Aramaioko alkateak 20 bat lagun etorriko direla dio eta azaldu digu zein den bisitaren helburua: "Gurekin harremanetan jarri dira Aramaio Baserri Barri ekimena ezagutu gura dutelako. Guk ere euren ekimenen berri izan gura dugu eta beraz, esperientziak elkartrukatzea da helburua". Ajuriak dioenez, Urduñan adibidez badute ABBren antzeko proiektu bat.

Besteak beste, Mendiolan dagoen Aramaio Baserri Barriren ekoizpen eta ikerketa zentroaren jarraipena egingo dute eta hiltegi zaharreko aretoa zertarako erabiliko den azalduko diete.

**Bazkaria Iturrietan**

10:00etan egin dute hitzordua, udaletxean. Lehenik eta behin ABB proiektua zer den azaltzeko aurkezpen txiki bat egingo dute. Gero, Aramaioko Sagardogileen Elkarteko (ASE) lokalaren funtzionamendua azaldu eta hiltegi zaharreko aretoa zertarako erabiliko den azalduko diete, bertatik bertara. Beranduago Mendiolako ikerketa zentroa ere bisitatuko dute.

Bazkaldu ere batera egingo dute, Iturrieta sagardotegian. Alkateak jakinarazi duenez, bertako produktu ekologikoak izango dira menuan. Arratsaldeko plana ez dago erabat zehaztuta; besteak beste, ortuak bisitatuko dituzte.

**NIRE USTEZ**

**XABI IGOA**



## Tellamendi: "Vaya tela!"

Asteon irakurri dut ikurrina legeztatu dela 35 urte bete direla eta orduko alkate talde batek omenaldia jaso duela Etxarri Aranatzen.

Bertara joan dira bai Julian Unzueta, orduko Aramaioko alkatea eta baita Ramon Ajuria, egungo alkatea.

Omenaldi honek, baina, urtero Gabonetan, gure familian mintzagai izaten dugun gertaera bat ekarri dit gogora.

Ikurrina horiek balkoietan agertu baino aste pare bat lehenago Tellamendiko gurutzean ere agertu omen zen ikurrina bat, urte berri egunez. Tamalez, ikurrina horrek 24 ordu ere ez zituen egin bertan. Arratsaldeko hirurak aldera Guardia Zibilak lehergailu batekin gurutze eta guzti bota baitzuen. “Vaya tela!”.

Ulertzen dut omenaldia lehengoei egitea, baina beste omenaldi baten beharra ere sumatzen dut; agian isilagoa eta xumeagoa baina garrantzi berdinekoa.

Omenaldi hau, ez pentsa Tellamendiko ikurrina jarri zutenendako eskatzen dudanik, ikurrina hori eta Euskal Herriko udaletxeetako balkoietan agertu ziren ikurrinen egileendako baizik.

Ezkutuko lan bati omenaldia, gauero hari eta oihal artean zebilen emakumeari omenaldia, nire eta beste askoren amamei omenaldia.

Agian gutxi izango da baina, hau izan daiteke nire eskuetan dagoena. Beraz, hauxe nire omenaldia emakume horiendako.

Mila esker denoi eta muxu bat!

Txotx garaia zabalik

Iturrieta sagardotegia
Arraga auzoa / Aramaio
943 44 53 85 685 72 15 93
iturrietasagardotegia.blogspot.com

### BEC-eko eskulanen feria ezagutzeko irteera, Itur Zuri elkartearen eskutik

Itur Zuri emakume elkarteak irteera antolatu du hilaren 28rako. Bilbao Exhibition Centre-n egingo den eskulanen feriara joango dira. Izena eman behar da hilaren 22a baino lehen, honako telefono zenbakietara deituta: 670 431 662 (Ana) eta 616 560 895 (Belen). Prezioa da 35 eurokoa, bazkaria barne. 10:00etan egin dute hitzordua, autobus geltokian.


BEC-eko eskulanen feria. | GOIENA

### Gazte Asanbladak hilero domeka baten film bat emango du

Gazte Asanbladaren eskutik hilean domeka baten pelikula bat ikusteko aukera egongo da Kultur etxean. Domekan hasiko dira Tim Burton zuzendari ospetsuaren *Big Fish* filmarekin (19:00). "Beste zerbait" antolatu eta eskaintza osatzeko egingo dute. Helduendako denetariko filmak ekarriko dituzte.

ELGETA

# Gaur, barikua, zabalduko dute Domingo Iturbeko aparkalekua

Oxel Erostarbe alkateak esan du otsailean hasiko direla eraikina botatzen

**LARRAITZ ZEBERIO** | ELGETA

Gertu dago Domingo Iturbeko aparkaleku berria, eta udal arduradunen asmoa da gaur bertan zabaltzea. Gune berrian 36 auto sartzen dira; 23 plaza daude beheko aparkalekuan, eta 13 Domingo Iturbe kalearen luzeran.

Lanok 407.508 euroko aurrekontua izan dute, eta Eusko Jaurlaritzako Hiriber programatik 231.868 euroko finantzazioa etorri da.



Domingo Iturbeko aparkaleku berria. | L.Z.

**Domingo Iturbe eraikina**

Urbanizazio lanen lehenengo fasea eginda, bigarrenari ekingo dio orain Udalak. Proiektuak jasotzen du eraikinaren beheko solairuan dagoen frontoia kenduta eraikin guztia bota egingo dutela. Oxel Erostarbe alkatearen esanetan otsailean bertan hasiko dituzte errauste lanak. "Otsail hasieran", zehaztu du, "obrak esleitzeko lanetan dabil Udala".

Egin berria den kantxak itxita jarraituko du baita ziburuak zeuden guneak. Bertan kokatuko dituzte behargineendako aldagelak eta gainerakoak.

**Espaloietan ez aparkatu**

Udaletik, bestalde, San Roke kale osteko espaloietan ez aparkatzeko eskaera egin dute. Oharrak ipini dituzte garaje sarrera guztietan; ezin da bertan autorik aparkatu.

# San Sebastian eguneko ekitaldiak Elgetan ere



San Sebastian kofradiako kideak eta eskolako haurrak, iaz, elizpean. | L.Z.

**L.Z.** | ELGETA

Gaur, urtarrilak 20, San Sebastian eguneko ospakizunak izango ditugu Elgetan ere. San Sebastian kofradiako kideek urteroko ekitaldia egingo dute. Eguerdi partean elkartuko dira Elgetako parrokian Uberako eta Elgetako kofradiak; 25 lagun inguru. Elkarrekin entzungo dute meza, eta sakristian urteko kontuak kitatu ostean elkarrekin bazkalduko dute. Elizpean Herri Eskolako Haur Hezkuntzako eta 6. mailako neska-mutikoak izango dituzte zain. Danborrak zintzilik San Sebastian martxa, eta Realaren ereserkia eskainiko dizkiete mezetara sartu aurretik. Arratsaldean, gurasoendako joko dute danborra. 15:30ean eskolako jolastokian egingo dute danborrada. Eskolako ateak zabalik egongo dira.

FRONTENIS TXAPELKETA

## Lehenengo partiduak aste bukaeran

Bi frontenis txapelketa jokatuko dira aurten ere Elgetan: gizonezkoen artekoa eta txapelketa mistoa.

**ZAPATUA, HILAK 21, 16:00ETAN**

Andoni Elortza-Eneko Maguregi/Oskar Sarasua-Xanti Dosuna

Idoia Elkoro-Enrike Elkoro/Rebeka Ubera-Mikel Arkarazo

**DOMEKA, HILAK 22, 10:30EAN**

Haritz Gallastegi-Enrike Elkoro/Odei Zenitagoia-Mikel Beretxinaga

## Usoak ugaritzen ari dira berriz ere; azken boladan ehun bat harrapatu dituzte ipinitako bi tranpetan

Badirudi azken boladan usoak ugaritu egin direla Elgetan. Bi tranpa daude ipinita: bata, elizaren teilatuan; eta bestea, pareko eraikin baten teilatuan. Bada, azken boladan ehundik gora uso harrapatu dituzte sistema horren bitartez, eta kopuruak eman du zer pentsatua. Usoen kopuruak handitzen segitzen badu, bestelako neurriak hartu beharko dira.

## Elgetarrondako prezio interesgarriagoak aurten Debagoieneko kirol txartel mankomunatuarekin

Agorrosingo erabiltzaile elgetarrek bazkidetza baldintza interesgarriak dituzte aurten Debagoieneko kirol txartel mankomunatuarekin. Tarifa berriak eskatzeko eta kontuak egiteko unea da. Urte osoko bazkidetza kuota 202,70 euro da, umeendako 119,25 euro eta familiendako 370 euro. Erabakia hilabetea amaitu aurretik hartuz gero, urtarrileko kuota itzuli egingo dute.

## Gaur, barikua, Debagoieneko Kirol Sariak eta bihar, zapatua, Mendi Federazioaren batzarra

Gaur, barikua, 2011ko Debagoieneko kirolari onenak Espaloian izango dira, 19:00etan hasita Debagoieneko Kirol Sarien banaketa gala egingo dute-eta. Bihar, berriz, ezohiko batzarra egingo du Euskal Mendi Federazioak. Presidente berria aukeratuko dute 11:00etan hasiko den batzarrean.

## Kantsatzeke mendi taldearen aurkezpen ekitaldia egingo dute martitzenean, hilaren 24an, 20:00etan

2009ko udazkenean jaiotako Ozkarbi mendi taldearen lekukoa hartuko du. Talde federatua izango da, eta bultzatzaileek bilera irekira deitu dituzte elgetar guztiak, "egindako bidearen laburpena egin, proposamenak jaso, eta mendi taldea hemendik aurrera antolatzeko". Aurkezpen bilera urtarrilaren 24rako deitu dute. Udal Liburutegian egingo dute, 20:00etan hasita.

LEINTZ GATZAGA

# Bertso afaria antolatu du Korrika batzordeak otsailaren 3rako

**MIRARI ALTUBE** | LEINTZ GATZAGA

Korrika batzordeak bertso afaria egingo du otsailaren 3an, egubakoitza. Soran etxean izango da, eta txartelak bihar jarriko dituzte salgai Labidea dendan. Hilaren 29ra arte erosi ahal izango dituzte herritarrek.

**Lizaso eta Zubeldia**

Aurten ez da Korrikarik iritsiko gure herrietara, baina Gatzagako batzordeak lanean segitzen du, eta euskara aitzakia hartuta bertso afari dotorea antolatu du otsailerako. Soran etxean gertatuko dieten afariaren bueltan eskarmentu handiko bertsolari bi izango dituzte, gainera, lagun: Sebastian Lizaso (Azpeitia, 1958) eta Iker Zubeldia (Zegama, 1981).

Gatzagan hainbatetan izan dituzte bertso afariak, iaz esaterako korrikaren etorrera girotzeko, eta oraingoan ere herritar guztiak animatu gura ditu Korrika batzordeak afari horretara.

**Santa Ageda bezperan kantuan**

Bestalde, otsailaren 4a Santa Ageda bezpera da, eta Euskal Herriko herri askotan legez Gatzagako ume eta gurasoek ere gogoan izango dute urteurren hori. Arratsalde partean kalez kale kantuan jardungo dute eta egindako lanaren saritzat merienda izango dute gero, Toki Eder elkartean.

## Beiraren birziklapena zelan egiten den argibideak otsailean

Beiraren birziklapenaren gaineko kanpaina jarri du abian Debagoieneko mankomunitateak Ecovidrioren laguntzarekin, eta herriz herri argibideak ematen dabiltza. Gatzagara otsailaren 17an, egubakoitza iritsiko da informazio karpa hori (18:00 -20:00).

Beira birziklatzeko zein prozesu jarraitzen den, zein onura dakartzan birziklatzeak, edukiontzi berdeetan zer sartu behar den –birazko ontzi eta botilak bakarrik– eta zer ez –portzelanazkoak, zeramikazkoak...–, eta beste hainbat kontu erakutsiko dizkiete herritarrei.

ARGITU
Psikologia eta osasun etxea
Psikoterapia kognitiboa eta jokabidearena
Haurrak – nerabeak – helduak – indibiduala – bikoteak - familiak
PROGRAMAK ETA TAILERRAK
Tabakoaren mendekotasuna gainditzeko tailerra
Urtarrilak 28 eta 29
Laguntza doluan
Adimen emozionala
Ikasketa ohiturak
Guraso eskola
Beste batzuk...
675 70 68 07
Bidebarrieta 27 B, 9. bulegoa. EIBAR



Alberto Iñurrategi, atzo goizean, Urkulun dauden hegaztiendako behatokietako batean. | XABIER URTZELAI

**Alberto Iñurrategi** | Alpinista

# "Erronka polita izan da, baina gure habitat naturala mendia da"

- Arrasto sakona utzi dion esperientzia izan dela onartu du Iñurrategik
- Dagoeneko buruan dituzte hurrengo erronkak; mendian izango dira

XABIER URTZELAI | ARETXABALETA

Hego Polotik bueltan Alberto Iñurrategik (Aretxabaleta, 1968) egun gutxi behar izan ditu bere egunerokora itzultzeko, prozesu hori askotan egin duen seinale. Onartu digu, baina, espedizio honek beste arrasto bat utzi diola barrenean, berezia izan dela. Berezia eta gogorra.

**Sufrimendu handiko espedizioa izan dela entzun dizuegu. Telebistan ikustera ohituta gauden aurkezle–abenturazale batzuen ahotan ez luke apartekorik adieraziko horrek; erraz esaten dute hori. Zuen ahotan, baina, ezberdina da.**

Gauzak esateko modu bat da. Gaizki pasatu dugula, hotz handia pasatu dugula eta oso luzea egin zaigula esateko modua. Dena dela, hori da mendizaleok beti bilatzen duguna, hau da, erronka gogorra izatea; horrek asetzen gaitu. Erraz egindako espedizio batekin ez ginateke gustura geratuko, seguru.

**Horrek, baina, txoke egiten du kometez lagunduta eskiatzen ikusi zaituztegunean. Irudi batek ez duela milaka berben balio bera.**

Ez, irudi horiek ez dute azaltzen egun horretan kometekin zenbat ordu egin dituzun, momentu horretan zelako hotza egiten duen, edo hankak ze egoeratan dauden. Halako detaile asko galdu egiten dira; hau da, irudiok errealitatea dezente distortsionatzen dute.

**Tarteka guztioi pasatzen zaigu burutik: "Nork esango zidan hona etortzeko...". Zuen kasuan?**

Edozein espediziotan lehenengo aldapa igotzen hasten garen bakoitzean pentsatzen dugu hori, batez ere motxila aldean badaramagu [Barre]. Eta bai, Antartidan ere askotan esan edo pentsatu izan dugu hori, askotan.

> **"Luzea egin zaigu eta sufritu egin dugu, baina halako erronkek betetzen gaituzte"**

> **"Espedizioetan hirukotea zenbateko polita da, erabakiak hartzeko oso demokratikoa"**

> **"Beti soka-lagun berberak izatea pribilegioa da, baina traba ere bilaka daiteke"**

**Ikasi dugu zer diren sastrugiak.**

Bai, berba hori gizarteratu dugu sikiera. Egia da berba horrekin familiarizatu garela, nahiz eta sastrugiekin eurekin familiarizatzerik izan ez dugun. Traba handia eragin digute, eta ez dut uste inoren gustukoak direnik, batez ere horrenbeste kilometrotan jasan behar dituzunean.

**Nire irudipena izango da, baina esango nuke ez zaituztegula berriro ere halako trabesia baten ikusiko, gailurretatik urrun, ala?**

[Barre] Berehalakoan ez, behintzat, baina batek daki... Gure habitat naturala mendia da, eta joera, behintzat, mendirako dugu. Buruan ditugun hurrengo asmoak ere mendiaz lotuta daude.

**Harreman pertsonaletan hirugarren laguna soberan egoten ei da; ez da zuen kasua, hiruko sendoa osatu duzuela baieztatzen da proiektu batetik itzultzen zareten bakoitzean.**

Hirukotea zenbateko polita da, oso demokratikoa; gu oso ondo moldatzen gara, behintzat. Mendirako zenbateko egokia da, hiru lagun izanda nahikoa delako kanpin denda bat, baita sukalde bakarra ere; arrastoa zabaltzerako orduan txandak emanda atseden hartzeko astia ematen du... Eta zeharkaldi polarretan ere erabakiak hartzeko kopuru polita da: bi lagunek erabaki bat hartzen dutenean hirugarrenak onartu baino ez du.

**Etorkizunean ikusten duzu zeure burua hiruko horretatik kanpo?**

Oraingoz ez, baina batek daki... Ni gaizki ohitutako mendizalea naiz, betiko soka-lagunekin ibili naizelako mendian. Hori pribilegio bat da, baina trabak ere sor ditzake; izan ere, konfiantzadun jendea ondoan ez daukagunean, akaso, ez dugu jakingo beste inorekin mendira joaten.

**Halako balentriek ez dute garai bateko kutsu erromantikoa, Amundsenek Hego Poloan egin zueneko trabesia modukoa, esaterako. Orain, klik batean Iñurrategiren azken berriak jasotzen ditugu, eta hurrengo klikean Messi-ren azken gola ikusi.**

Gaur egun informazioa halaxe iristen da, eta horrek erromantizismoa galtzea dakarrela? Bada, ez dakit. Lehenengo erromantizismoa zer den adostu beharko genuke. Askotan irudi erromantikoak zuri-beltzeko irudiekin lotzen ditugu, Amundsenen zeharkaldia kasu. Baina, esango baligute orduko espedizio gehienak militarrek zuzendutakoak zirela, eta garaian garaiko aurrerapen guztiak erabiltzen zituztela, 500 edo 700 zamaketariren laguntzaz... Bada, akaso erromantisizmo hori galdu egingo luke. Garbi dagoena da garaiko aurrerapenei uko egitea absurdoa dela; konforme geratuko nintzateke aurrerapen horiek neurrian erabiliko bagenitu.

**Espedizio honek fisikoki eragin du ordainik?**

Fisikoki ez, hankak hoztuta ekarri ditugu, eta sentsibilitatea apur bat galduta, baina bainu bero batzuekin eta igurtzi batzuekin berehala konponduko dugu hori; pare bat asteko kontua izango da.

**Eta, orain arte egindako zortzimilako batek baino gehiago markatu zaitu?**

Esperientzia berria izan den neurrian oso oroitzapen polita geratu zait. Himalaiako espediziotan urte asko daramatzagu, asko egin ditugu, eta gehienak ederrak izan badira ere nobedadea ez diren neurrian Groenlandiako eta Antartikako hauek beste arrasto bat utzi didate, sakonagoa.



Espedizioko hiru kideak Hego Polora iritsita. | BAT BASQUE TEAM

## "Gogorrena, eguneroko tentsioa"

Naturgas/Transantartika espedizioko kideek 55 egun erabili dituzte Hego Poloa zeharkatzeko, eta hirurek azpimarratu dute erronka oso gogorra izan dela: "Gogortasunaren edo pasa dugun hotzaren gainetik niretzako gogorrena egunero bizi izan dugun tentsioa izan da, hau da, edozein momentutan eski bat edo belaun bat apurtzeko beldurra, kasu horretan bertan behera utzi beharko genukeelako espedizioa".



Iaz Beñat Arnaitz aretxabaletarrak jaso zuen saria. | JOSETXO ARANTZABAL

DKS SARIAK

# Mikel Aristik jasoko du herritarren saria, gaur, DKS sarietan Elgetan

XABIER URTZELAI | ARRASATE

DKS ekitaldia 19:00etan hasiko dute, gaur, Elgetan. Eta antolatzaileek dagoeneko jakitera eman dute nork jaso dituen herritarren boto gehien. Hala, Bergarara joango da sari hori, Mikel Aristi txirrindularia izan delako herritarrek aukeratu duten kirolaria. Gainontzeko sariak gaur emango dituzte jakitera.

Ikustekoa izan da herritarren sariak zelako erantzuna izan duen, guztira 1.020 boto jaso dituztelako webgunean. Tartean izen asko, eskalatzaileak, karatekak, triatletak, igerilariak, futbol jokalariak, baina saria bakarra, eta aurten Debabarrena taldeko mailota jantziko duen txirrindulariak jasoko du. Gainontzeko sariak sorpresa dira, gaur jakinaraziko dituzte, baina kirolari onenen artean finalista dira Aitor Mendizabal, Markel Irizar, Oihana Kortazar, Maialen Axpe edota Amaia Doyague moduko kirolariak. Horiekin batera, baina, sari gehiago ere izango dira. Eta, Aretxabaletako eta Elgetako Udalek ere euren herriko kirolariak saritu nahi izan dituzte.

**Ekitaldia zuzenean, sarean**

*Goiena*.net atarian zuzenean jarraitu ahal izango da, streaming bidez, gaurko sari banaketa ekitaldia. Eta asteburuan bertan Goiena Telebistak botako du saioa, baita astelehenean ere. Papereko irakurleek, azkenik, astelehenean jasoko dute sarituen berri.

XAKEA

## Arrasate-Arlutz taldeak garaipenarekin hasi du liga

Iaz bezala, aurten ere batera segituko dute Aretxabaletako Arlutz eta Arrasateko San Andres xake taldeek. Fusio horretatik, talde nagusiak –lehenengo mailan– Aretxabaletan jokatuko du eta gainontzeko hiru taldeek Arrasateko Altamirako lokalean izango dute egoitza. Joan den zapatuan hasitako ligan Ibarrekoek Errenteriako Fomento hartu zuten mendean (1,5 -2,5). Tornayk irabazi egin zuen, eta Miguelek, Hernandok eta Alcaidek berdindu.

TRIATLOIA

## Antxintxikak zabalik ditu ateak, triatloia ezagutarazteko

Antxintxika Triatloi Taldea hasi da 2012ko denboraldia prestatzen, eta oharra bidali dute, esaten, klubeko ateak zabal-zabalik daudela duatloiak eta triatloiak barrutik ezagutu nahi dituzten kirolariendako, izan ere, hasi dira denboraldi berriaren aurrean izenemateak hartzen. Antxintxika taldekoekin harremanetan jarri nahi duenak *txoske@yahoo.es* helbidera idatz dezake, edo bestela deitu 688 635 153 telefono zenbakira.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

**FUTBOLA**

**LEHENENGO MAILA**
Reala-Atletico de Madrid
Zapatua. 20:00. Anoeta.

**EMAKUM. BIG. MAILA**
Mondra-Athletic B
Domeka. 12:00. Mojategi.

**GAZTEEN EUSKAL LIGA**
Eibar-Aretxabaleta
Domeka. 17:00. Unbe.

**OHOREZKO ERREGIONALA**
Mondra-Beti Gazte
Zapatua. 16:30. Mojategi.
Aretxabaleta-Hondarribia
Domeka. 16:30. Ibarra.
Tolosa-Bergara
Zapatua. 16:30. Berazubi.
Aloña Mendi-Roteta
Domeka. 16:30. Azkoagain.

**ERREGIONAL PREFERENTEA**
Lagun Onak-Antzuola
Zapatua. 16:30. Garmendipe.
Aretxabaleta B-Amaikak Bat
Zapatua. 18:00. Ibarra.

**LEHEN ERREGIONALA, IG.**
Mondra B-Vasconia
Domeka.16:00. Mojategi

**OHOREZKO GAZTEAK**
Euskalduna-Mondra
Zapatua.15:30. Ubitarte.
Aloña Mendi-Bergara
Zapatua. 16:30. Azkoagain.

**EMAKUMEZKOAK**
Zumaiako-Arizmendi
Domeka. 12:00. Aita Mari.

**ARETO FUTBOLA**

**BIGARREN MAILA**
Idiazabal-Aretxabaleta
Gaur. 22:30. Idiazabal.

**ESKUBALOIA**

**ASOBAL MAILAKO LAGUNAR.**
Anaitasuna-Huesca
Zapatua. 19:00. Zubikoa

**EUSKADIKO TXAPELKETA**
Atez Ate-Ford Mugarri
Zapatua. 17:30. Usurbil.
Gure Auzune-Ford Mugarri
Zapatua. 18:30. Gasteiz.

**LEHEN TERRITORIALA**
Izarraitz Tab. Aloña-Urnietako
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

**BIGARREN TERRITORIALA**
Talleres Ondo-Arrasate
Zapatua. 17:30. Legazpi.

**SASKIBALOIA**

**EBA**
Univ. Valladolid-Natra Oñati
Zapatua. 18:30. Valladolid.

**LEHEN NAZIONAL MAILA**
MU- Araberri
Zapatua. 18:00. Iturripe.

**SENIOR GIZONEZKOAK**
MU-Santo Tomas Lizeoa
Egubakoitza.20:00. Musakola.
Soraluce Bergara-Erroibide
Domeka. 18:15. Labegaraieta.

**SENIOR GIZ. BIGARREN MAI.**
Cafes Aitona A-Aloña Mendi
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

**SENIOR GIZ. HIRUGARRENA**
MU B - Andraitz
Zapatua. 18:00. Musakola.

**SENIOR EMAKUMEZKOAK**
Eskoriatza-Cafes Aitona B
Zapatua. 18:00. Eskoriatza.

**ERRUGBIA**

**SENIORRAK**
Kanpantzar ART-La Unica
Zapatua. 17:30. Mojategi.

**INFANTIL FEDERATUAK**
Gaztedi/Arrasate-Ordizia
Zapatua. 15:30. Lakua (Gasteiz).

**ALEBIN ETA INFANTILAK**
Entrenamendua Mojategin
Domeka. 10:30. Mojategi.

**KIROL SARIAK**

**DKS EKITALDIA**
Egubakoitza. 19:00. Elgetan.





## Begiristain

Iturriotz baserria IKAZTEGIETA
607 36 57 43
*begiristainsagardotegia@gmail.com*
*www.begiristainsagardotegia.com*

**Eskaintza**

- Urtarriletik ekaina bukaera arte zabalik, sagardoa txotxetik. Zuzeneko botila sagardo salmenta urte guztian. Etxez-etxeko banaketa.
- Sagardotegiko menua. Arkumea burduntzian enkarguz. Afariak asteartetik zapatura, bazkariak eguenetik igandera
- Webgunean sagardotegira bazkidetzeko aukera.
- **"Tolare" sagardotegia**



## Iruki

Otaola hiribidea, 3 atzealdean.
EIBAR / 943 20 68 44
*irukieibar@hotmail.com / http://irukieibar.com*

**Eskaintza**

- Eibar erdialdean.
- Aparkalekua doan.
- 200 lagunentzako tokia.
- Egunero zabalik, baita egubakoitz eta zapatu gauetan eta jai bezperatan ere.
- Parrilla eguneko menuan ere.
- Prezio merkeak eta giro atsegina.



## Ipintza

Ipintza baserria / Santio Zaharra 12
ASTIGARRAGA / 688 81 17 24
*ipintza@ipintza.com / www.ipintza.com*

**Eskaintza**

- Astigarraga erdigunean.
- Egunero zabalik, igande gauetan izan ezik.
- Urte osoan sagardoa txotxetik.
- 150 pertsonarentzat lekua.
- Eserita.
- Aparkalekua.
- Sagardo botila salmenta.
- **"Tolare" sagardotegia**



## Iturrieta

Arraga auzoa / ARAMAIO
945 44 53 85 / 685 72 15 93
*iturrietasagardotegia.blogspot.com*

**Eskaintza**

- Egubakoitzetik domekara irekita. Erreserbatuz gero beste egunetan ere bai.
- 80 lagunendako lekua, eserita edo zutik.
- Sagardotegiko menua.
- Bertako sagardoa.
- Sagardotegiko menua (txuletoi edo saiheskiarekin)
- Giro aparta zuzeneko musikarekin.



# EGIN TXOTX!

## sagardotegietan



## Larre-Gain

Larre-gain sagardotegia
HERNANI
943 55 58 46 / 616 28 78 67

**Eskaintza**

- Janaria sagardotegiak jartzen du.
- Bakailoa saltsan, aurrez deituta.
- Astegunetan, gauetan bakarrik zabalik. Egubakoitzetan eta zapatuetan egun osoa zabalik Domeketan, eguerdira arte zabalik. Astelehenetan, itxita.
- **"Tolare" sagardotegia**




## Oiharte

Irukarate-gain auzoa (Mutiloa bidea)
ZERAIN
943 50 10 13 / 686 29 91 58
*www.oiharte.com*

**Eskaintza**

- 120 lagunendako lekua, zutik edo eserita.
- Martitzenetik zapatura gauez. Egubakoitz, zapatu eta domeka eguerdietan zabalik.
- Sagardoa botilan salgai.
- Sagardotegiaz gain nekazaritza turismoa.



## Unzueta

Zabola z/g
ARAMAIO
945 44 50 95

**Eskaintza**

- Sagardoa txotxetik urte osoan.
- Sagardotegiko menua: 29 €
- Berezitasuna: txuleta.
- 70 lagunendako tokia.
- Parking eta terraza.



## Zabala

Garagartza baserria / ADUNA
(Andoain eta Billabona artean)
943 69 07 74

**Eskaintza**

- Urtarriletik maiatz hasiera arte zabalik.
- Egubakoitz, zapatu eta domeka eguerditan enkarguz.
- Bertako janaria.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako Sagardo Lehiaketetan, 2004an, 2006an eta 2010ean irabazleak.
- Botilak salgai urte osoan.
- **"Tolare" sagardotegia**

# KULTURA

# Euskarazko filmak eta iragarkiak egiteko lehiaketa jarri dute abian

- Euspot lehiaketa Aretxabaletako Udalak, Artemanek eta Huhezik antolatu dute
- Huhezinemako sari banaketa maiatzaren 10ean egingo dute Arkupe kultura etxean

ARANTZAZU EZKIBEL | ESKORIATZA

Bosgarren urtez antolatu du Eskoriatzako Huhezi fakultateak Huhezinema lehiaketa. Euskal film laburren lehiaketa izango da. Filmen erakusketa eta jaialdia maiatzaren 8an, 9an eta 10ean egingo duten arren, orain, lehiaketan parte hartzeko oinarriak aurkeztu dituzte. Aurten, lehiaketa hainbat berritasunekin dator: aipagarriena da Huhezinemaz gain Euspot lehiaketa ere antolatu dutela.

**Film laburren lehiaketa**

Huhezinemako lanak edozein hizkuntzatan egin ahal izango dira, eta, jatorrizko bertsioa euskara edo gaztelania ez denean, euskara edo gaztelaniazko azpidatziak izan beharko dituzte.

Lanok 30 minutuko iraupena izango dute, gehienez. Edozein generotako filmak egin ahal izango dira: animazioa, fikzioa, dokumentala, esperimentala... Lanak bideo eta zinema formatuan onartuko dituzte. Hala ere, azaldu dute bideoklip, iragarki eta bideo korporatiboak ez direla lehiaketan onartuko.

Lanok 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera ekoitzitakoak izan beharko dute. Egile bakoitzak gura beste lan aurkeztu ahal izango ditu, baina ez dituzte onartuko aurrez lehiaketa horretan aurkeztutako lanak.

**Filmak aurkezteko epea**

Oraindik lanik sortu ez duenak badauka denbora zerbait egin eta lehiaketara aurkezteko. Izan ere, lanak 2012ko martxoaren 23a baino lehen aurkeztu beharko dira. Geroago heltzen diren lanak ez dituzte onartuko.

Lanak aurkezteko bi modu daude: Internet bidez edo posta bidez. Internet bidez bidaltzea erabakitzen dutenek Movibeta plataformaren bitartez igotzeko aukera izango dute: "Egileendako merkeagoa da eta ingurumen aldetik ere irabazi egingo dugu. Pentsa lehiaketa batean zenbat DVD eta paper jasotzen diren!", azaldu du Iban del Campo antolatzaileak. *http://festival.movibeta.com/web/* atarian eman behar da izena (1,5 eurotik gora); ondoren, film laburra eta egilearen datuak bidal daitezke.

Bestalde, posta tradizionala erabilita ere aurkez daitezke lanak: izen-emate orria bete eta lana DVD formatuan Eskoriatzako fakultatera bidali beharko da.

**Euspot: iragarkien lehiaketa**

Euskarazko spot lehiaketa izango da aurtengo berritasuna. 30-40 segundo bitarteko iragarkiak izan beharko dute. Avi edo Quicktime formatuan aurkeztu beharko dira, eta Youtubera igo, gainera. *www.euspot.eu* atarian publikoak proposamenak egiteko aukera izango du.

Lanak apirilaren 11 baino lehen aurkeztu beharko dira eta sari banaketa ekitaldia maiatzaren 8an egingo da, Arkupen.

**Ikasleak eta arlo profesionala**

Huhezima abian jartzearen helburuetako bat ikasleak euskal zinemako profesionalekin harremanetan jartzea izan zen. Horren harira, zinemako profesionalekin jardunaldiak egin izan dituzte –iaz Nacho Vigalondorekin– eta ikasleak jaialdia antolatzen ere ibili dira; bada, aurten ere egingo dituzte jardunaldiak.



Iazko Huhezinema jaialdiko sarituak Arkupe kultura etxean, sariak banatu zituzten egunean. | ARANTZAZU EZKIBEL

## Euspot lehiaketaren helburua

Helburu nagusia izango da euskarari dagokionez hizkuntza ohitura egokiak sustatzea; hau da, euskaraz jakinda ere gaztelaniaz diharduten hizkuntza ohiturak baztertze aldera. Aurtengoa lehenengo edizioa izango da eta Aretxabaletako Udalaren *Eginez eragin!* filosofia hartuko dute oinarri euskarazko iragarki onenak saritzeko. Lanaren jatorriak euskara izan beharko du, eta, nahiz eta iragarkiaren garapena hizkuntza horretan egin ez, mezu nagusia, ideia nagusia, euskaraz jaso beharko da. Iragarkiek jaso beharko duten mezu nagusia izango da: *Merkataritza eta ostalaritzan erabilera da balioa*.

## HUHEZINEMAKO SARIAK

**Euskarazko film labur onenari saria:**
1.000 euro.

**Film onenaren saria:**
1.000 euro.

**Publikoaren saria:**
400 euro.

## EUSPOT-EKO SARIAK

**Lanik onena:**
1.800 euro.

**MUko ikasleen lanik onena:**
800 euro.

**Publikoaren saria:**
500 euro.



GOIENA

**IBAN DEL CAMPO**
ANTOLATZAILEA

## "Lehiaketa ezaguna egin da egileen artean, eta pozgarria da"

Ilusioz ekin diote Huhezinema ekimenaren bosgarren edizioari. Berritasunak izango ditu lehiaketak aurten. Horien berri eman digu Iban del Campo Huheziko irakasle eta lehiaketako antolatzaileak.

**Berritasunik izango du aurtengo lehiaketak?**

Aurtengo berritasun garrantzitsuena da lehiaketa paralelo bat egingo dugula: Euspot. Guretzako pozteko albistea da garai hauetan horrelako lehiaketa bat egin ahal izatea. Euskarazko iragarkien lehiaketa da. Huhezirekin batera, Aretxabaletako Udaleko Euskara Zerbitzua eta Arteman dira antolatzaileak.

**Zein da lehiaketa antolatzearen helburua?**

Hasierako helburua bikoitza zen: ohiko jaialdi baten helburua zegoen, alde batetik, kultura bultzatzea, eta, kasu honetan, baita euskal zinema eta sortzaileen lanak sustatzea; bestalde, ikasleen lanak jaialdi batean aurkezteko helburua zegoen. Ikasleak eta unibertsitatea bera euskal zinemako profesionalekin harremanetan jartzea zen helburua.

**Orain arteko balorazioa?**

Urtetik urtera lan gehiago jaso ditugu. Lehiaketa ezagun egin da egileen artean, eta hori pozgarria da.

# Debagoieneko **GREMIOAK**



## AROZTEGIAK

**AZKARATE AROZTEGIA**
Bergara
• Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak.
• K-21
Telleria 19 B02-B03
T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
*www.goiena.net/blogak/azkarate*

## ERAIKUNTZAK

**ARRASATE ERAIKUNTZAK SL**
Arrasate
Meatzerreka auzoa
T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59
*e.arrasate@euskalnet.net*

**FRIXI ERAIKUNTZAK**
Eskoriatza
• Hormigoizko estrukturak eta urbanizazioak
• Kontratak
• Enpresen mantentze-lanak
Intxartxueta 5
T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22
F: 943 71 55 15

## ITURGINTZA

**EGIA ITURGINTZA**
Arrasate
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
T: 943 77 01 85

**OYANGUREN ITURGINTZA**
Eskoriatza
• Iturgintza eta gasa
• Berogailuak eta petrolio-produktuak
• Klimatizazioa
Aranburuzabala 15
T: 943 71 47 14 / 606 00 73 69
*f.oyanguren@ctv.es*

**URKO MANTENIMIENTO SL**
Aretxabaleta
• Instalazioen mantentze-lan guztiak
• Berokuntza eta gasa
• Aire girotua eta haizeztatzea
Basabe industrialdea B-3
T: 943 77 19 88
F: 943 79 59 97

## LEIHOAK

**ARGI-PLASTIK**
Arrasate
Zigarrola kalea 1, 8 pab
Tel.: 943 77 11 30
*http://merkatua.net/argiplastik*

**ION LEIHOAK**
Arrasate
Debagoiena Industrialdea 11.Pab
Tel.: 943 79 11 35
F: 943 773 120
*http://www.ventaion.com*

## LOREZAINTZA

**MAKAI KOOP. ELKARTEA**
Aretxabaleta
• Barruko zein kanpoko lorezaintza
• Ureztatzeko sistemak
• Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
F: 943 79 78 45

## MARGOAK

**APAIN MARGO ETA APAINKETA**
Arrasate
• Pintura orokorrean
• Pareztatzeak
• Errotulazioa
Maitena 3-1.
Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.



Ron Lala antzerki taldeko bi aktore oholtza gainean. | DAVID RUIZ

# Tiki-taka, tiki-taka... musika eta umore "ronlaleroa"

'Time al tiempo' antzezlana eskainiko dute Amaian, domekan, 19:30ean

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Ron Lala antzerki taldeak *Time al tiempo* antzezlana eskainiko du etzi, domeka, Amaian, 19:30ean. Musika, antzerkia eta umorea nahasten dituen antzezlana izango da.

**Musikariak eta aktoreak**

Oholtza gainera bost aktore eta musikari igoko dira. Eskainiko dutena esketxak, abestiak eta zenbakiak izango dira, azken finean umorez betetako uneak.

Denbora izango da gaia. "Denbora errealean" izango dela antzezlana azaldu dute; hau da, hamar segundo, ehun egun eta mila urte iraungo duen antzezlana izango da. Izan ere, ikuskizunak denboran zehar ibilaldia egingo du. Alde batetik, munduaren hasiera irudikatuko dute Big Bang Band musika taldearekin. Eta, denboraren bakarrizketa ere egingo dute. Antzezlanak iraungo duen ordu eta erdian denboraren bankaria eta Minutti jaun mafiosoa ezagutuko ditugu, besteak beste.

**Zuzeneko musika**

Ahotsa, gitarra, perkusioa, haizea, sokak... era guztietako musika instrumentuak erabiliko dituzte antzezlanean, zuzenean. Musikari dagokionez, hainbat musika estilo landuko dituzte: jazz, flamenkoa, hip-hopa, pasodoblea... Musika zuzenean sortuko dute oholtza gainean.

Antzezlaneko esketxak erritmo bizian antolatu dituzte, eta modu egokian lotu dituzte bata bestearen atzetik, haria ez galtzeko.

**Arrakasta izugarria duen lana**

Ron Lala taldearen azken lanak arrakasta handia lortu du Espainian eta baita Ameriketan ere. Umore kritikoa eta garratza da taldearen ezaugarria.

Taldea 1996an sortu zuten Madrilen. Hasierako garaietan kafe antzokietan ibili ziren, eta gero egin zuten jauzia antzoki handiagoetara. Besteak beste, Madrilen, Errioxan eta Valentzian irabazi dituzte sariak Ron Lala taldekoek.

Bost aktore eta musikarik osatzen dute taldea: Juan Cañas madrildarra; Iñigo Etxebarria bilbotarra; Miguel Magdalena madrildarra; Daniel Rovalher madrildarra; eta, Alvaro Tato madrildarrak. Umorez jantziko dute Amaia antzokia.

# Bertsozale Elkarteak 25 urteko ibilbidea batu du liburu batean

A.E. | ARRASATE

Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak *Beste larogei urtian* liburua eta dokumentala aurkeztu ditu. 25. urteurrenaren harira egin dute argitalpena. Aurkezpena Villabonan egin zuten martitzenean. Alberto Barandiaran kazetari iruindarrak idatzi ditu liburua eta dokumentalaren gidoia. Aurkezpen ekitaldian, Alberto Barandiaran idazlea eta Iñaki Murua Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko presidentea izan ziren.

2012an 25 urte beteko dira Euskal Herriko Bertsozale Elkartea sortu zela. Bada, 25 urteko ibilbide hori aztertu eta landu dute *Beste larogei urtian* izeneko liburu eta DVDan.

**Elkartearen datuak**

25 urteko ariketa izan da, bertsolaritza tradizio moderno bilaka zedin. 500 bazkiderekin hasi zen elkartea lanean eta 2.300 bazkide ditu egun. Soldatapeko langile bakarreko elkarte hura, 69 langilekoa da egun. Ikaslerik ez zuen elkarte hark 20.000 ikasletik gora ditu egun. Hamaika dira, berriz, bidean gainditutako traba eta krisiak: ekonomikoak, instituzionalak, elkartearenak berarenak… Eta milaka bertsozale, 25 urte horietan barrena, une baterako edo luzarorako, elkartean borondatez konprometitu direnak.

Barandiaranek mila txosten eta agiri irakurri ditu, eta ehunka argazki eta bideo ikusi. 25 urteotan elkarteko bazkide izan diren 40 lagun inguru elkarrizketatu ditu. Testu narratiboaz gain, sei elkarrizketa oso daude liburuan, hainbat ataletan: Maialen Lujanbio, Jon Sarasua, Iñaki Murua, Ainhoa Agirreazaldegi, Arantza Mariskal eta Aritz Zeraini egindako elkarrizketak, hain zuzen.

**DATUA**

**9**

ATAL DITU LIBURUAK

Bederatzi atal horietan, elkartea sortu aurretiko egoera, historia eta etorkizuna azaltzen dira, besteak beste.




Liburu eta dokumentaleko aurkezpena. | BERTSOZALE ELKARTEA

## 'Euskararen espektakulua' ikusteko sarrerak Arkupen eskura daitezke

Bihar, zapatua, eguerdira arte egongo dira sarrerak

A.E. | ARETXABALETA

Loramendi Elkarteak *Euskeraren espektakulua* ikuskizuna eskainiko du urtarrilaren 28an Arkupeko Zaraia aretoan. Hiru saio egingo dituzte: 17:00etan, 18:30ean eta 20:00etan. Debalde izan arren, sarrerak aurrez eskuratu behar dira; zapatu eguerdira bitartean jaso ahal izango dira Arkupe kultura etxeko harreran –pertsona bakoitzeko gehienez bi.

**Kepe Errastik zuzendutakoak**

Aretxabaletarrek euskararekiko duten jarreraren gainean hausnartzeko gertatu du Loramendik *Euskeraren espektakulua*. Kepa Errasti herritarrak zuzenduta, askotariko egoerak jasotzen dituzten hainbat esketx grabatu dituzte herritarrekin: "Geure buruaz barre egiteko egoerak izango dira, umore handiarekin kontatuak", diote Loramendiko kideek ikuskizunaren gainean.

Horiek aurkezteko eta saioa bideratzeko Oihan Vega irrati esatari eta musikari bergararra izango da Arkupen hilaren 28an. Helduendako ikuskizuna dela aurreratu dute antolatzaileek. Ordubete inguru iraungo duela adierazi dute.

## Mikel Laskurain bergararra lan berriarekin dabil

A.E. | ESKORIATZA

Ados antzerki taldeak *Wilt* antzezlana aurkeztu zuen joan zen domekan Errenterian. Antzezlanean parte hartzen dutenen artean Mikel Laskurain aktore bergararra dago. Laskurainez gain, Miren Gojenola, Aitziber Garmendia, Isidoro Fernandez eta Koldo Losada aktoreek ere parte hartzen dute lanean.

Tom Sharperen lan ospetsuenaren moldaketa egin dute: *Wilt, Panpina puxgarriaren hilketa*, liburuarena. Lana Euskal Herri osoan aurkeztea da asmoa.

## Xabier Leteren olerkiak kantatuko ditu Jon Sarasuak Arkupen eta ondoren solasaldia egingo dute

Xabier Leteren gaineko kantaldia eta solasaldia egingo du Jon Sarasuak gaur, egubakoitza, Arkupe kultura etxean, 18:30ean. 2010eko abenduaren 10ean hil zen Xabier Lete, eta urteurrenaren harira antolatu du Loramendi euskara elkarteak kantaldia. Hain justu ere, Xabier Leteren hamar bat kantutan oinarritu du Sarasuak kantaldia. Ostean, solasaldia egingo dute Arkupen bertan. Jon Sarasuak Aitor Ziardegi izango du pianoan lagun gaurko emanaldia girotzeko.

## Eingeinkek antolatuta bertso afari musikatua egingo dute bihar, zapatua, Apotzagako elkartean

Bihar, zapatua, Apotzagako elkartean bertso afari musikatua egingo dute, 21:30ean. Eingeinke taldeak antolatu du ekimena. Alaia Martin, Oihana Bartra, Beñat Iguaran eta Uxue Alberdik jardungo dute bertsotan, Egoitz Aizpuru gai-jartzailearen esanetara. Musika, ostera, Imanol Urbietak eta Gari Otamendik jarriko dute. Urbietak gitarra joko du eta Otamendik, biolina. Eingeinke herria pizteko helburuarekin sortu zuten eskoriatzarrek. 15 bat lagun daude elkartean gaur egun.




Erasmusekin Italia ezagutu zuen; irudian, Erromako Arco di Constantinon.

IBONE AREXOLALEIBAR

# "Italian bizi izaten nengoela, Erasmusekin , Dolomitetan negu osorako forfaita atera nuen; asko disfrutatu nuen"

**MIRIAN BITERI** | ESKORIATZA

Donostian harrapatu dugu Ibone Arexolaleibar (Eskoriatza, 1988). Aste barruan han bizi da, Arkitekturako azken urtea egiten ari da-eta. Azterketetan buru-belarri badabil ere, guretako tartetxo bat atera, eta zaletasunen gainean egin digu berba.

**Joan den urtea Italia eman zenuen, Erasmusekin...**

Hala da. Trenton izan nintzen urtebetez, irailetik uztailera. Arkitekturak asko erretzen du, lan eta dedikazio handia eskatzen duelako. Hori dela-eta, urtebete hartu nahi nuen niretako. Hasierako ideia Lisboara joatea zen, lagun bat hara joaten zelako eta hizkuntza ikastea samurragoa zelako. Eskaera egiterakoan, bigarren Trento jarri nuen, hizkuntzagatik, eta bereziki neguan eskiatzeko aukera ematen zidalako. Oso esperientzia aberasgarria izan da. Nire burua ezagutzeko aukera eman dit, etxetik urrun egon naiz-eta. Askotariko jendea ezagutzeko ere balio du.

**Eskiatzeko aprobetxatu duzu?**

Bai. Txikitan ikasi nuen eskiatzen, eta oso gustuko dut. Dirutxoa nuen aurreztuta, eta Dolomitetan negu osorako forfaita atera nuen. Asko disfrutatu nuen, aste barruan eskiatzera joaten nintzelako eta hango pistak izugarriak direlako. Aurten ere gustura joango nintzateke; ikusiko dugu ekonomiak horretarako aukera ematen duen...

**Orain Donostian bizi zara aste barruan. Gustura hiriburuan?**

Oso gustura; koadrilatxoa egina daukagu eta zati bat etxe berean bizi gara. Antiguan dugu etxea, eta hori beste herritxo bat dela esan genezake.

**Asteburuan etxera bueltatzen zara, besteak beste, gaztelekuan lan egin behar duzulako...**

Batetik, lana dago. Bestetik, askotan, herrira bueltatzeko beharra ere izaten dut. Iraila ezkero, gainera, gaztelekuan nabil lan egiten. Italiatik etorri nintzenean lana topatu behar nuela erabaki, eta aukera hori irten zen. Udalekuetan ibili naiz betidanik Eskoriatzan, eta, hortaz, gazte asko ezagutzen nituen aurretik. Oso gustura nabil, jendearekin konfiantza izatea lortu dut. Horretaz gainera, askotariko ikastaroak ere egiten ditugu, eta hori ere oso interesgarria iruditzen zait. Esaterako, makillaje kontuak gustuko ditut, eta Gabonetan, abenduaren 30erako, *Gau elegantea* izeneko ekintza antolatu genuen. Neskak makillatzen ibili nintzen egun hartan.

**Film laburrak ere gustuko dituzu. Eingeinkek azaroan antolatutakoan parte hartu zenuen...**

Eskoriatza moduko herri txiki batean, denetarik egiten dugu, antolatzen eta prestatze lanetan ibili nintzen; azken horretan ez horrenbeste, astean zehar Donostian bizi naizelako. Horrez gain, Udaixeren harira antolatutakoan parte hartu nuen, eta aurretik egonda nago ikus-entzunezko rallyetan. Oso gustura ibiltzen naiz, oso ondo pasatzen dugu. Esperientzia ezberdina da.

**Sare sozialetan ere aditua zara. Zer eskaintzen dute?**

Hasiera batean, Donostian nengoenean Tuentin bakarrik nuen kontua. Baina Trentora joan nintzenean Facebookekoa ere zabaldu nuen. Italian ezagututako jendearekin harremana izateko aukera ematen dit horrek, eta, gainera, gastu barik. Horretaz gainera, musika berria entzuteko ere balio du, jendeak musika igotzen duelako. Azkenik, egunkariak eta bestelakoak irakurtzeko ere erabiltzen dut; hain justu ere, informatuta egoteko.

**Horrekin guztiorrekin denbora librerik geratzen zaizu?**

Zerbait. Tarte horietan lagunekin egotea gustatzen zait. Horrez gain, erosketak egiten ere oso gustura ibiltzen naiz. Irakurtzea ere gustuko dut; ohera joan aurretik zerbait irakurtzeko aprobetxatzen dut. Orain dela hilabete inguru, liburu irakurtzen hasi nintzen, italieraz. Hizkuntza ez galtzeko hainbat liburu erosi dut, eta horretan nabil.

## PERTSONALA

**Eskoriatzako txoko maiteena:** Sorautz baserria; gure baserria.

**Gosari gustukoena:** Okindegi bateko laranja-zukua, kafesnea eta tostadak.

**Kolore bat:** Beltza eta zuria.

**Kantu gustukoena:** Gariren *Amapola*.

**Bidaia gustukoena:** Egindakoa, Italiara; egiteke daukadana, AEBetara.

**Gehien gustatu zaizun liburua:** *Los pilares de la tierra.*

**Eskiatzeko tokia:** Dolomitak.

**Amets bat:** Denbora bat atzerrian ematea.

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Arrasate.** 65 metro koadroko etxebizitza salgai Erguinen. Bi logela eta egongela handia. Eguzkitsua. Bizitzera sartzeko moduan. Garajea aukeran. 168.000 euro. 616 84 55 96

**Eskoriatza.** Etxebizitza duplexa, 120 metro koadrokoa, salgai. Berri-berria. Jantzia. Prezio onean. 679 16 24 96

**Oñati.** Etxebizitza salgai San Lorentzo auzoan. 60 metro koadro eta bi logela. Prezio negoziagarria. 699 78 47 49

### 103. ERRENTAN EMAN

**Aretxabaleta.** Bi logelako eta terraza handia duen etxebizitza ematen da errentan. Deitu 665 72 18 59 telefonora.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Erguinen. Bi logelakoa. 663 57 57 03

**Bergara.** Alde zaharrean etxebizitza ematen da errentan. Bi logelakoa. Berokuntzarekin. Guztiz berritua, altzariekin eta atsegina. 629 38 29 96

**Oñati.** Kalebarrian 5 urte dituen etxebizitza berria ematen da errentan. Guztiz jantzia. Oso erosoa bizitzeko. Bi gela, komuna, eta sukalde eta egongela bateratuak. Bi balkoitxo ere baditu. 605 76 63 87

### 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaleta.** Logela ematen da errentan Araba ibilbidean. Mutil batentzat. 678 73 66 54

**Arrasate.** Neska arduratsua behar da etxebizitza osatzeko. Erdigunean dago, etxe berria da eta egoera oso onean dago. 606 88 94 14

**Arrasate.** Pixua osatzeko jende bila gabiltza. Guztiz hornitua: garbigailua, ontzi-garbigailua, berokuntza zentrala.. 250 euro hilabetero, gastuak barne. Lorea: 620 52 94 98

**Eskoriatza.** Pertsona bat behar dugu plazan dagoen etxebizitza osatzeko. Guztiz eraberritua. Leire. 685 73 60 57

**Logela Arrasaten.** Arrasaten pisukide bila gabiltza -neska zein mutil- urtarriletik aurrera gela bat betetzeko. Pisua alde zaharrean dago, handia eta argitsua da, lau logela, bi komun, sukaldea eta egongela ditu. Alokairua gehi wifi eta telefonoa gehi gastuak, 220 euro pertsonako dira hilabeteko. Animatu eta deitu. 665 71 69 10 edo 943 77 07 00

**Logela bila nabil.** Bergaran edo Arrasaten logela edo konpartitzeko pisu baten bila nabil, nahi eta nahi ez kontratoarekin. 648 01 32 39

**Logelak Arrasaten.** Erasmus etorriko diren ikasleentzako logelak behar dira otsailaren 1etik ekainaren 30era. Ingelesa praktikatzeko aukera ona da. 656 77 66 32

**Oñati.** Etxebizitza partekatu edo alokatuko nuke. 689 75 05 98

## 2. GARAJEAK

### 201. SALDU

**Bergara.** Garaje itxia salgai Aranerrekan, Bolu auzoan. Dimentsio handikoa: auto bat eta motorra sartzen dira. Prezio negoziagarria. Deitu 20:00ak arte mugikorrera eta ondoren finkora mesedez. 646 92 74 69 edo 943 71 52 46

**Eskoriatza.** 15 metro koadroko garaje itxia salgai Intxaurtxueta 23an. 679 16 24 96

### 203. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Garaje itxia, 17 metro koadrokoa, ematen da errentan Burdinaten. 943 76 06 60

### 204. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Garaje baten bila nabil, Bergarako edozein zonatan. 618 90 23 66

## 3. LOKALAK

### 303. ERRENTAN EMAN

**ARRASATE**
Taberna ematen da errentan alde zaharrean.
619 91 16 07

### 305. BESTELAKOAK

**Oñati.** Lokala daukat partekatzeko moduan. Guztiz hornituta dago. Erdigunean. 651 70 17 41

## 4. LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Bergara.** Euskaraz hitz egiten duen emakume bat behar da bi ume zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 637 77 45 57 edo 678 64 15 18

**ARRASATE**
Pintxotan esperientzia duen sukaldaria behar da.
943 77 18 40

**ESKORIATZA**
Inkernu tabernan sukaldaria behar da asteburuetan.
670 56 62 85

### 402. ESKAERAK

**Aramaio.** Aramaioko neska gaztea, Haur Hezkuntzan diplomatua, goizetan haurrak zaindu eta eskolara eramateko prest. 645 73 22 72

**Arrasate.** Emakume arduratsua etxeko lanak edota pertsona nagusiak zaintzeko prest. 656 77 53 37

**Arrasate.** Emakume arduratsua garbiketa lanak edota pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. 617 30 02 49

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu plantxa egin edo bestelako etxeko lanetarako, orduka. 699 54 17 27

**Arrasate.** Neska gazte euskalduna etxeak garbitzeko edota umeak zaintzeko prest, esperientzia handikoa. 618 41 24 79

**Arrasate.** Neska gertu etxe zein atariak garbitzeko. Erreferentzia onak ditut. 610 82 02 17

**Arrasate.** Orduka edo etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. 682 31 97 37 edo 610 99 70 46

**Bergara.** Eskarmentu handiko emakumea, geriatria ikasketaduna, orduka, etxean bertan bizi izaten zein asteburuetan lanerako gertu. Urte asko daramatzat hemen eta legezko paperak ditut. Deitu 617 12 61 44 telefono zenbakira.

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:** **PREZIO BEREZIA** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu.**
Egubakoitzean + Astelehenean: 21 € (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

**- Profesionalen moduluak.**
Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).
Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

**1. ETXEBIZITZAK**
101. Saldu
102. Erosi
